


BERTSOLARIAK

**EZKONTZA
GALDUTAKO
BERTSOAK**

I



AUSPOA LIBURUTEGIA

J Biller
Bianity
Dic. 1962

JB-322-

10219

EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK

COLECCION AUSPOA

Administración: Plaza de Santa María 2 - Tolosa

Dirección literaria: Rdo. P. Antonio Zavala S. J.

**Colegio de San Ignacio - Ategorrieta - San Sebastián
(Guipúzcoa - España)**

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 200 peseta.

Atzerrian: 275 peseta

Ongilleak: 350 »

Ale bakarra: 25 »

BERTSOLARIAK

**EZKONTZA GALDUTAKO
BERTSOAK**

I

AUSPOA LIBURUTEGIA

DEPÓSITO LEGAL S. S. 792—1962
N.º DE REGISTRO 2995—1962

IMPRESO EN LOS TALLERES TIPOGRÁFICOS «ICHAROPENA» ZARAUAZ (GUIPUZCOA)

ARKIBIDEA

Orrizide

ITZAURREA	9
«Klaratzen noa gure - ezkontzaren kausa...»...	15
«Amabi bertso berri - nua paratzera...»	22
«Biotza al baneza - kantuz deskansatu...»	28
«Bertso berri batzuek - euskaraz jartzia...»	34
«Bertso berriak jartzen - orain naiz abiyen...»	39
«Dama gazte bat da - neri bertsuak ja- rriya...»	45
«Urriyaren ogei ta - laugarren eguna...»	50
«Neskatxa batek bere gizon geiari: Milla zor- tzireun Irurogei ta - au emezortzigarrena...»	56
Nere izena da eta - apellidua.....»	62
«Ezkontza galdutako baten ondoria: Jaun Ze- rukua, ekatzu arren - grazi eder bat aurre- na...»	67
Grazia eskatzen diot - guztian Altari...»	72
«Milla zortzireun larogei eta - emezortziga- rren urtian...»	81
«Lenengo erromeriya - gendun Astiasun...»	87
«..... - da nere graziya...»	91
«Pensatutzen det - ako - bertso berriyak jartzia...»	97
«Merezi duen neskatxa bati - nua bertsuak jartzera...»	104
«Abiyatu naiz asunto bati - bertso berriyak jartzeko...»	111
«Milla ta bederatzireun urte - kunpliturikan munduan...»	118
«Dama polit bat neukan nobiya - Donostiyako partian...»	124
«.....-ek bere andregayari jarriyak: Milla ur- te pasa ta - bederatzireun...»	130

ITZ-AURREA

Ezkontza galdutako bertsoak ez dira, geyenetan beintzat, mutillak berak edo neskatzak berak jarriak. Bertsolari batengana joaten ziran, istillu guzia kontatu, bertsolariak bertsoak jarri, moldiztegira eraman, inprentatu ta zabaldu; oyek izaten ziran egin bear ziran pausoak.

Bertsolariak, noski, bere lanaren ordafia eskatzen zuan.

Pello Errotari etortzen zitzaizkion olakoan galdez. Bere alaba Mikaelak esan zidan zenbat diru eskatzen zuan, bañan zoritxarrez aztu egin zaigu.

Asteasu-ko Aumerri-k (Aramburu-berri-k) ogei duro eskatzen zituan, ta ber-bera ibiltzen zan gero erriz erri bertsoak zabaltzen. Gauza orren berri ondo dakianak esan dit eriotzakogan 13.000 pezta utzi zituala. Garai artan etzan gutxi, alajafia.

Txirritak amar duro eskatzen zituan. Illobari duro bat ematen zion eskribitzeko lana egiten ziolako. Illoba onek, Jose Ramon Erauskin-ek, ederki asko kontatu digu bertso auen jartzea nola izaten zan.

Geyenetan mutilla etortzen omen zan, ta ba-

tzuetan neskatzaren aita. Txirritak argitasun guziak eskatu ta alako egunean berriro etortzeko esaten zion. Gero, zenbait bertso bururatzean, Txirritak illobari otsegiten zion. Txirrita patxaraz exeri, illobak luma ta papera artu ta osabak esanak paperera aldatzen asten zan. Aspertzean onela esaten zion Txirritak: "Naikoa egin diagu. Etorri adi illunabarrean (edo bigar goizean)". Onela bukatu arte.

Mutilla edo neskatzaren aita berriro etortzean, irakurri egiten zizkioten bertsoak. Batzuetan ondo zeudela esaten zuan. Besteetan berriz: "Alako zera ori gogorxeago jartzea nai nuke" edo "beste zera ori kendu ta alakoa jartzea nai nuke" eskatzen zuan.

Konforme ziranean, moldiztegira eramatea izaten zan. Geyenetan mutillak edo neskatzaren aitak eramaten zuan. Batzuetan berriz Txirritari uzten zioten lan ori ta Errenteriko Makazaga-ri eramaten zion.

Ezkontza galdutako bertsoak ez ezik, beste mota askotakoak ere onelaxe jarriak dira.

Batzuek bere garaiko bertsolaririk onenak jarriak izango dira. Zoritxarrez ez degu sekulan bertsolariaren izena jakingo. Olakoetan etzuten nai izaten bere izena paperean agertzerik. Bañan bertsolari koakorrek ere erasotzen zioten lan oni. Izan ere, literaturaren edozein salletan, onak eta kaxkorrek nasiuan ibiltzen dira beti.

Dana dala, ezkontza galdutako bertsoak gure literaturaren sail aundi, oparo ta ugari bat betetzen dute. Gaurkoan liburu bat prestatu badegu ere, badago oraindik beste olako dozen erdi bat osatzeko lain.

Gure erriaren literatura ta bere bizitza zero bat eginda bizi izan dira beti. Ain zuzen ere orregatik sortzen zituzten bertso auek ain-

beste istillu, sesio, gorróto ta alkar ezin ikusiak. Ondoren luze ta izugarriak ekarri oi zituzten askotan. Kontatuko ditut batzuek.

Lendabizikoa Bizkayan gertatua da. Neska-mutil bi tratabidean asiak ziran, bañan alako batean neskatxak despeida eman zion mutillari. Onek bertsoak atera zizkion. Alkar ezin ikusirik gelditu ziran bi familiak. Denbora bazi joan ta mutilla lengo andregayaren aizpaz gus-tatu zan. Orduan komeriak. Ezin arengana alderatu.

Beste au Gipuzkoako erri batean gertatua da. Ezkontza galdu ta mutillak bertsoak atera zizkion neskatxari. Erri guztiak ikasi ta noiz-nai kantatzen zituan. Urte asko igaro ta gero ere oso ezagunak ziran. Neskatxa arek beste batekin ezkondu ta famili eder bat azi zuan. Aren seme bat lanean ari omen zan bein batean soroan. Aldameneko beste soro batean beste mutil bat ari zan ta, neskatxaren semea beste ura zanik iñondik ere uste gabe, bertso oyek kantatzen asi zan. Andik puska batera gizon bat bidean zetorren. Aditu zituan bertsoak eta begiratu bat egin zion neskatxa aren semeari. Kantari ari zanaren parera irixtean onela esan zion: "Bañan kanta oyek zer diran ba al dakik?". "Bertso zar batzuk". "Bai, bertso zar batzuk... bañan orren amari ateriak. Pasatzean begiratu ta negarrez ari zala ikusi diat". Iñork ez omen zekian nor zan bertso oyen jartzallea. Bazan ordea errian bertsolari zar bat ta onek ala esan zion bein batean bertsolari gazte bati: "Etzakala sekulan jarri iñori faltatzeko bertsorikan. Nere barrenak ez dik poz aundirik izan gaztetan bertso batzuek jarriaz". Ortik zabaldu zan errian, bera izango zala bertso oyek jarritakoa.

Beste erri batean mutillak neskari bertsoak atera zizkion. Jakin zuten neskatxaren etxe-koak ta erne jarri ziran bertso-paperik zabal-tzen ez uzteko. Beraz, saltzen asi ziran bezin laister, joan ta paper guziak erosi zituzten. Lasai asko bueltatu ziran etxera, bañan bes-teak ere etziran motelak eta etzituzten eskuan paperen erdiak baizik. Beste erdiak atera ta nai aña saldu omen zuten.

Gure azkeneko gerratean mutil bat frentean zebillela, neskatxak despeira eman zion. Muti-llak bertsoak jarri zizkion. Neskatxaren etxe-koak mugitu ziran ta nolabait ere galerazi zu-ten bertsoak zabaltzea.

Orain denbora asko ez dala, nunbaitetik sus-moa artu nuen ezkontza galdutako bertso ba-tzuk gaur eguneko bertsolari batek jarriak ote ziran. Berari galdetu ta onelaxe erantzun zidan: "Bertso oyek oraintxe dala ... urte jarri nituen... ala eskatu zidatelako. Zabaltzerik etzan izan, gurasoak galerazi zuten da. Beraz jakiñaren gañean jartzen zaitut, eragotzitako bertsoak dirala".

Gipuzkoako erri batean mutillak neskatzari bertsoak jarri, inprentatu ta gau batean etxez etxe ibilli ziran atari bakoitzean paper bana utziaz. Aizeak eraman etzezan, arri koskor ba-na jartzen zuten paper bakoitzaren gañean.

Urrengo beste kontu au antziñakoa da oso. Neskatxa Madriden neskame omen zegoan. Ala-ko batean despeida eman zion mutillari. Baita ere mutilla bertsolari batengana joan ta kan-tak jarri-arazi. Bañan ez omen zeukan bertso-lariari pagatzeko bear ainbat diru. Tabernari batek jakin ta ori bere kontu artuko zuala adierazi zion, baldin-eta bere tabernan kantak

kantatzen edo bertso-paperak zabaltzen asiko baziran. Bayetz eta orrela egin zuten.

Bertso asko omen ziran bañan au kontatu zidanak (1) etzuan bat besterik gogoan:

Neskatxa polita da
iztun atsegiña,
gorputza salerosa
pausaje ariña,
begiak beltzak eta
kolorez egiña,
neure engañagarri
mundura egiña. (2)

Alako kontuak eunka izango dira bazterretan. Don Patrizio Orkaiztegi, Tolosako bikario zanak, debekatu egin zion Alzo-ko Imaz bertsolariari olako bertsorik jartzea. Ez da arritzekoa. Zenbait tratatibide nolabaiteko zamarrak izaten baitziran.

Ondo gogoan artu bear genduke bertso auek ez dirala txantxetakoak izan. Naigabe garratz asko sortu izan dituzte, ta negar ugariak ixurri-arazi ere bai.

Beraz, ez dezayola iñork liburu oni kopeta illunik jarri, neska mutillen izena eta jayotako edo bizitako etxe ta errien izenak kenduak

(1) Resurrección Zumeta zana, Getari.

(2) Egiña bi aldiz; poto beraz. Seguru asko irugarren puntua koloreaz fiña edo olako zerbait izango zan, bañan kolorez egiña kantatu zidaten ta orrela jarri det.

daudela ikustean. Ez goaz gu iñoren lotsak berritzera.

Konforme ez dagoanak pentsa dezala bere ama edo amonaren bat izen ta guzi emen agertzea atsegin izango ote zitzayon.

Orregatik ere bertsozik zarrenak aukeratu ditugu liburu au prestatzeko, berri xamarrak diranak gerorako utziaz. Bat edo bi ez beste bertso guziak irurogei urte baño geyago dituzte, ta ez da aitatutako iñor ere bizi izango.

BERTSO BERRIAK

- 1/ Klaratzen noa gure
ezkontzaren kausa,
nere gañean iya
egin zuan jasa,
estutu nintzan baño
banagoke lasa,
aurrerago konturik
eztanean pasa.

- 2/ Ustez ez diot egin
gaitzik nik iñori,
pena det gertatzea
saldukeri ori,
esateko moduan
majak majoari,
lotsak eman dizkio
gizarajoari.

- 3/ Andregai ustezkoa
irten zat pikara,
sartu dit gorputzean
betiko ikara,
tranposa, mudakorra,
baditu bi kara,
gezur truke bete nai
zuan patrikara.
- 4/ Au zan nekazaritzan
zegoan maiztarra,
interesaz bajua
maleziz azkarra;
governatuko bazan
etxeko baztarra,
tranpaz etzidan kendu
gauza bat bakarra.
- 5/ Gazte nagoalako
ni zoroa izan,
arekin ezkontzeko
konformatu nintzan,
ez igarri ba nik
zertako zebiltzan,
engañatuta orra
zer moduz gabiltzan.

6/ Kontratoa ere ustez
genduan egiña,
esan bezela gero
portatu bagiña,
neri kendu ziraten
gauza alegiña,
gero ez duala nai,
orra kristau fiña.

7/ Diruak, beyak eta
gañera astua,
eskatu zituztenaz
egin zan gustua,
orain banago ere
ain aldrebestua,
emateko denboran
ez nintzan gaiztua.

8/ Dirua, ganaduak
eta abereak,
or ibilli dituzte
guziak nereak,
orain mintzatutzeko
baditut bideak,
estimatzen ditugu
bakoitzak bereak.

- 9/ Biziko giñadela
biok ezkonduta,
artan eduki nau
ni gauzak kenduta,
besterekin tratatu
neri aginduta,
pasadizoak orain
nago jakinduta.
- 10/ Esaten emen ditu
nitzaz milla tatxa,
lenago bajua banaiz
ez nau gora altxa,
ez naizela ederra,
txikia eta beltza,
ez dagoala neretzat
alako neskatxa.
- 11/ Ez dakigu aukera
nun daukan mutillez,
ez juntatua ez det
uts egingo millez,
asperturikan nago
ni gaizki egillez,
ausi nai liken iri
bizkarra makillez.

12/ Ausi diran ezker
gure kontratoak,
eman bearko ditun
len artutakoak,
zerren zinduzen gauza
bide gaiztokoak,
orain billatu itzan
mutil gustokoak.

13/ Neretzat etziñaden
zu aña aproposa,
fiña ta kariñosa
nai nuke esposa,
ez orrela maleziaz
dabilen tranposa,
orretan geldituaz
nik daukadan poza.

14/ Ez da ezagutuzen
gauza kolorean,
probatu arteraño
zer dan saborean,
ezkontza galdua da
nere faborean,
konsuelotan nago
penen ondorean.

15/ Lotsa bagekoa du
kopetan azala,
gauzak emateko ta
ezkonduko zala,
ez nau engañatuko
lenago bezela,
Jainkoak alakotik
aparta nazala.

16/ Begira ezazute,
mirabe gazteak,
zer dakarren ezkontza
maleziz asteak,
lotsa eman lezake
orrela ikusteak,
eskarmenta zaitezte
gurekin besteak.

17/ Ezkontzeko ez asi
ez bada gogorik,
asten bada segitu
bertatik berorik,
etorri ez dakion
gero enredorik,
luzapena baño ez da
lan okerragorik.

18/ ¡Ai dama! zure tranpak
eta maliziak,
batzuek daude zerbait
adieraziak,
nik barkatzen dizkizut
oriek guziak,
erremedi zaitzala
Jaunaren graziak.

19/ Projimo legez daukat
nik borondatea,
disgustorik nai ez det
zuri ematea,
argatikan ez noa
izena esatea,
nolakoa izan zeran
entera zaitea.

20/ Naiz ezkondu ta naiz ez
dadukagu libre,
zuk utziaz ez daukat
milla pesadunbre,
jenero orretatik
badago bai sobre,
nunbait izango al da
nere diña andre.

IKUSI: Bertso-papera «Bilbao: Imp. de A. Depont, Ascao 7». (Príncipe Bonaparte zanaren bertso-bilduma, Chicago, The Newberry Library). (Eun urte pasiak izango ditu bertso-paper onek).

BERTSO BERRIAK

1/ Amabi bertso berri
nua paratzera,
orain eman dirate
kausan aditzera;
lenago itz emana
damutu atzera,
leyalaren moduan
portatu etzera.

2/ Dibersio polit bat
nik bear det asi,
egia esan gabe
ez nezake utzi,
kausa onegatikan
dezu zuk merezi,
onratu bear zaitut

.....

2/8: Neskatzaren izena.

- 3/ Galdetu bear dizut
zer dezun kasoa
motiborikan gabe
zuk ni uztekoa,
izandu bazera ere
askoren gustokoa,
itzak ederrak eta
biotza falsoa.
- 4/ Moja sartu bear dezula
zuk omen diozu,
bokazio berria
orain artu dezu,
lenago itzak emanak
giñaden ni ta zu,
konsejatzeko txarra
ama ez daukazu.
- 5/ Ona neskatxa polita
.....kon,
txit leku seguruan
zurekin ez genbiltzan,
esplikatuko banu
izandu dan gisan,
onra bide andirik
zuretzat ezin izan.

5/2: Lendabizi, erria; gero baserriaren izena.

6/ Aditu bear nazu,
.....
gaztetandik akordatzen
ziñaden zu asi,
zerorrek egin nazu
artu eta utzi,
zugandik orrelakorik
ez nuan merezi.

7/ Lenbiziko asiera
berak ziran eman,
ez det egokiagorik
oraingo fortunan,
zugatik dibersio bat
para detn,
ixilik egotea
besterik ez unan.

8/ Zure esan batzuek
etzaizkit aztuko,
gezurrik dala ere
ez dit probatuko,
zuk esanagatikan
ez nazula artuko,
baten faltan oraindik
ez gera zartuko.

6/2: Neskatzaren izena.

7/6: Erriaren izena.

9/ Neskaxa prudentarentzat
ez da ori konduta,
fiña zein dan jakiten da
ongi probatuta,
lenago itzak emana
zaude ukatuta,
etorri da etxera
ausente izanduta.

10/ Pensatzen ez nuela
batere gauza ori,
abisatu dirate
auzotikan neri,
despedida utzirikan
auzoan mutillari,
.....-tik atera da
jo du Berastegi.

11/ Orra,,
zure borondatea,
nai det konta dezaten
denak jakitea,
ez da ori amorioa
firme izatea,
nigandik libre zara
ta or konpon zaitea.

10/7: Erriaren izena.

11/1: Neskaxaren izena.

11/4: «denak jakiteagatik» zion, bañan «denak
jakitea» bear du ta ala utzi degu.

12/ Amabi bertsorekin
ona despedida,
zurekin nere kontuak
zabalduak dira,
ni bezala engañatu
besteri begira,
zu baño fiñagoak
munduan badira.

M. J. S. O.

IKUSI: Eskuz idatzitako papera, Manuel Le-
kuona apaiz jaunaren bertso-bilduma.

Jakingarria iduritu ta eskatu egin nion Leku-
na jaunari bertso auen arkitzea nola izan zan le-
tra pare bat egiteko mesedez, ta ara zer erantzun
zidan:

«Maria Josefa de Sein, Oyartzun-go Bikariyo
xarraren arreba zan. Bikariyo xarra lengo gizaldi-
aren bukaeran il zan. Izena, Don Manuel Gabi-
no de Sein. Legarre baserriko semea zan.

Arreba au, Irigoyen batekin ezkondu zan, eta
iru alaba ta seme bat izan zituan. Semea, Don Ce-
ferino Irigoyen, urte askotan erriko Alkate izan-
dakoa, beregatik «Alkate xarra» esaten zitzayona.
Don Ceferino-k San Juan kalian zuen etxe gorri-
an, etxeko bibliotekan, arkitu ziran bertsoz be-
tetako bi karteratxo.

Ikusten danez, karteratxo oyek, Maria Josefa
de Sein onenak ziran, bere letraz egindakoak ber-
tsorik geyenak. Letra oso polita. Dirudianez ondo-
txo eskolatua zan txikitandik. Egazti-lumakin es-
kribitzen zuan, Letra txe-txeia. Bere alabak baño
askotaz ere fiñagoa.

Iru alabak monja joan ziran; gutxi gora bera, bigarren karlistatian, 1870 inguruan: bata Zumaya-ko Karmelitaetara; bestea, Oñati-Bidaurreta-ko Frantziskanaetara; eta irugarrena, Lesaka-ko Agustina-etara.

Amaren karteratxoa eta ango kankak, alabak ere erabilli izan zituzten «entretengarri» edo, kartera bateko azalean esaten dan bezela, «para pasar tiempo». («Canciones para pasar tiempo»).

BERTSO BERRIAK

- 1/ Biotza al baneza
kantuz deskansatu,
zurekin nere kausa
nai nuke dantzatu,
geyegi esatia
ez gero pensatu,
izketan errespetoz
nai nuke mintzatu.

- 2/ Lizentziya emanik
aitak eta amak,
konformatu giñaden
itz batian danak,
kantatutzera nua
gertatu diranak,
ezkontza galdu onen
ondorengo lanak.

- 3/ Lenengo asiyera
izketan alkarri,
begiratu argiya
ikustian jarri,
kariño gabekua
mudatzen da sarri,
orretan jakin dezu
orain nere berri.
- 4/ Iñoiz erromeriyen
soñu ta fandango,
biyok ibiltzen giñan
dibertitzen ondo,
merienda erroskill
oyek agirando,
zer ziñan jakin banu
ez nüzun emango.
- 5/ Aurretik ondo esan
atzetikan saldu,
persona fiñak ori
egin biar al du?
engañatu nazula
munduan zabaldu,
ojala zuregana
ez banitz azaldu.

6/ Zure biotzak eztu
kariño josiya,
esango det zer dezun
aitzaki guziya,
pobria nitzalako
kejatzen asiya,
artzazu mayorazko
etxe nagusiya.

7/ Interesa daukanak
eta osasuna,
munduko gustua ta
atsegintasuna,
desiatutzen dezu
alako gizona,
ez ni bezela pobre
zarpa dariona.

8/ Aita jarri dirazu
manifestatzeko,
lenago zan denbora
ongi pensatzeko,
orain ogei ontzurre
neri eskatzeko,
zurekin ezkontzekoz
oyek prestatzeko.

9/ Aberatsa nai dezu
nundik edo andik,
bajezaren bildurra
pobriarengandik,
ogei ontzurre ezin
presta nitezke nik,
ezta zureganako
oyek dituenik.

10/ Aita or darabiltzu
kanpuan kontari,
aberatsa billatzen
enpeñatu beri,
orain ogei ontzurre
eskatzeko neri,
amar dituna ere
zuretzat geyegi.

11/ Diruak aitamenik
etzuan lenago,
orain aitzaki billa
zabiltzala nago,
engañiyo orretzaz
egizu kuidado,
zedorri eztakizun
oraindik igaro.

12/ Etxe-alde oneko
alaba zerala,
orrekin al daukazu
diruaren gala?
izan banitz dote dun
galai prinzipala,
ez pensatu zurekin
jarriko nitzala.

13/ Trabajatzeko nago
estadu onian,
biziyo txarrik ez det,
badakit lanian,
pakian bizitzen naiz
garbitasunian,
orra manifestatu
utzi nazunian.

14/ Lau lagun bagerare
alkarren amante,
kulpa gabe galduak
gabiltza bastante,
iñun bear eztanik
egiten badute,
ni oriyekin autan
ibilliko naute.

15/ Alaba koleran ta
aita gogorrian,
ederki neurtu naute
luze laburrian,
orra nere bizitza
begiyen aurrian,
nola gertatu naizen
Irungo lurrian.

IKUSI: Bertso-papera: «Vergaran: Francisco Maria Machain-en moldizteguien». (Paris, Bibliothèque Nationale). Paperari auxe erantsi dio norbaitek eskuz: **reçu en 1869.**

Aita Donosti zanaren bertso-bilduma, makinaz idatzitako orria: Bost bertso auek ditu: 4, 9, 11, 15, 14, atzez-aurrera onelaxe jarrita. Aldaketak: 9/6: presta nitzakenik; 11/1: Diruaz aipamenik etzuen leenago; 11/5: engaflaoa hortaz; 11/7: begira eztakizun - zerorri irago; 15/7: nola gertatzen naizen.

Ta bertso oyen ondoren onela dio: Badire gehiago, bainan nere kantaria etzen orhoitzen.

Día 13 de Marzo (1)

BERTSO BERRIAK

- 1/ Bertso berri batzuek euskaraz jartzia, goguak ematen dit deklaraturtzia;
.....
ezkongai gaztia,
zer pasa zaizun orain nua esatera.

- 2/ Ezkontzeko ustian giñaden asiyak,
.....
..... eta biyak;
adituko dituzute gure komeriyak,
orain ikasi ditut dama orren berriyak.

-
- (1) Eskuz paperari erantsia.
1/5: Mutillaren izena ta deitura.
2/3: Neskaren izena ta deitura.
2/4: Mutillaren izena.

3/ Salduniote arratsa zan
señaladamente,
dama orren etxian giñan
iru mutil gazte;
“Zer nai zenukien pozik
emango nizuke,
zurekin nere denbora
pasatu nai nuke”.

4/ “..... ekatzu neri
ezkontzeko itza,
bestela nerekin daukat
sekulako gaitza”;
tamaña ontan beratu
zenidan biotza,
“nere faltik eztago
zu fiñ bazabiltza”.

5/ Oroitutzen al zera
zer esan zenian,
alkarri ezin utzi-
rik beko atian?
“Nitzaz akorda zaitetz
ori ekustian”,
....., pañuelua
zuk eman zenian.

4/1: Mutillaren izena.

5/7: Neskaren izena.

6/ Dama orrek eman ziran
pañuelo pularra,
erretratuarekin
kutuna're bada;
"Sorgin beldurrik gabe
etorri nigana,
kariño aundiya daukat,
....., zuregana".

7/ "Bayonara nijua
orain serbitzera,
kartaz emango dizut,
Meltxor, aditzera".
Zuk nari zenduela
ni fiñ ebiltzea,
gero zedorrek artu
eskribientea.

8/ Agostuan amarrian
etorri zan andi,
etzuela geyago
juan biar neri;
egiya gutxi esan
gezurra ugari,
orra nolakua dan
dama eder ori.

6/8: Mutillaren izena.

9/ Dama orrek ezkontzeko
berak esan zian,
agindu niyon arte
lana eman zian;
aziyu ori egin dit
gero azkenian,
zazpi azal baditu
orrek kopetian.

10/ Dezun puska emateko
leyala zerare,
gure itzak ortatik
izandu dirare;
nerekin ezkontzeko
jarri ziñan trebe,
orain frantzesak Bayonan
gelditu dirate.

11/ Kontuan jartzen zaituztet,
ezkongai guziyak,
orra zer egin diran
nere andregayak;
negarrez eztitut busti
alare begiyak,
ikasi ditzazuten
gu blyen berriyak.

12/ Amabi bertsorekin
nai dut despeditu,
dama orri eman gabe
milla deskreditu;
geyago're baditut
esan nai banitu,
oraingo asko det eta
obe det gelditu.

IKUSI: Jose Manterola zanaren bertso-bilduma, 1877, Donostian, bertso-papera: «San Sebastián: Imp. de Juan Osés, plaza de la Constitución, núm. 7».

BERTSO BERRIAK

1/ Bertso berriyak jartzen
orain naiz abiyen,
talenturikan baldin
badet memoriyan;
zer kaso gertatu dan
Urruñako erriyan,
esplikatu nai nuke
euskara garbiyan.

2/ Dama gazte pollit bat
Urruñan da bizi,
gorantziyak bialtzen
dizkat lendabizi;
gero berriz ondoren
kantuz milla grazi,
zergatikan dituen
nigandik merezi.

- 3/ Mutil gazte batekin
artu du antziya,
gizarajuak eztu
ala mereziya;
ustez egiña zeukan
nai zuen guziya,
etzayo baliyatu
bere maleziya.
- 4/ Onen pasadizuaz
jakintsun gerare,
ni ta beste geyago
arritu dirare;
mutilla mintzatzen da
arrazoyen jabe,
¿zertan ibilli autan
kulparikan gabe?
- 5/ Eztutela befiere
tratatu izandu,
ori orrela dala
mutillak esan du;
bere buruarekin
makifia bat lan du,
egin duen okerra
nai luke zuzendu.

6/ Etxeko andria ta
nagusiyarekin
mirabe egondu da,
nai duenak jakin;
andik biraldu dute
badakit zerekin,
soldatak kobratuta
propina berekin.

7/ Pakete bat artu du
nagusiyagandik,
gurasuen etxera
eraman du andik;
amak desafiyoka:
"zuazkit emendik,
bestela jipoyen bat
emango dizut nik".

8/ Norgandik ote duen
amak galde diyo,
"mutil gazte batena"
esan du seriyo;
orain egi itxuran
gezurra dariyo,
bañan aitzaki oyek
eztute baliyo.

9/ Amak mandatariya
mutil gazte orri,
zer posturetan zayon
alaba etorri;
onek erantzun diyo
klaro eta garbi:
“Orlako asuntorik
ez neri ekarri”.

10/ “Litxarrerri oyetan
ni ez naiz ebiltzen,
ta auzoko zikiñak
eztakit garbitzen;
besteren eskobakin
ni zakarrak biltzen,
gauz ori ondo dala
etzait iduritzen”.

11/ Dama ori zeguen
tristuran jarriya,
iñork konsuelorik
ezin ekarriya;
tristiak egun batez
ai ura larriya,
orduan jayua da
landare berriya.

12/ Bere burua zeukan
egiñik abilla,
engañatu nayian
zebillen mutilla;
etzan lenago juan
ori onen^a billa,
orain bere orrekin
or konpon dedilla.

13/ Berrogei ta amar franko
dirala deritzat
nagusiyak emanak
mirabiarentzat;
ezkondutziagatik
oriyek zuretzat,
bayetz esan ta gorde
zituen beretzat.

14/ Pensamentuz zeukaten
ezkontza egiña,
erremediatzeko
beren utsegiña;
asmu ori zutela
naiz ondo jakiña,
alferrik izandu da
oyen alegiña.

15/ Orra amabost bertso
oraingo berriyak,
zein dan entenditzeko
moduan jarriyak;
batzuentzat dirare
txit penagarriyak,
beste askorentzako
konsolagarriyak.

IKUSI: Jose Manterola zanaren bertso-bilduma, 1877, Donostian, moldiztegian izenik gabeko bertso-papera.

BERTSO BERRIAK

1/ Dama gazte bat da
neri bertsuak jarria,
.....-en jayo eta azirik
Donostiara etorria,
gorputz ederra, izketan leuna,
kolore zuri gorria,
nobio asko biar dituen
mundu engañagarria.

2/ Neronek ez det gogo aundirik
lan orietan sartzeko,
beste aldera prezisua da
dibersiyua sortzeko,
kopeta izan nobiyuari
gezurraz kantak jartzeko,
desiatua egongo zera
oyen ordañak artzeko.

1/1: Neskatzaren izena.

1/3: Neskatzaren jayoterrria.

- 3/ Dama orrekin iru urtian
zerbait tratatu genduan,
orrek zeinbat traiziyo gabe
asko bizi da munduan,
itzak ederrak aurretik esan,
saldu egiten ninduan,
konsideratzen baldin badezu
kulpa zerorrek zenduan.
- 4/ Majo bat zuen Zarauztarra,
mutil bat gustagarria,
aren kostutik josten da plantxan
ikasten ziñan jarria,
endredo asko eman diguzu,
baliamentu urria,
kastatu eta probetxurik ez
suerte penagarria.
- 5/ Ezkondutzeko oso konforme
jarriya ziñan arrekin,
aitamentxo bat egin nizun da
ain korriente nerekin,
igualmente sentimentuan
beste bat edo birekin,
nik orrengatik utzi zinduban
arrazoi aundiarekin.

6/ Aitamenikan egin orduko
orrek denari agindu,
kaso aundiak senti ditugu
esplikatu nai bagindu,
desimuluan zabillen ustez
baño zaizkigu jakindu,
ondo itz egin da atzetik saldu
amaika bidar egin du.

7/ Oraintxen ere nobio batek
despatxatu du seriyo,
beste kasorik ez diot senti
lan ori dala meriyo;
bati agindu zayozu gustoz,
ari izan amoriyo,
toriatutzen ibillitziak
ardipat ez du baliyo.

8/ Orretan zertan biguintzen zera
lendabiziiko itzetik,
malizi edo tranpaz bete ta
ateratzen da etxetik,
zenbait neskatxek bere burua
botako luke aitzetik,
kolkak txituak bezela gero
danak or ditu atzetik.

6/1: Paperak onela dio: **Aita menicares eguiñ orduco**». Onela esango nai zuan bertsolariak: **Aita-menican eguiñ orduco**», ta onela jarri degu.

7/8: ardipat = ardi bat.

9/ Gau ta gaberdi etxera gabe
orren mirabe gaztia,
errespetuko neskatxarentzat
modu ederrak ezta,
obe litzake jeniyo txarrak
beste aldera uztia,
gordallubaen bat bildu artian
ibilliko da tristia.

10/ Galdetutakuan esango dute
mirabetxo bat bazala,
konbeni bada gure Jesusek
arren gordalu dezala,
inposible da neskatxa orrekin
engañatutzen naizala,
laster guztiak burlaka dute
ontza txoriak bezela.

11/ Pauso alper asko egingo zuten
zure nobiyo gaztiak,
eztu baliyo lana oriyetan
edozein moduz astiak,
maliziyazko prinzipiyuak
ditu ondoren tristiak,
bat gustoena eskojitu ta
ez engañatu bestiak.

12/ Ai,, orain zuretzat
notizi txarrak dabilta,
au aditzian esango dezu
"gusto badute bebiltza";
zure artian zer pasako dan
arriturikan gabiltza,
lotan daudenak esnatutzen
orrela zertan zabilta?

13/ Egokiago ez dezu ematen
grandeza oyek artuta,
uste det eze zu zabiltzala
kaso txarretan sartuta,
azkenerako gelditzen zera
eskandaloak sortuta,
zere gogoia deskansa zazu
bat gustokua artuta.

14/, orra zuretzat
amalau bertso berriak,
askorentzako izango dira
gauza konsolagarriak;
zuk lendabizi artu zinduen
nobiyuaren neurriak,
oriyek ere apenas diran
kulparik gabe jarriak.

12/1: Neskatzaren izena.

14/1: » »

IKUSI: Jose Manterola zanaren bertso-bilduma,
1877, Donostian, moldiztegiaren izenik gabeko pa-
pera.

BERTSO BERRIAK

- 1/ Urriyaren ogei ta
laugarren eguna,
bertso bi paratzeko
pensatu deguna;
tristurak eraman du
nere osasuna,
au da pesalunbria
eman dirazuna.

- 2/ Irun-go semia naiz
probintzianua,
andre gayak eman dit
onlako damua;
nere pazientziya
eztago sanua,
zuretzat gorantziyak
prestatzera nua.

3/ Ustez kunplitu ditut
fiñaren klasiak,
bañan ondore txarrak
ezkontza luziak;
zure amoriyua
galdu du aiziak,
gure itzak etziran
orrela pasiak.

4/ Berak mandatu egin
ziran lendabizi,
nerekin ezkondata
nai zuela bizi;
biotzak izatia
ainbeste malezi,
azariyak ollanda
artzen galerazi.

5/ Ezin gorde nezake
kausa estaliyan,
lotsa bat artu nuen
zure familiyan;
pena askoren jabe
nago aspaldiyan,
andre gayak utzi nau
bigarren aldiyan.

- 6/ Erromeriyak ere
baziraren usu,
nerekin egin zuen
makiña bat pausu,
amaika egun eder
eraman dirazu,
obe nuen lenago
utzi baninduzu.
- 7/ Eragin dirazute
kayola berriya,
orain txoriya falta
nere alderdiya,
bakardadian nago
tristuran jarriya,
nik daukadan estadia
lastimagarriya.
- 8/ Etxe berriya daukat
dolorez egiña,
neroni arotziyan
kanpoko argiña;
oraindikan eztaukat
burua urdiña,
billatuko al degu
errian ordaiña.

9/ Orain esango dute
alkarren artian,
etxia're ona da
bitatik batian;
kontrariyoric gabe
bizi naiz pakian,
aldian nai nuena
daukat apartian.

10/ Buru berotzaleak
izandu dirade,
argatik gelditu naiz
probetxurik gabe,
oberik baldin badu
beretzat mesede,
ni ere egingo naiz
beste baten jabe.

11/ Españian ezpada
Frantziyara korri,
iñork nai baldin badu
nigana etorri;
alferrik gastatu det
zenbait urre gorri,
geyago fiyatuko
ez naitzayo orri.

- 12/ Len ere obe nuen
ez banitz fiyatu,
orain besterengana
zera abiyatu;
erakutsi dizute
zer nola giyatu,
gañera nik utzita
berriya billatu.
- 13/ Zertan egin didazu
orlako tranpiya,
maleziya daukazu
barrendik jaikiya;
ezpadizu paratzen
egoki alkiya,
ark ére izango du
zerbait aitzakiya.
- 14/ Tristurak ematen dit
sabelako miña,
desiatzen derana
logratu eziña;
begi argiya dezu,
kolore berdiña,
nere engañagarri
mundura egiña.

15/ Biotza triste daukat,
kantuz alegrantza,
andre gayak egin dit
orlako mudantza;
alferrik izandu da
nere esperantza,
orra bertso berriyak
zure alabantza.

16/
... ..
... ..
... ..
... ..
... ..
... ..
... ..
... ..

IKUSI: Bertso papera: «Vergaran: Francisco Maria Mach...» (Loyola, Aita Jose Inazio Arana zaren bertso-bilduma). Paperari puska bat falta zayo. Orregatik daude emen puntuzko lerro oyek.

NESKATXA BATEK BERE GIZON GEYARI

1/ Milla zortzireun irurogei ta
au emezortzigarrena,
bertsu berriak ezarritzeko
eman dirate ordena,
kontuak ongi atera eta
alik ere lasterrena,
gure ezkontza publiko dadin
indioten (1) barrena.

2/ Ezkontza baten pasadizoa
bear dezutet kontatu,
kulparik gabe deskreditatu ta
enaiz gelditu kontentu,
nobio jaunak ez dizkit neri
emandako itzak mantendu,
gizon faltsoak azkenerako
petardu ematen du.

(1) **Indioten** dio paperak; seguru asko **Indie-**
tan izango da.

3/ Orain urrena erran bear det
zein nuen nere nobio,
..... galai orri
izena deitutzen zaio,
asunto txar bat izandu degu
jaun ori dela medio,
nayago nuen zer tranpa zaukan
lenago jakin banio.

4/ Bertsu berriak ezarri dizkit
baita nik ere ordañak,
ez balin banaiz ekibokatzen
orrenak bezin bikañak,
alrebes predikatu dituzu
gertatu diren tamañak,
egia erraten lan aundia du
gezurtiaren mingañoak.

5/ Oi ta bat bertsu ikusi ditut
apuntatuak neretzat,
oyek dioten mandamenduan
mantxarik arkitzen etzat,
oyek asunto gaiztoak dira
donzella pobre batentzat,
beste orrenbeste zeñek ezarri
ez da faltako zuretzat.

3/2: Mutillaren izena ta deitura.

- 6/ Sasoi batian orrelakorik
biok ez ginuen uste,
iya egiñik gelditua naiz
puestero baten emazte,
matrimonio formala baita
juntatutzea bi gazte,
gure kontuak nola diraden
orain jakingo dituzte.
- 7/ Nere arbolaz beartu nazu
denbora baño lenago,
ezetz publiko erran nizun ta
orai damutan enago,
motibo orrek ekartzen ditu
zenbeit asunto jenero,
leku onean nindake orai
deskuidatua banego.
- 8/ Nik erran nizun kontu orri
ez egiteko kasorik,
"arbola ori egon bear da
esposa arte osorik,
andik aurrera izango degu
gauza orretaz besterik",
kontestatu dit "zure ondora
ez dut botako pausorik".

9/ Puska batian egon da ixilik,
berriz asi da eskatzen,
asarreturik gelditzen dela
ez balin badet zerbitzen;
"ez dezu gure relijioan
olako gauzik usatzen,
ondore txarra dakarren lanik
sekulan etzat gustatzen".

10/ Zuri despeira nik ematia
ez da milagro andia,
dégustatua nenguen zutaz,
errango dizut egia,
zergatik nitaz itz egin dezun
milla alrebeskeria,
tatxa gabia topa dezazun
orai urrengo nobia.

11/ Urte betean itza eman da
egondu gera alkarren,
tratu luzeak azkenerako
orra zer gauza dakarren,
hirur nobio nintuela len,
zu zaitudala laugarren,
hildakua're autara dezu
kulparik ez izan arren.

12/ Munduan bizi zeraten denek
bear zendukete jakin,
fondan dagoenak tratatutzen du
datorren edozeñekin,
gero nobio juzgatzen dute
ikusí orduko batekin,
itza emanik ez da izandu
zu besterikan nerekin.

13/ Villa Lujan-en izandu ginen
erronomia batera,
trena nerorrek pagatu nizun
etzinen gaizki atera,
paketetu ta zuk izan arren
aberatsaren papera,
nere anayak sosa emanta
yuan zinaden jatera.

14/ Nere informia ikasi nairik
zabiltza nere ondora,
zelo geyegiz kargatu eta
dijua zure denbora,
mundu guzia enredatzea
egin diguzun mejora,
etxea ongi gobernatu ta
juan bear da kanpora.

13/1: Villa Luján Argentina-ko erri bat da, Buenos Aires-tik 60 bat kilometrora dagoana. Erri ortan oso jayera aundiko Ama Birjiñaren iduri bat dago, 1887 urtean Argentina, Uruguay ta Paraguay-ko patrona ta zaindaria izendatu zana.

15/ Urte betean orren arropak
nerorrek ditut garbitu,
mediorikan ez dait eskaini,
oraino denak zor ditu,
gauza au gostur esan bear det
jendeak ditzan aditu,
bertsu berriak ezarri eta
arrekin pagatu gaitu.

16/ Bertso berriak errematian
despeitzen zaitu nobiak,
ni ere orai kontentu naiz
publikaturik egiak,
mundura sortu ginen guziak
gerare bekatariak,
arren barkatu ditzaizkigula
Jesusen Ama Mariak.

IKUSI: Aita Donosti zanaren bertso-bilduma,
makina idatzitako bertso-mordoa, Argentina-tik
eskuratutako kuadernoa.

.....-KO BERTSUAK

- 1/ Milla zortzi eun eta larogei
ta zortzigarren urtean,
bertso berriak jartzera nua
izketa eder batean,
gure ezkontza nola galdu den
.....-ko partean,
esperantzetan egondua naiz
bi pregoi egin artean.
- 2/ Nere izena da eta
apellidua,
ameka bider akordatzen zait
Ama Birjina arratsa,
neskatxa gazte batentzat naukan
oso kariño zorrotza,
asko kostatzen zait baiño alperrik,
etzen logratzen erreza.

1/6: Erriaren izena.

2/1, 2: Mutillaren izena ta deitura.

- 3/ Esposatzeko konformatuta
andikan illabeteko,
inbusterialian etorri zinen
amar duro emateko,
enkargatua zinela eta
ilien billa joateko,
orduan ezetz esan banizu
ez nuen asko kalteko.
- 4/ Orretarako ibilli giñen
feria egun batian,
biak Irun-en meriendatu ta
kale guzia betian,
esan zenduen: “....., ni nago
zuretzat borondatian”,
inbusterialia franko bazuen
tripa berdindu artian.
- 5/ Solas ta solas etorri giñen
feriatikan etxera,
eztiarekin konparatzen det
gure orduko patxara,
esan zenian: “....., zu nitaz
ola gustatzen bazera,
nai duzunean bazijoazte
pregoyen enkargatzera”.

4/5: Mutillaren izena.

5/5: Mutillaren izena.

- 6/ Feriatikan etxerakoan
zeronek esan zenduan:
"zu bezalako imajiñarik
ez da neretzat munduan",
amodioa kantatzen zizun
galeperraren moduan,
ni ere ezin geyago poztu
sartu banitzan zeruan.
- 7/ Bikarioa billatu nuen
nobiak esan bezala,
bai ta firma asko enkargatu're
pregoyak bota zitzala,
dama batekin esposatzeko
intentzioan nitzala,
umildadian erantzun zidan
lenbailen artu nezala.
- 8/ Beste pregoi bat egin ziguten
andik urrengo jayian,
elkarrengana juntatu eta
exeri giñen mayian,
"....., zurekin ixilik nago
solas bi egin nayian",
ontz erdiko bat eskatu zidan
lenengo arrazoyian.

8/5: Mutilláren izena.

9/ Len bederatzi, orduan zazpi,
amasei duro justuak,
oyek direla esan nezake
patriketarik ostuak,
besteren gauza arrapatzeko
lixto derauzki eskuak,
munduan ezin fida gindezke
zeren gaxtuak.

10/-ko naturala da,
..... grazia,
munduan asko korritua da
.....-n azia,
diru puska bat kendu dirazu
dolorez irabazia,
ontzako baten kaltia badet
zu pretenitzen asia.

11/ Nere nobia nola dabillen
egon zaitezte aditzen,
.....-ko portuan dago
mariñeruen serbitzen,
emakume bat ederragorik
munduan ez da aurkitzen,
dirua franko irabazten du
oyen arropa garbitzen.

9/8: «Zeren gaxtuak» jartzen du. Beraz, zerbait falta da, ta «gaxtuak» puntua izanik, erdian utzi degu utsunea.

10/1: Erriaren izena.

10/2: Neskatzaren izena ta deitura.

10/4: Etxe baten izena.

11/3: Erriaren izena.

12/ Beatzi duro eman nizekin
illien billa joateko,
franko direla iduritzen zait
tranposa batek jateko,
koltxoin ederrak bear zirela
deskantsuan etzateko,
zer enganio pasatu zaitan
ez naiz lotsa esateko.

13/ Emakume bat falsoagorik
munduan ez det ikusi,
bertsuak nola paratu naizkan
ezpazituen merezi,
korrida andirik ez du egingo
mutil gaztien igesi,
bortz zentimuan amabortz bertsu
nai dituenak erosi.

13/7: «amabortz bertsu», beraz beste bi ere badira, ez ordea nik arkitu ditudan tokian.

IKUSI: Aita Donosti zanaren bertso-bilduma, makinaz idatzitako orria.

EZKONTZA GALDUTAKO BATEN ONDORIA

- 1/ Jaun zerukua ekatzu arren
grazi eder bat aurrena,
Euskalerrian jakin dezaten
guri gertatzen zaiguna,
Donostiyan nik guztiz izan det
etxeke andre zekena,
merezi du ta Salsa
para nai diot izena.

- 2/ Pozaz beterik arkitzen nintzan
etxe orretan serbitzen,
..... alargun dagoen batek
ninduelako maitatzen,
Ama Birjiña Martxokoz asi
giñan gu biyok tratatzen,
zazpi illa bete pasa ditugu
alkar txit ondo maitatzen.

1/7: Etxekoandrearen izena.
2/3: Alargun orren izena.

- 3/ Santu guzien biaramona
ai ura egun tristea,
alargun orrek bere burua
zeukan gezurrez betea,
atso zar orrek jarri're zigun
gu biyontzako kaltea,
infenuetan zabalik dauka
sorgin txar orrek atea.
- 4/ Erantzun zidan alargun orrek
egun berean asarre:
"Ez det nai egin bada sekulan
iñola zerorren jabe,
nayago det nik aurrakin bizi
ezkondu gabe beñere,
zer dezun kulpa ez dizut bada
zuri esan nai batere".
- 5/ —"Norbaitek zuri esango zizun
neskatxa txarra naizela,
gañerakuan zu ezin arki
orren aserre bestela,
zuri gaur ori esan dizuna
ai zer nolako azala,
atso gaiztoen kontu oyetan
fiyatu etzaitezela".

6/ —“Etxeko andriak esaten zidan
aspaldi zuregatikan
ezertarako ez dezuela
batere arretarikan,
ez ekartzeko nere aurrari
zu bezelako amikan,
apartatzen naiz beti betiko
gaur bertan zuregandikan”.

7/ —“Ni ez naiz emakume bat
asko bezela zikiña,
lanian ere guztiz naiz
amoriyuan txit fiña,
ni naizen baña txarragoa da
etxeakoandre samiña,
enredo asko salsak ugari
dituen atso sorgiña”.

8/ —“Adios bada, maite izana,
txit ondo zaitea bizi,
nik detan pena garbiro asko
dizut orain erakutsi,
geyegi dakit ni añako bat
dezuela zuk merezi,
alferrikako izketa oni
obe diyogu guk utzi”.

7/3: Ezin irakurri emen diona.

9/ "Ogei eta bi ontza baditut
ezkondutzean dotetzat,
oyak ere bi ortxen dauzkate
guraso onak neretzat,
uste det bada aski naizela
alargun dagon batentzat,
zuk utzitzia biotz nerian
atsegin gertatutzen zat".

10/ San Jeronimok bere tronpeta
guri jotzen digunian,
atsua ta ni arkiko gera
Jaungoikuaren aurrian,
esango diyo faltatutzen dun
Jesukristoren legian,
infenuetan egon zaitia
penaz eternidadian.

11/ Ez det nik orain bada egiten
alargunaren kulparik,
bañan etzuen sinistu bear
orrela sorgin konturik,
ni añako bat izango dula
ez det egiten dudarik,
neri're norbait Jaun zerukuak
aguro emango al dit.

12/ Asko nai didan galai bat badet
ederra eta gaztea,
beti esaten asi zaidana
"biotz nereko maitea",
pasa bañan len Garagarrillak
aizkeneko astea,
onen emazte gertatutzeko
alaxen daukat ustea.

IKUSI: Tolosako Fakundo Adurriaga «Besamotza» zanak eskuz-idatzitako bertso-mordoa.

BERTSO BERRIAK

1/ Grazia eskatzen diot
guztlan Altari,
entendimentua
azkatzeko neri,
bertso berri batzuek
nai nituzke jarri,
zeñentzat edo nola
esango det garbi.

2/ Pasadizua garbi
nik esan nai nuke,
ontara naiz dama bat
dala mediante,
gezurretan pasazi
dizkit ark bi urte,
ez naiz sosegatuko
zein dan esan arte.

3/ Esplikatzera nua
zein dan ori bera,
bere naturalezaz
.....-arra da,
.....-n jayua
bertako alaba,
gañera du grazia
.... ..

4/ Ezkondutzeko ori
neri agindua zan,
bi urtian egon naiz
orren esperantzan,
fiñagua zalako
negoan konfiantzan,
bañan zer egin diran
biar diet esan.

5/ San Bartolomletan
ezkontza egin nuan,
oso konforme zegoan
neskatxa orduan,
mudatu egin zaigu,
ez dakit zer duan,
andregai egokia
billatu genduan.

3/4: Neskaxaren jayoterrria.
3/5: » jayotetxea.
3/8: » izenak ta deitura.

6/ Ez ote naiz arkitzen
komententzian,
bayetz agindu ziran
oso noblezian,
bañan laister asi zan
ori malezian,
fiñezak iraun dio
denbora gutxian.

7/ Ezkontza au zerratuta
andik ondorian,
ama ta neskatxa ori
topo egin bidian,
Tolosatik gorago
Olarraín bidian,
uste nuen zijuala
josteko idian.

8/ Egun ortan dama ori
erritik galdu zan,
etzan agiri eta
ez nekien nun zan,
neri kaso egin gabe
Andoaña juañ zan,
arakiñaren etxian
neskame jarri zan.

7/6: Olain zegoan, bañan Olarraín bear du.

9/ Neskatxa ori etzan
agiri iñun da
galdetu egin nuan:
“.... nun da?”;
orduan esan zuan:
“Andoaña jun da”,
nolako oyala da
ortan ezagun da.

10/ Andoaña joan zala
jakin nuenez,
karta bat bialdu diot
nere itzaren partez:
ia ote zeguan
lengo borondatez,
artan ere falsia:
errespuestarik ez.

11/ Uste nuen karta ori
nik zala galduta,
errespuestarikan
etzan azaldu ta,
neska orrek gordia
zedukan artuta,
ori bera egin dit
berriz biralduta.

9/4: Neskatxaren izenak.

12/ Nere berri gabe ori
juan Andoaña,
jakin dezute zer dan
geroko tamaña,
bi karta segituan
nik orri egiña,
ark errespuestarik ez,
zer andregai fiña.

13/ Ori ezagututzen
oso dago zailla,
argatikan ez nago
nerau're ixilla,
bi gizon biraldu'izkit
gero nere billa,
zerbait itzegitera
etorri nadilla.

14/ Lenago ibilli da
orlako peskisan,
gero bi mandatari
esan dedan gisan,
ura zegoan tokira
joango ote nitzan,
ez nitzan allegatuko
jakin banu zer zan.

15/-tik Andoaña
biraje luzian,
argana juan nintzan
zerbaiten pozian,
Birjiña Errosarioko
bespera arratsian,
an itz egin genduen
biar zan klasian.

16/ Geren pasadizua
tratatu genduan,
argana Andoaña
juan nintzan orduan,
andik ateratzeko
urte berri onduan,
josten ikasitzeko
biar zan moduan.

17/ Alkarri gauza giñan
adierazita,
.....-ra juateko
neskametza utzita,
pamilian puntara
txit komeni baita,
primaberan ezkontzeko
josten ikasita.

15/1: Neska-mutil oyen erria.

17/1: » » » »

18/ Nik nai nuan Andoaingo
neskametza uztia,
.....-ra juanda
josten ikastia,
orren kontu guztiak
ederrak ezta,
errian billatu du
majua bestia.

19/ Lagun batek esan dit:
"Egingo au utzi,
beste batekin arrek
ezkontza dik asi";
zelata egin eta
genduen ikusi,
apropos jua nitzan
testigu ta guzi.

20/ Ori gertatua da
jua dan Mayatzian,
illaren ogeylan
eta arratsian,
majua etorria
zuen illuntzian,
leyotik atera zan
irurak jotzian.

18/3: Neska-mutil oyen erria.

21/ Nere kristauak, oyek
orrela dirade,
etzitzayon akordatzen
ni nitzala ere,
etzuen uste bafia
ikusiak gaude,
gau guztia pasa zuen
argirikan gabe.

22/ Mutill ori juan zan
irurak jotzian,
ni barrenen sartu naiz
ura ateratzian,
tentatu det neskaxa
nekien klasian,
despedida gau artan
bertan eman zian.

23/ Aldrebes dabillanak
makiña bat lan du,
ori azalduko da
goiz edo berandu,
orrelako kristauak
juiziua nun du?
orduko majua're
utzia omen du.

24/ Zu,
ni naiz berriz,
zu nolakua zeran
jendix du jakin,
despeitzera nua
ogei ta laurekin,
orain bizi zaitia
nai dezunarekin.

24/1: Neskatzaren izenak ta deltura.

24/2: Mutillaren izena.

IKUSI: Tolosako Timoteo Adurriaga zanaren
eskuz idatzitako bertso-mordoa.

BERTSO BERRIAK

1/ Milla zortzireun larogei eta
emezortzigarren urtian,
bertso berriak jartzen asi naiz
umore eder batian,
txasko polit bat gertatu zaigu
Bidasoa-ko partian,
neskatxa batek autan jarri nau
bañan beretzat kaltian.

2/ Apellidua daukat,
..... det izena,
.....-ko barriyu ontan
.....-n bizi naizena,
..... ori da
salsa jartzen dabillena,
lenago pruebak emanak dauzka,
ezta ollanda zuzena.

2/1,2: Mutillaren apellidua ta izena.

2/3: Ballararen izena.

2/4: Baserriaren izena.

2/5: Neskaren izena ta deitura.

3/ Iru bat illabetian gera
aski ederki konpondu,
dudik ezta nik despeida emana
gaixuak pena artzen du,
beren semia korrejitzeko
gure etxian esan du,
eztute berak bere egunetan
askorik egin izandu.

4/ San Juan illaren amaika zan an
kriminal zar bat bezela,
esan ziraten justiziyara
etorri biarra nintzala,
neskatxa ori nik gure etxian
portxazi omen nuala,
ezta aitu nai len borondatez
birak ematen zirala.

5/ Justiziyara etorri nintzan
zer pasa zan esateko,
..... ori pronto zeguen
neri kara emateko,
ark testigua falta zuela
tranpiya zikin bateko,
esan ziguten berriz urrengo
astelenian juateko.

5/3: Neskaren izena.

6/ Astelenian juañ giñan ta
izketan giñaden asi,
neskatxa orrekin zer pasatzen zan
esan ziraten lenbizi,
nik esan nuen deklaratzia
etzala agitz itxusi,
ark salto gutxi eingo duela
mutil gaztian igesi.

7/ Gero ori galdia
tokatutzen zan klasera:
“Gauz ori publikatzia zeoni
lotsatutzen ez al zera?
zer demontretan juañ ziñaden
zu mutil aren etxera?”
Erantzun ziyon: “Gona guerriyan
ondo ote nuen neurtzera”.

8/ Lotsa aundirik eztu dama orrek
gauza ori esateko,
postura txarrian sumatzen det
kristau fiña izateko,
bere lengo semia eskutik
.....-era juateko,
zer jostunera billatu zuen
gonan neurriya artzeko.

7/1: Neskaren izena.

8/6: Baserri edo toki baten izena.

- 9/ testiguâ
 ezta agitz gizon fiña,
 konparatutzen det orrekin nik
 eltze iteko bustiña,
 neskatxa ori anparatzeko
 orrek artu duen griña,
 lenago berak gobernatu du
ren jardiña.
- 10/ Bizkarra konkortuta jartzen zan
 gauz ori galdetutzian,
 por si acaso deus sumatu zuen
ren etxian,
 etzakiela deus esan ziyon
 lendabiziko itzian,
 aguro samar mudatutzen zan,
 neri're ori ein zian.
- 11/ Juramenturik egingo zuen
 ekin ziyoten galdezka,
 iya etzuen arrek sumatu
 postura txarrian neska,
 laja geldirik aitu zuela
 eta igeska,
 gero ondotik estu samarrak
 dozen erdi bat mariska.

9/1: Testiguaren izena.

9/8: Neskaren izena.

10/4: Mutillaren izena.

11/6: Neskaren izena.

12/ Falso testimoniyua orla
lagun bateri jayotzen,
anima garbi erukitzia
etzayo asko gogotzen,
postura orretan ibiltzen dana
iñori konduta galtzen,
despreziyorik aundiyenakin
alere ezta pagatzen.

13/ Mundu onetan eztu baliyo
asko formalidadiak,
orlako gauzik eztu agintzen
Jaungoikoaren legiak,
aziyo ederrak egin tiazte
..... eta-k,
zazpi egun preso pasa ditut
kulpa aundirik gabiak.

14/ Ni kartzelara desterratuta
oiken ganatzi pizarrak
uste det eramango tuztela
infernuko diabru zarrak,
egunen baten etorko zaizka
zorroturikan adarrak,
orduan aplakatuko dira
gezurti oikin indarrak.

13/6: Bi izen, bigarrena neskarena.

15/ Familiyetan jarri tugula
sekulako disgustuak,
jendia asko akordatzen du
.....-ren sustuak,
ni kartzelara desterratuta
kunplitu tuzte gustuak
poliok aisa pagatuko tu
oik egindako gastuak.

16/ Testigu ta oik ama alabak
egin ditzuten pausuak,
deklaratuaz zabaldu nai tut
konbeni diran bertsuak,
kanta ditzaten ta
.....-ko atsuak,
ondotikan akonpañatuaz
beren testigo falsuak.

15/4: Neskaren izena.

16/5: Neskaren izena.

16/6: Baserri edo toki baten izena.

IKUSI: Moldiztegiaren izenik gabeko bertso-
-papera. (Joakin Gamborena Zabala, Errenteri).

BERTSO BERRIAK

- 1/ Lenengo erromeriya
gendun Astiasun,
lore eder eder bat
eman zeñidazun;
gero Santiagotan
dantzatu ninduzun,
orretan ezagun da
zenbat nai dirazun.

- 2/ Tolosara juan giñan
biyok alkarrekin,
zure borondatia
al baneza jakin;
itzik ere egin nai
etzuen nerekin,
arek nayago zuen
beste edozeñekin.

- 3/ Ondo konpondu giñan
joan dan San Juanetan,
nere patrikaratik
barrera danetan;
erroskil da sagardo
aurretik aseta,
barrera pagatzeko
gañera peseta.
- 4/ Ondo konpondu giñan
geren kontratuan,
ezkonduko giñala
aurtengo neguan;
baita baliatu're
geren enpleuan,
bat bisigu karrayo
bestia kontuan.
- 5/ Nik eman nizunian
borondatez mantoya,
gustora ibiltzen ziñan
dantzan panparroya;
aitu izan bazendu
nere arrazoya,
aspaldi bota zuen
apaizak pregoya.

- 6/ Oyek eman nizkizun
beste erregaliyak,
erraztun ederra ta
zapata berriyak;
dirua saldu eta
kostata ekarriyak,
orain utzi biaitu
diana guztiyak.
- 7/ Persona mudakorra
izan ezpaziñan,
etziñaden sartuko
besteren koziñan;
pikara lotsagabe
gaizki itzegiña,
zer dan esan zaidazu
nere utsegiña.
- 8/ Nai dedana esateko
jarri nazu eran,
jendiak jakin dezan
nolakua zeran;
zu ez bezelakuak
badauzkat aukeran,
kontu artuko dizut
nola bizi zeran.

9/ Zuregatik egin det
nere al derana,
ez jakin izan banu
falsua ziñala;
despedida orrekin
sarturik puñala,
zeruko Jaungoikuak
lagun dakizula.

10/ Adios, Lezo, Lezo,
amante neria,
..... guziyan
parerik gabia;
zuregandik partitzeko
ai au doloria,
ez arren txuleatu
..... neria.

IKUSI: Bertso-papera, moldiztegiaren izenik
gabea. (Gertrudis Arrieta, Errenteria).

10/3: Erriaren izena.

10/8: Neskaren izena.

BERTSO BERRIAK

1/
da nere graziya,
.....-n jayo ta
naiz bertan aziya,
bi urte ontan neukan
ezkontza asiya,
orain kantari nago
nobiyaq utziya.

2/
ustez emaztetzat,
nunbait etzan komeni,
ala iduritzen zat,
beti gogoz zan bera
kulpak besterentzat,
naitasun aundirikan
etzuen neretzat.

1/1: Mutillaren izena ta deitura.

1/3: Mutillaren jayoterra.

2/1: Neskaren izena ta deitura.

3/ Ezkondu nai nuen da
ez nenguen lasa,
emazte gayak ziran
notizi au pasa,
nola aditu zuan
gurasuen traza,
mutil ona baj baño
baserri eskasa.

4/ Notiziya berri bat
andik beriala,
gurasoeñatikan
protxurik etzala,
bañan arren gogua
firme daguala,
nolanai're nerekin
ezkonduko dala.

5/ Andikan laster eman
ziran aditzera
zিজuala neskame
edo serbitzera,
erresponditu niyon
berari atzera,
ez dezula nai esan
konforme ezpazera.

6/ Nunbait kejosu xamar
jarri nintzania,
damak errespuesta
deskantsu onian,
onela esan ziran
berak zuzenian:
konforme zeguala
gusto nuenian.

7/ Dama orrek esan ziran
gañera faborez,
gurasuai esatia
etzala aldrebek,
beti're obe zala
ibiltzia legez,
jakin bear zuela
nai zuen edo ez.

8/ Altak errespuesta
itxuraz formala,
jayak bazetozela,
egongo giñala;
ikusit nuenian
agertu etzala,
klaro igarri niyon
despedida zala.

9/ Aitak nobiyarekin
zedukan idian,
abisua eman ziran
formalidadian,
gu ikustiagatik
deskantsu onian
ezkonduko giñala
San Pedro ondorian.

10/ Nobiyak abisua
berriz zuzenian,
etzala ezkontza ori
denbora onian,
egun luzia eta
soruan lanian,
ia ez al zan obe
uda atzenian.

11/ Modu txarrak bistan da
txit nenguan estu,
dama orri esan niyon
ia al zan oztu;
errespondi ziran
aguro ta justu,
egingo zukiala
dotia apustu.

12/ Jokatzeko konforme
ziñaden dotia,
ezta asko aurretik
itzak ematia,
gaizki iduritzen zat
geyegi esatia,
etzan asko txarrago
len fiñ egotia.

13/ Orren dotia zer dan
amaikak badaki,
nunbait milla peseta
dirutan iduki,
eta gañera bi oi,
ez al da poliki?
baña nik zenbat detan
oraindak ez daki.

14/ or dabil
Tolosa aldian,
neskatxa mudakorra
Santaren moldian,
berririkan baletor
zedorren galdian,
arrekin porta zaitez
fiñeza obian.

14/1: Neskaren izena.

15/ Zuregatik eman det
makiña bat pauso,
berriz ere ikustian
eingo dizut kaso,
etzerade portatu
agitz kuriyoso,
libre nagoanian
kontentu naiz oso.

16/ Sasoi ederrekua
ni nago mutilla,
ez det juan bearrik
emaztegai billa,
bostek abisatzen dit
agertu nadilla,
zu baño fiñagua
gertatu dedilla.

IKUSI: Bertso-papera: «Tolosan: Eusebio Lopez-
-en moldizteglan.» (Isabel Zuaznabar, Basoaundia,
Lasarte).

BERTSO BERRIAK

1/ Pensatutzen det-ako
bertso berriyak jartzia,
gazte jendiak desiatzen du
dibersiyua sortzia,
pensatu nuen dama batekin
nere estadua artzia,
disponitzen det zer pasatzen dan
euskeraz publikatzia.

2/ Nere ezkontzaren pasadizuak
nai ditut adierazi,
... .. naiz,
nobiya ,
ezkondutzeko pretentsiyua
nik jarri niyon lenbizi,
klase orretako emakume bat
ez ote nuen merezi.

1/1: Erria.

2/3: Mutillaren izena ta deitura.

2/4: Neskatzaren izena.

- 3/ Esan diteke bizi gerala
biyok elkarren auzuan,
publikatzia libre izango da
egiak diran kasuan,
geren izketak pasa ginduen
txit amoriyo gozuan,
geroztik beti fiñ egondu naiz
satisfaziyo osuan.
- 4/ Konformatuak gelditu giñan
ezkondutzeko itzian,
orrek beriak faltatu ditu
dudan emanak baitzian,
itzak ederrak, mingaña leuna,
borondatia atzian,
tratamentuak artu ginduen
neretzat zori gaitzian.
- 5/ Formalidadez jakin genduen
gurasoen borondatia,
orlako gauza danen gogotik
obiaguak baitia,
..... dago
neskatxa zerbait drebia,
ni ere berriz beti izan naiz
persona korrientia.

5/5: Neskatzaren izena ta deitura.

6/ Esaten ziran posible etzala
beriala prebenitzia,
oyek nai zuten piska batian
pazientziya artzia,
nere partetik nik nai nukian
lenbailen esopatzia,
neskatxak ta amak biak nai zuten
artian eskusatzia.

7/sia zala
urte.....a,
zenbait personak ezagututzen
oso gaiztoak oi dira,
ayek tardatu egin nai zuten
luzapeneko segira,
alfer gaiztoan ez naiz egondu
neskatxa orri begira.

8/ Domiel Santu inguru artan
berak billatu ninduan,
San Juanetako prebenitzeko
korriente zan orduan,
elkarri klaro esan geniyon
zer interesa genduan,
keja baziñan berialaxen
despatxatzia zenduan.

7/1, 2: Bertso-papera puskatuta dago ta ezin irakurri.

- 9/ Itz eder asko aditu nuen
neskatxa orren aotikan,
esperantza ta konsuelua
edozein aldetatikan,
ama alabak ari dirade
beren erara platikan,
despeida osoa eman dirate,
ez dakit zerengatikan.
- 10/ Motiborikan nik ez det eman
zitalkeriyan asteko,
sentimenturik bestek duenik
oyek ez dute usteko,
ama ez dauka giyari txarra
zer egin erakusteko,
mantxa txarren bat senti al dezu
modu orretan uzteko?
- 11/ Konduta txarrik etzat arkitzen,
ez daukat zertan lotsatu,
ama alabak dituzte oyek
mingañak bapo dantzatu,
emandako itzak ondo kunplitzen
ez dira asko kansatu,
zuen esklabo naganikan
ez dezazutela pensatu.

12/ Konprometitu nintzan kasuan
fiñ asko diyot segitu,
zuk utzi arren nik izango det
lenago ainbat kreditu,
amar nobiyo badituela
berari diyot aditu,
kontu orretan ni utzi arren
nork itzegiñak baditu.

13/ Aukera aundiyan bizi zerade,
ez zaude errukarriya,
denborarekin geyentxuairi
betetzen zaye neurriya,
len guztietan maitiena ni,
orain mudantza berriya,
askotxorekin tratatzen dezun
mundu engañagarriya.

14/ Zurekin nere tratamentuak
ziran denbora gutxiko,
len emandako itza faltatzen
neronek ez nuke etsiko,
orain dauzkadan sentimentuak
dizkizut erakutsiko,
itzak orrela eman ezkeron nik
ifior ez nuke utziko.

- 15/ Neskatzax orrek idukiko du
majozko abundantziya,
orain onena eskojitutzen
daukazu penitentziya,
nere nobiya jayua dago
aspaldi gonak jantziya,
denbora asko baño lenago
eingo det dilijentziya.
- 16/ Kulparik gabe despatxatzia
nik ez deritzat egoki,
biyotz gogorak diran mediyoz
ez naute asko erruki,
zu mudakorra izan zerala
jendia frankok badaki,
nik andregaya billatuko det,
ez kuidadorik eduki.
- 17/ Gu jendiaren aupen txarrian
zergatik ote gabilta,
nayago nuke sentidu oyek
erretiratu banintza,
zuen mingañaak dirala kaso
nabarmenduak dabilta,
gero're otsak izango dira
fiñago ez bazabilta.

18/ Urte ta erdi pasatuetan
tratatu dezu nerekin,
prezisamente gusto aundirik
ez da izandu gurekin,
aurrera ere nobedadiak
izango dira zurekin,
bat gustokua ar zazu eta
sujeta zaitez arekin.

19/ Gure ezkontzak tardatu egin du
bein gelditu eta bein asi,
emakumien opiniyuak
batzuek ditut ikasi,
nik orrelako despreziorik
apenas nuen merezi,
suerte on bat egin ezazu
adios

19/8: Neskatzaren izena.

IKUSI: Bertso-papera: «Imp. de Eusebio Lopez». (Alzalegi baserria, Berriatua, Bizkaya).

BERTSO BERRIAK

- 1/ Merezl duen neskatxa bati
nua bertsuak jartzera,
notizi onak juango zaizka
belarriyaren ertzera,
arrazoi txarra berekin dauka
orrek itzetik ortzera,
nongo galaya etorriko da
dontzella ori artzera?

- 2/ Nere andregai onen kontuak
al banitzake zabaldu,
orla dabillen emakumiak
zerbait merezi ez al du?
Goyerritikan Donostiyara
mirabe au zan azaldu,
nai luke baña bere gustoko
lekura ezin da saldu.

3/ Ni naiz Agustin Donostiarra
orren nobiyo izana,
dama orrekin ezkontutzeko
asmuan egon naizana,
amaika bider "nik maite zaitut"
ori da neri esana,
bañan denboraz antza eman nion
tela ederra etzana.

4/-tik Donostia-ra
neskatx ori etorriya,
Ategorrieta-ko etxe batian
zegen serbitzen jarriya,
orren fiñeza nolakua dan
nago ondo igarriya,
ez nuen uste ziñanik orren
mundu engañagarriya.

5/ Egun batian paslatuaz
Ayatera nijuala,
neskatxa ori ni ikusita
etorri zan beriala,
esan ziraden lanak egin da
bakarrikan zeguala,
eta nerekin erromerira
juateko asmua zuala.

4/1: Neskatzaren jayoterrria.

6/ Esan bezela arratsaldian
Lezo-ra gera abitu,
Santo Kristoren eleiz ortara
gogoz genduen segitu,
nere nobiya onek errezo
ederrak or egin ditu,
andik irten da plazan balsian
iñola ezin zan gelditu.

7/ Sei t'erdiyetan etorri giñan
Lezo aldetik etxera,
ori atian despedituta
juan nitzan apaltzera,
erretira onak eztu ekartzen
biyaramonik galtzera,
beranduago iñoiz juaten
oitua izango zera.

8/ Andik urrengo ostegunian
berriz giñan alkarrekin,
galdetu nion tratamenturik
izan zuen iñorekin,
erantzun ziran: "Orlako lanik
ez det nai nik besterekin,
mundu ontako egun bakarrak
pasa biaitut zurekin".

9/ Neskatxa onek bere baimena
orla eman ziranian,
aita ta amaren etxera jua
giñan biyaramunian,
guraso oyek konformaturik
alabaren esanian,
esposatzeko esan ziguten
gerok nai genduenian.

10/ Ezkontzerako urte betian
josten ikasi aurrena,
makiñatxo bat biar zuela
esan ziraden urrena,
Bilbao-tikan ekarri nuen
juan da al zan azkarrena,
milla errial kosta zitzaidan,
etzan izango txarrena.

11/ San Migeletan Urnieta-ra
urrengo erromeriya,
ollanda onekin ekusi det nik
makiña bat komeriya,
neri patrikara ustutzia
beti onen lanteriya,
orrekin orla ibiltzia da
guztizko zorakeriya.

12/ Orren aziyo ederrak nola
diran ari naiz azaltzen,
baña alere orrelakorik
ezta barrendik kejatzen,
beti zerbaiten eske ari da,
ez du pakian lajatzen,
eta gañera belarritako
batzuek dizkit eskatzen.

13/ Belarritako oyen aukera
gero nobiya gaztiak,
pena ematen ziyon oriyek
erosi gabe uztiak,
preziyo onek ikaratuta
jarriko ditu guztiak,
ogei peseta dirade neri
patrikaratik kostiak.

14/ Illabetera esposatzeko
berak esan ziranian,
pentsatu nuen egongo zala
txit borondate onian,
begira jarri naiz dama orri
andik urrengo egunian,
Vitoriar bat lebita-duna
zedukan aldamenian.

15/ Lenago iñoliz modu ontako
kontuak pasa oi dira,
erantzutia onek merezi
luke bere arpegira,
orlakuekin geyago ere
laister aspertuko dira,
tranposa onek denboraz artu
zuen nere despedira.

16/ Mundu onetan gutxi dirade
orren antzeko personak,
ez sinistia obe litzake
orlakuaren esanak,
biyotzez faltso ibilli arren
mingañan ditu itz onak (1)
amaika barau egin bear du
au artzen duen gizonak.

17/ Orain dadukan nobiyo orrek
makiña entregatu zian,
lepuan artu ta etorri zat
zorrozkillien antzian,
kale kantoyan orrekin dago
lanetikan etortzian,
sukalde otza maiz izango da
au bizitzen dan etxian.

(1) Bertso-paperak gizonak dio, potua beraz
urrengo puntuan. Dudarik gabe itz onak bear du,
«Bertsolariya» aldizkariak dion bezela.

18/ Papera onetan dauden bertsuak
nai zituen galerazi,
enpeñu billa nola zebillen
neronek nuen ikusi,
zu bezelako salserak asko
geyago zuen merezi,
nere andregai Goyerrikua,
gustu badezu ikasi.

IKUSI: Bertso-papera: «Baracaldo - Tipografía de B. Guzmán». (Manuel Lekuona apaiz jaunaren bertso-bilduma).

«Bertsolariya» aldizkaria, 1932-VIII-28: 1/7: orra itzetik ortzera; 3/4: nitzana; 5/2: Ategorrietara nijuala; 6/5: nobiya orrek; 6/6: or egin ditu; 6/8: iñola ezin gelditu; 8/6: nik ez det nai iñorekin; 11/1: Migel Deunetan; 11/5: nere patrika ustutzia da; 12/1: orren ase; 13/3: pena ematen ziran ayeri; 13/5: preziyo oyek; 14/7: Vitoria-ko lebita dun bat; 15/1: lenago iñoliz; 15/6: laister esposatuko dira; 15/7: tranposa orrek; 17/3: etorri zaidan. Bigarren bertsoa falta da ta 15'garrena ta 16'garrena tokiz aldatuta daude alkarrekin.

Azkenean alaxe dio: **Oarra.**—Bertso olek Arteaga-tar Nikolax, 70 urte dun Mañaria-ko gizonari entzunak dira, eta berak dionez, mutil gaztia zala ikasiyak.

BERTSO BERRIAK

1/ Abiyatu naiz asunto bati
bertso berriyak jartzeko,
arro dabilizan buru ariñak
errespetuan sartzeko,
neskatxa batek esan ziraden
nola zeguan saltzeko,
bastante bero prestatu nintzan
berau andretzat artzeko,
beste gauzikan ez nuen biar
nere burua galtzeko.

2/ Neskaxa ori nongotarra da
publikatzeko izenez
libertaderik ez omen dago
orain esaten duteñez,
ezta beriala aspertzekua
nobiyo edo gizonez,
gutxinez 'ogei mudatu ditu
ni akordatzen naizenez,
pobriak gusto txarra degu ta
aberatsikan izan ez.

- 3/ Aspaldi xamar galdetu ziran
ia nobiyik al nuen,
ezkondutzeko pentsamenturik
beñere izan al nuen,
ura're faltan zeguala ta
konprometitu nai nuen,
izketan ondo ikasiya ta
poliki artu ninduen,
biyotza falso zebilkilarik
mingañez maite ginduen.
- 4/ Erantzun niyon: Lan ortarako
oraindik nago gaztia,
gure artian gerta liteke
endredo edo nastia,
etzait gustatzen eldu baña len
frutak probatzen astia,
alde batera obeko degu
orlako gauzak uztia,
akaso fraile joango naiz ta
billatu zazu bestia.
- 5/ Ia benetan ari al nintzan
galdetu ziran beriala,
sinistu zazu biotzetikan
asko sentitzen dedala,
nik aditzen det zintzua eta
mutil prestua zerala,
mundu guziyak badaki berriz
ondo konpontzen gerala,
gogo txarretik agindu niyon
bastañte pena nuala.

6/ Txit mudakorrak dirade zenbait
gaurko eguneko personak,
endemas ere ori bezela
beti kezketan daudenak,
arrotu gaitu orretarako
iderik gabe geundenak,
nai gero berak despeida eman
agindu arte itz onak,
eztaki asko zer egingo dun
au artzen duen gizonak.

7/ Langillia naiz kondutakua
gaizkirik egin gabia,
beste tatxarik etzait arkitzen
diru gutxiren jabia,
neskatxa orrek badizu berriz
oso jeniyo grabia,
mutil gaztiak engañatzeko
ain dauka mingain trebia,
au artzen dunak zer suertia,
uzten duenak obia.

8/ Diru askorik ez duelarik
tontorra goyen jartzen du,
kuidado gero lujua oyek
oraindikan ez atzendu,
zerbait ondotxo senti duena
aguro engañatzen du,
lengo kukuak oker jo diyo,
ori're berak esan du,
obe zenduke kaballero bat
alkantzatuko bazendu.

9/ Lengo Paskua bigarrenian
goratzen al zera, dama,
merienda artu aitzeki eta
nola joan ziran nigana?
mutil gaztiak engañatzeko
zer desiua zeukana,
egun arretan zure kontura
naiko jana ta erana,
itz batetikan bestera a zer
azkar mudatzen zerana.

10/ Pena aundirik ez digu eman
neskatxa orren uztiak,
sujetatuta bizi biegu
endemas ere gaztiak,
familirako kaltia dakar
lujo aundiyan astiak,
bajuan ere asko darama
mantendu eta jaztiak,
ezkondu beste gauzikan orrek
eztu pentsatzen tristiak.

11/ Dudarik ezta, neskaxa orrek
ondotxo irabazten du,
nundikan edo nola eztakit
lujo aundiya jazten du,
tamaña orretan ezin liteke
langillerikan mantendu,
moja joateko asmuan ezta
al baliteke ezkondu,
orain soldado dabillenen bat
adiskidia omen du.

12/ Ezta erraza ezagututzen
dama ornen buruzbidia,
gezurrik ez naiz esaten ari,
artu zazute fedia,
len langilliak giñun nobiyo,
orain militadia,
kantinirentzat asteko nunbait
izan biar du idia,
soldadu zarren sosak arentzat
deskuldatutzen badia.

13/ Nerekin itzak pasa baño len
bazuen beste majua,
engañatuta iduki zuen
ura're gizarajua,
nik jolasian ematen diyot
mutil on baten tajua,
beste tatxarik apenas duen
interesetan bajua,
sayatu faltan aberats gabe
apenas dagon gajua.

14/ Amar urteko asi omen zan
mutil gaztiak miatzen,
izketan badu zenbaiten planta,
ez naiz batere fiyatzen,
ori orlako ollanda zanik
nik ez nuen esperatzen,
mundu onetan asko bezela
grña gaiztuak tiratzen,
yayo xamarra dala diyote
txiki erdiyak jiratzen.

15/ Zerbait disputa izan da gero
ninduten entera-azi,
au artu banu istillu txarra
biar nuela ikusi,
nere etxian etzait gustatzen
emakumia nagusi,
ondo merezi zenuelako
zaitut eskarmenta-azi,
orra amabost bertso berriyak
nai badituzu ikasi.

IKUSI:

Bertso-papera: «Imprenta y Litografía de V. Iraola». (Gertrudis Arrieta Urdampilleta zana, Errenteri).

6/7: nai gero berak eskojida eman - agindu arte itz danak. (Paper ontatik aldatu degu, bañan ez puntu ontan, itxura danez gaizki bait-dago.)

Bertso-papera: Moldiztegiaren izen gabea, Eibar-en jaso, zeñi ordea ezin oroitu: 1/8: bera; 1/9: beste gauzarik; 3/1: galdetu zidan aber nobiyik - beñere izan al nuben; 3/3: sekula; 3/4: berare paltan; 3/9: ninduen; 4/5: eldu baño len etzait gustatzen - fruta...; 4/8: lan orieri uztia; 5/5: nik aditzen det mutil zintzua - eta prestua zerala; 6/10: ori artzen duen gizonak; 7/5: ain dizu berriz; 7/9: ori artzen duenak; 9/3: meriendatu aitzekia ta; 10/3: biegun; 11/5: tamaño orretan langillerikan - ezin liteke mantendu; 12/5: zitun nobiyo; 12/9: arentzat; 13/5: niyon; 13/7: zuen; 13/9: aberasteko sayatu paltan - apenas dagon gaxua; 14/1: urteako; 14/7: askoi; 15/3: ori artu banu; 15/10: nai dituenak ikasi.

Bertso-papera: «Imp. Macazaga. - Renteria». (Apakintza baserria, Aduna): 1/8: bera; 2/1: ...inbusteriyan - asi zitzaidan esanez / Nere biyotza jarriya dago / zuretzako naitasunez / ez da belakon... 2/9: degula; 3/9: biyotza tranpan zebilkila-

rik - maite niñuben mingañez; 4/5: eldu baño
len etzait gustatzen; 4/9: akaso fraile juango naiz
ta; 6/10: oi artzen duben gizonak; 7/5: baditu be-
rriz; 7/8: badauka abildadia; 7/9: oi artzen dunak;
8/2: artzen du; 8/3: oraindikan ez - lujua oyek
atzendu; 8/5: berez ondotoxo; 9/7: arretan; 9/10:
mudatu; 12/1: Ezagututzen ez da erraza; 12/5:
giñan; 12/6: ta orain militadia; 12/7: jartzeko
nunbait; 15/1: orrekin itzak pasa ezkerro.

Bertso-papera: «Tip. Elustondo. - Zarauz». (Ze-
fi artu nion apuntatu gabe).—Makazaga-rena be-
zelaxe, bi auek ez ezik: 3/10 ta 8/2. Bi auek Irac-
la-renak bezelaxe ditu.

- 3/ Nere nobiya izandu orrek
 graziya,
 Gipuzkoako dama gazte bat
-n jayo ta aziya,
 beragandik zan ezkontza ori
 lendabiziko asiya,
 publikatzia disponitu det
 zer dan asunto guziya.
- 4/ Gutxienez izandu ditu
 iru edo lau gustoko,
 baña ez dauka kariñorikan
 asten danari eusteko,
 tela fiñen bat ziñala zuen
 mundu guztiyak usteko,
 baño ez dezu lagun biarrik
 baztar guztiyak nasteko.
- 5/ Nere graziya,
 zuria,
 egun batian artu genduen
 ezkontutzeko idia,
 garai artan ni nintzan zuretzat
 usai gozoko loria,
 esan biar det zer izandu dan
 despatxatzeko bidia.

-
- 3/2: Neskatzaren izena.
 3/4: Neskatzaren erria.
 5/1: Mutillaren izena.
 5/2: Neskatzaren izena.

6/ Utsa neronek biartu banu,
bera zan galdezka asi,
ura emazte artu ta aber
munduan nai nuen bizi,
nik ere bayetz erantzun niyon,
eman nizkan milla grazi,
baña denbora asko baño len
mudantzak ditut ikusi.

7/ Beste lagun bat bialdu ziran
despeidarekin etxera,
ai zazu, dama, zer egin dezun
akordatutzen al zera?
mingaiña legun ibilli arren
kariño fiña atzera,
itxurik asko badezu baño
mudatzen zaila etzera.

8/ Zer ideatan zebillen ori
kanpotik neguan jakiña,
ez ixilikan iduki balu
zori oneko mingaiña,
zerorri ziñan lendabiziko
neri mandatu egiña,
orlako lanik etzan pasako
ondo portatu baziña.

9/ Oyek orrela jakin da gero
beragana naiz juntatu,
zer pasatzen zan galdetu niyon,
ez nintzan oso kontentu,
berak biartu ninduala ni
zertako nuen kontatu,
zerbait aitzaki biar zuen ta
gezur ori dit plantatu.

10/ Sentimentuan para ninduen
barren guziyak irakin,
maleziyaren faltarik orrek
apenas daukan berekin,
mundu guziyak jakin dezala
zer gertatu dan gurekin,
gaurko egunian edozein moduz
fiya liteke zurekin.

11/ Sasoyak ez du txantxarik eta
zeunden lanian asteko,
motiboen bat eman al dizut
gero onela uzteko?
zu añakorik besterik danik
iñor ez dezu usteko,
obiagua billatutzia
etzat askorik kostako.

- 12/ Jayo ta bizi egiñak gera
biyok alkarren urrian,
kontu kontari egoten giñan
iñoiz illunabarrian,
baño kariño iguala dezu
atzian eta aurrian,
zuri begira dagon mutilla
ez dago leku txarrian.
- 13/ Mundu ontara etziñan sortu
oso orgulloz pobria,
biyotza tranpan iduki arren
enbusteriyan trebia,
utsa izan balitz asko bezela
zer esanikan gabia,
gaurko egunian sobrante dago
zu zeran baño obia.
- 14/ Lenbizitikan jarri ninduen
kasikan dana poztuta,
andik puntura beiratu txarra
kopeta dana belztuta,
gaur esandako kontu guziyak
biyar baño len aztuta,
lotsa aundiyyak ematen dizkit
berak batere ez du ta,

15/ Zerorri zeran mediyoz dira,
dama, ainbeste armoni,
bertsuak zuri ipiñitzia
ain zan gauza bat konbeni,
kulparik gabe amaika enredo
ipiñi diyozui,
zere aldetik or konpon zaitez,
ariyo

15/6: Mutillaren izena.

15/8: Neskatzaren izena.

IKUSI: Bertso-papera: «Imp. y Lit. de V. Irao-
ia». (Isabel Zuaznabar, Basoandia, Lasarte).

BERTSO BERRIAK

- 1/ Dama polit bat neukan nobiya
Donostiyako partian,
pensatzen etzan okertasun bat
izan da gure artian,
ustez ezkontza egiña neukan
bañan neretzat kaltian,
despartituta gelditu gera
oso gorroto fuertian,
milla pasa ta beatzireun
eta bosgarren irtian.

- 2/ Nere kristabak, juzgatu ondo
zer diran gure kasuak,
edozer gauza erantzuten nau
neri nobiya falsuak,
nik despedida emanarekin
penak baditu jasuak,
motiborikan asko izan det
ipinitzeko bertsuak,
papera onetan jarriko ditut
ark emandako pausuak.

- 3/ Nere ustian ez naiz ibilli
neskatxa orren kaltera,
eta zergatik partifu geran
orain nua esatera,
lotsa galduta kontzientziya
utzirik alde batera,
eguna pasa mutil usayan,
gabetan igual kafera,
au bezelako arrairik ezta
legorretikan atera.
- 4/ Goyarritikan etorri zan da
ez da biziyoz atzendu,
disimuluan ibilli arren
bastante deklaritzen du,
ondo dakigu bi urte ontan
ori nola dan mantendu,
ofiziyo bat daukan meriyoz
askoren bizkar jaten du,
zeruko izarran kontaduriya
gabero eramaten du.
- 5/ Esan biazut zer postueta
zabiltzan Donosti ontan,
zokorik zoko ekusten zaitut
lanak utzita frankotan,
Urumeako arbaldi edo
fueruan paseo ortan
txit negoziyo onak dauzkazu,
etzera egoten lotan,
an egindako pikardi danak
ipiñi bestien notan.

6/ Gaizki dabillen personak beti
nun/baitetikan sutzen du,
juan dan udako biajietan
etzera asko zuzendu,
galai batekin Biarritz ortan
zertan ziñaden izandu?
geroztik emen zutzaz jendiak
kontu ederrik esan du,
euskal erritik jun ber zenduke
baldin lotsarik bazendu.

7/ Gazte askorik korritu ditu
Españiya ta Frantziya,
ta erregalo egin diyote
ogei duroko jantziya,
aberatsetan dadukalako
mutillez abundantziya,
neskatxa ori nolakua dan
orra eman abertentziya,
pikara orrek bai ote daki
nun dakan kontzientziya.

8/ Donostiatik Frantzira juanda
sutu dizkigu sasiyak,
anguak ere arrimatutzen
bai omen ditu asiyak,
neskatxa orrek ibilli ditu
buruzbide itxusiyak,
berak ez digu aitortzen baña
asko dira ikusiyak,
ez da posible deklaratzia
orren pekatu guziyak.

9/ Piña zalako ustian nitzan
orrek in tratuan asi,
eta geroztik ikusiya naiz
amaika kontu itxusi,
uste baño len ez det bigaldu
nere ondolik igesi,
engañatu nai ninduen baño
ez du nik ainbat malezi,
neskatxa orrek ez du nigandik
barkaziyorik merezi.

10/ Bi urte ontan tratatu arren
egi bat esan etzian,
konzientziko karga ederra
dauka biyotzan ertzian,
lenago inork ezpazekiyen
onen kontuak zer zian,
jendiak ai zer buru austiak
zein dan pentsatzen jartzian,
Tolosan asko poztuko dira
notizi obek artzian.

11/ Tolosan jayo omen zan baño
Donostiyän da arkitzen,
usai gozuak botatzen ditu,
askok diyote segitzen,
bisitak berriz etxe askotan
dizkigu errezibitzen,
gaztetandikan oitua dago
mutil gaztiak serbitzen,
bañan oraindik ez du ikasi
belar onduak garbitzen.

- 12/ Neskatxa gazte polita dago,
dauzka emeretzi urte,
ziertorikan ez dakit baño
ortik ogeira bitarte,
mingaña legun izketan baño
errespetua aparte,
gazte askoren onra galtzia
orrelakuak dakarte,
ori apenas mudatuko dan
mundu onetan dan arte.
- 13/ Dama polita egonagatik
ta borondate onakin,
amaika istillu ikusiko du
ezkontzen danak onekin,
zarpa zikiñak tripa zimurra
otordu tristiarekin,
astian beti bi ostial da
bost baraur egun obekin
zu artzen zaitun gizonak beti
izango ditu berekin.
- 14/ Len ere iñoiz esaten nuen
onen posturak zer zian,
igarri nion mari zikin bat
zala gonaren ertzian,
ikusi nai det gaur edo biyar
bizi moduan sartzian,
eta endemas aurretik gonak
laburtu eta jartzian,
koipe gutxiko aza zuzterrik
eztu faltako eltzian.

15/ Amabost bertso ipiñi arren
batere etzaitut galdu,
baldin gezurak jarri baditut
nai dezun aldetik eldu,
amoriyozko maitetasun bat
personak beti biar du,
zure onduan abek kantatzen
pasa nai ditut bi ordu,
errespuestak datozenian
notizi onak bialdu.

IKUSI: Bertso-papera, moldiztegiaren izenik
gabea. (Lazaro Pildain, Tolosa).

BERTSO BERRIAK

.....EK BERE ANDREGAYARI JARRIYAK (1)

- 1/ Milla urte pasa ta
bederatzi eun,
bederatzi eun,
aurten zazpigarrena
broman pasa zangun,
dama gazte polit bat
ustez nekan lagun,
gazte gaztia zala
egiña ezagun,
mingañaz alegría
amorioz illun.

- 2/ Ezkontzeko asita
orra desgraziya,
orra desgraziya,
persona tranposakin
tratatzen asiya,
ni fiñ nebillen baña
orrek maliziya,
orain argatik nago
bartzarrera utziya,
publikatzera nua
asunto guziya.

(1) Mutillaren izena.

3/ daduka
dama orrek izena,
dama orrek izena,
.....n bertan jayo
ta an bizitzen dana,
..... orreri kantzak
jartzen asi dana,
ez izan baldin balitz
alaja zuzena,
nik ola menratzen det
merezki duena.

4/ Ezkontza zerratu zan
San Juan besperan,
San Juan besperan,
gabeko amaiketan
kanpuan intzetan,
bidez azpiko aldetik
leku polita zan,
aingeru bat bezela
izketan ari zan,
ni arront engañatu
gazte samarra izan.

3/1: Neskatzaren izena.

3/4: Erriaren izena.

3/6: Mutillaren izena.

5/ Bera're gaztia da,
ez dauka urte asko,
ez dauka urte asko,
emeretzi eskaxak
emezortzi oso,
.....-ek oi ta iru
ez det ukatuko,
balientia zaude
tranpan jokatzeko,
egiak esan gabe
ez naiz ixilduko.

6/ Eskutikan elduta
asi zan esaten,
asi zan esaten:
"....., geyago zuri
ez dizut utzitzen,
lore ederragorik
ez biet ekusten,
esposatu bitarte
liberti gaitezen
jai bat señalatuta
Donostira goazen".

5/6: Mutillaren izena.

6/4 Mutillaren izena.

7/ Andik amabost egun
etziran pasatu,
etziran pasatu,
gau batez esan niyon:
"Etzi guazemazu".
"Pozik egingo dizut
orrenbeste gustu",
ori esan ta laster
eman ziran musu,
orduan bero ziñan
orain arront oztu.

8/ Etxetik Ernanira
juan giñan oñez,
juan giñan oñez,
birian itz potxolo
ederrak esanez.
Donostira tranbia
noiz zeguan galdez,
frantzesakin igual
asitzen zan ingles,
erderaz berez fuerte
naiz bate jakiñ ez.

9/ Tranbi ortan sartuta
jo degu Donosti,
jo degu Donosti,
bulebarrera juan ta
pasiatzen asi,
gero Bretxatik bueltan
kaliak ikusi,
eskuñeko besotik
ein ziran imurtzi,
“zapata pare txatik
bear dirazu erosi”.

10/ Zapata oyek artuta
bazkaltzera fonda,
bazkaltzera fonda,
galdezka “abaniko
almazena nun da?”
ura're erosi niyon
neskatx orri junda,
berua freskatzeko
izugarri on da,
nere kontura orrek
pasatu du broma.

11/ Bazkalduta eta gero
errefreskoz ase,
errefreskoz ase,
zerbait falta zuela
keñuka berriz e,
“belarriko pare bat
erosi nai nuke”,
ura're artu niyon
juan da derrepente,
traste orrek egin dit
mesede ainbat kalte.

12/ Konpra oyek eginta
asi zan esaten,
asi zan esaten:
“tranbian sartu eta
Errenteira goazen,
aizpa bat aspaldian
badaukat nik antxen,
ura bisitatuaz
liberti gaitezen,
elkarri usai diarrrik
ez genion aitzen.

13/ Errenterira juanda
aizpa ori ikusi,
aizpa ori ikusi,
gero meriendatu
bastante ederki,
limonadaz ase ta
parre egin galanki,
persona tranposuak
maliziya beti,
zortzi ta erdiyetako
jo degu Donosti.

14/ Donostira juanta
musikan lenbizi,
musikan lenbizi,
balsian asi giñan
poliki poliki,
ingelesez ainbeste
ortan e badaki,
gero errefreskuak
zerbeza ta guzti,
andik aurrerakuak
guk bestek ez daki.

15/ Urrango egunean
jo degu Ernani,
jo degu Ernani,
tranbian mano a mano
begira alkarri,
an erosi nituen
sei pañuelo zuri,
aguak kolonia
beste botilla bi,
orduan zapuztu zan
nere birjiña ori.

16/ Esan ziran: "Ekaitzu
pañuelu oyek neri,
pañuelu oyek neri,
azpildu eta letrak
egin beaizkat oiri,
gero entregatuko
dizkizut nik zuri,
gañera botella bat
usai gozu ori
bota bear niyoke
arropa danari.

17/ "Lenbizi azpilduta
gero letrak egin,
gero letrak egin,
neroni etorriko naiz
botilla batekin,
nere pañueluak
zure arropakin
usayez beteko'itut
itote birekin",
etzala konformatzen
arrazol orrekin.

18/ Esan ziran "botill bat
osua bear det nik,
osua bear det nik,
bestela eztirazu
egiten gustorik",
esan niyon "oik biyek
neronek beaitut nik",
ez pensatzen orduan,
asarratutzerik,
"bazkaldu eta goazen
etxera emendik".

19/ Bazkaldu ta-ra
urrengo pausuak,
urrengo pausuak,
ogei ta zazpi duro
neuzkan gastatuak,
ederki kosta zaizkit
dama orren tratuak,
orain utsarengatik
artu'itu puntuak,
koñaruakin baldu
dizkit pañueluak.

20/ Pañuelu oyek artu ta
urrengo egunian,
urrengo egunian,
Arditurrira jun ta
asi naiz lanian,
andikan pizkatxora
nere errabian
lau karta egin dizkat
bi aste t'erdian,
errespuestarik ez ta
burla azkenian.

19/1: Erriaren izena.

20/4: Ayako-arriaren azpi-azpian Arditurri-ko
mina-zuloa dago. Ori izango da emen aitatzen da-
na.

21/ Santiyagotan ziran
azkeneko planak,
azkeneko planak,
zuzena okertzen du
artarako danak,
neska tranposa orren
orduko esanak:
etziyotéla utzi nai
aizpak eta amak,
akabatu dirala
ezkontza orren lanak.

22/n jayoa naiz
askok dakitena,
askok dakitena,
ongi egin da gaizki
pagatu nautena,
igualak zerate
kuadrilla dana,
.....-k badauka
gaur nik aña pena,
.....-en bizitzen da
.....

-
- 22/1: Mutillaren erria.
22/8: Neskatzaren izena.
22/10: Mutillaren bizi-tokia.
22/11: Mutillaren izena ta deitura.

23/ Egazti polit ori
jayo zan munduan,
jayo zan munduan,
izugarri mantxua
artzeko eskuan,
.....-ek ikasi du
kabiya nun duan,
maiz bajatzen dalako
arbolan onduan,
olako gau-txoririk
bat dabil basuan.

24/ Ogei ta lau bertsoekin
nere erretira,
nere erretira,
motiborikan gabe
jarriak ez dira,
tranpiyan eragin dit
Donostitik jira,
zure falta guziyak
emen agi dira,
atoz kargu artzera
gezurrak badira.

23/6: Mutillaren izena.

24/9: emen agiri dira.

IKUSI: Bertso-papera: «Tip. de S. de Diego - Eibar». (Garro baserria, Getaria).

Bertso-papera: «Imp. de S. de Diego - Eibar». (Inazio Ugartemedi, Bentzalaga, Alkiza).

Bertso-papera, moldiztegiaren izen gabea.

«Bertsolariya» aldizkaria, 52-garren alea, 1952
IX-11.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1.—*R. Artola*

SAGARDOAREN GRAZIYA ta beste bertso
asko.

2.—*M. Soroa*

GABON, ¡AU OSTATUBA!, ANTON KAIKU

3.—*P. Apalategui, S. J.*

EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.

4.—*Pepe Artola*

USTEZ LAGUNA DETAN ta beste bertso
asko.

5.—*P. M. Urruzuno*

EUSKALERRITIK ZERURA ta beste ipui
batzuk.

- 6.—*Toribio Alzaga Anabitarte*
RAMUNTXO
- 7.—*Ramos Azkarate*
GALTZAUNDI ta beste bertso asko.
- 8.—*Antero Apaolaza*
PATXIKO TXERREN. (Nobela).
- 9.—*Bitoriano Iraola Aristiguieta*
OROITZAK ta beste ipui asko.
- 10.—*Bertsolariak*
ERREGE EGUNEKO BERTSO-SAYOA (1962)
- 11.—*Piarres Larzabal*
BORDAXURI
- 12.—*Bilintx*
BERTSO TA LAN GUZIAK.
- 13.—*Mariano Izeta*
DIRUA. GALGARRI
- 14.—*Parres Larzabal*
IRU ZIREN
- 15.—*Bertsolariak*
EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK



1027260


JB-322 I

JE

IMPRESO EN ESPAÑA

Antonio Zavala

Ezkontza galdutako bertsoak II



10219
GAS-129.6

Antonio Zavala

**Ezkontza galdutako
bertsoak
(II)**

Auspoa Liburutegia
257



AUSPOA • SENDOA

SEDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. 943 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax 943 49 35 48

www.sendoa.com

editorial@sendoa.com

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Antonio Zavala

**Ezkontza galdutako
bertsoak
(II)**

Auspoa Liburutegia
(1999)

© SENDOA ARGITALDARIA

ISBN: 84-89080-84-4

Depósito Legal: NA.: 643-1999

Inprimaketa: Gráficas Lizarra, S.A., Estella (Navarra)

Itzaurrea

ORAIN ogei ta amasei urte, 1962-an, *Ezkontza galdutako bertsoak (I)* izeneko liburua argitaratu genduan; gaur, berriz, bigarren alea edo *tomoa* eskeintzen diogu irakurleari.

Leendabiziko artan, gure arteko oitura berezi orren berri ematen genduan itzaurrean. Zeatz eta meatz eman ere. Ez du, beraz, gauzak emen errepi-katzerik merezi. Baiña itz bitan esan dezadan zer ziran garai bateko gaztediaren istillu aiek.

Neska-mutillak alkarrekin ezkontzeko asmotan asi ondoren, au edo ura zala-ta beren tratabideak porrot egiten bazuan, ezkontza galtzen bazuten alegia, baziran neskari bertsoak jartzen zizkieten mutillak. Edo-ta neskak mutillari, au gutxiagotan gertatzen bazan ere.

Obeto esateko, mutil edo neska ori bertsolari batengana joaten zan, arazo guzia berak ikusten zuan bezela adierazi eta bertsoaren batzuk enkargatzen zizkion, lan orrengatik duro zillar batzuk pagatuta: Pello Errotak bost kobratzen omen zituan, eta Txirritak, au geroagoko baita, amar.

Ondoren, bertso oiek jaso, inprentatu eta bazter guzietara zabaldu.

Neskak zer egiten ote zuan orduan? Batzuetan ixil-ixilik eraman, lotsaz beteta eta bere barruan ga-

lanki sufrituz; beste batzuetan, bera edo bere gurasoren bat bertsolari batengana joan eta ari bertsoak eskatu, onek ere gauzak bere ikuspegitik esplikatur eta mutillari gogor erantzunez. Eta beste batzuetan, senargaia auzitara eraman. Izan zan, bai, ori zalata agintariak ondotxo zigortutako mutillik.

Nolabaiteko oitura zan, dudarik gabe, ura. Beren arteko ezin konpondua zertarako lau aizeetara zabaldu? Esan bearrik ez dago bertso oiek negar ugaria ixuri erazi zutela Euskal-Errian.

Gauzak orrela izanik, zertarako ematen ditugu berriro argitara? Ez paperetan, gaiñera, garai artan bezela; liburuan baizik, geiago iraun dezaten.

Batetik, guk nai degula edo nai ez degula, sail oiek or daudelako. Pilla aundia osatzen dutenak dira, gaiñera. Bertsolaritzaren zati bat betetzen dute. Beraren eta gure erriaren istoria bere osotasunean ezagutuko bada, bertso oiek irakurri bearrak dira.

Ezkontza, gizakiarentzat ain garrantzitsua izanik, antropologia, literatura, olerkia, etnologia, istoria eta beste saiets askotatik begiratua eta aztertua izan da.

Erri baten izakera ez dago ulertzerik, izan ere, bikoteak nola uztartzen ziran eta bizitzari segira emateko nola prestatzen ziran argitu gabe.

Ala, laguntza bikaiña emango digute ortarako bertso-sail auek. Auen bitartez, garai bateko euskaldunen lege edo usuario-mordo bat azaltzen da: tratabideak nola asten ziran, mutillak neska nola kortejatzen zuan, emandako itzari nola eutsi bear zitzaion, erromerietara nola joaten ziran, alkarri erregaliak nola egiten zizkioten... Benetako dokumentuak ditugu, beraz, bertso-paper zaar auek.

Bestetik, berriz, literatur-jenero guzietan bezela, eskaillera aundia arkitu diteke emen ere. Bertso-

-sail onik bada, eta bai txarrik ere. Baiña batez ere oso bertso onak diran oiek narrazio zoragarriak eskeintzen dizkigute. Oso errez prosara pasa eta ipui egoki-erosoak biurtu ditezkenak, alegia.

Itz batez esateko, literatur aldetik eta antropologia-aldetik duten balioagatik eskeintzen dizkiogu irakurleari bertso auek.

Ortik aparte, berriz, beren alderdi mingarri eta txorrotx ori aalik geiena goxatzeko edo kamusteko, izen-abizen guziak kendu egin ditugu, baita erri eta toki-izenak ere, eta utsune oiek puntuz idatzi.

Ori egitea batzuen gustokoa izango ez dala badakigu, noski. Baiña, egia esan, izen eta guzi argitaratzea kontzientziko karga litzake, guretzat beintzat. Ez genduke nai, inola ere, inoren lotsak, saminak eta negarrak berritzez nai. Ezta bere ondo-rengoena ere.

Beste bide bat ere artu degu ortarako: gure arxiboan diran saillik zarrenak aukeratu, ori egiñez inor mintzeko arrisku gutxiago dagoalakoan.

Berdin egin genduan 1962-ko liburu arekin ere: izen guziak kendu eta saillik zaarrenak artu. Geroztik pasa diran urteekin, leenengo liburu artan argitaratuak orduan ziran bezin zaarrak ditugu orain onako auek.

Auspoa-ren gaiñontzeko liburuetan ere bada, an eta emen, jenero ontako saillik, bat baiño geiago gaiñera. Bertsolari baten emaitzak agertzean, jenero ontako bertsorik baldin bazuan, sail ori ere besteen artean sartzen genduan.

Dana dala, 1962 urteko liburu ura argitara emateagatik etzitzagun inor ere zapuztu; etzigan inork kargurik artu. Bai, ordea, zorionak jaso, bertso-sail oiek gure aurrekoen munduaren argazki batzuk bezelatsu dirala-ta.

Ori da, ain zuzen, gaurko liburu oni ere opa diogun zoria: ez dezala iñor ere mindu, eta leengo Euskal Erria eta leengo euskaldunak zer ziran jakiten lagun dezaigula danoi ere.

A. Z.

Bertso Berriak

1 Bertso berri batzuek
asi naiz paratzen,
ezkontza baten kausa
noa deklaratzeko;
motibo bage ez naiz
ni onetaratzen,
pasadizoak esan
nai nituzke zuzen.

2 Gure Kriadoreak,
berak deiturikan,
ama eraman digu
guri mundutikan;
eziñ erreusatu
ark agindurikan,
governatu gaitzala
bere eskutikan.

3 Senideak gu zazpi
gera izanduak,
bera serbitutzeko
Jaunak biralduak;
orietatikan bi
daude ezkonduak,
nik ogei ta bi urte,
aditu, munduak.

4 Aitak tristura zeukan
bere biotzean,
bera alargun da gu
ala ikustean;
neroni esan zidan
orduko trantzean:
andre bat txit konbeni
zakula etxean.

5 Umearen kaltean da
gure ama illa,
zeruaren erdian
gertatu dedilla;
aitak agindu ziran
ezkondu nadilla,
neretzako asi zan
bera andre billa.

6 Nere inozentzian
jo nuan bat begiz,
aitak beste batekin
nai zuan berriz;
gure opinioak
desigualak dabiltz,
aren gustoa nai nik
iñundik al balitz.

7 Dama au jartzen ziran
estadu bajura,
esaten zituala
ainbeste kejura:
“Ai, gure etxerako
eztek ona ura,
ez uala geiago
ura dan lekura”.

- 8 Ezkontza da gauza bat
borondatezkoa,
baita ere konbeni
da kariñozkoa,
sujetatzeagatik
pasio gaiztoa;
egin nai nukean nik
askoren gustoa.
- 9 Gurasoa nai nuen
nik errespetatu,
aitaren esanera
nintzan sujetatu;
utsegin nai ez nuen,
albait azertatu,
gorrotoko biderik
etzedin gertatu.
- 10 Konformatu nintzaion
nai zuanarekin,
utsegite aundirik
etzeukan nerekin;
aitak seme umilla
zedukan berekin,
pakean bizitzeko
danok alkarrekin.
- 11 Beste gauza bat degu
suertatu dana:
ezkongaiok aideak,
ark eman du lana;
egin zan zer gradutan
alde giñan plana,
paperak biraltzeko
Aita Santuagana.

12 Aita Santua bizi
zagu apartean,
mudantza guk dispensak
artu bitartean;
deabrua eztago lo
beñere katean,
ark trabajatutzen du
askoren kaltean.

13 Gure aita jarri zan
oso zoraturik,
deabru txarrak berak
buruba loturik;
dama gazte batekin
enamaturik,
familia utzi du
desanparaturik.

14 Ezkontza nai genduen,
lizentzia falta,
Erromati paperak
nekeztxo buelta;
gero aitak eduki
berekin gordeta,
gu baño len ezkondu
nai zuen eta.

15 Neri galerazia
ona etzalako,
ori eskojitu du
orain beretzako;
kontu geiago zeukan
semearentzako,
nunbait edozein ona
dago arentzako.

16 Len egiten ziozun
zuk desprezioa,
orain etorri zaio
estimazioa;
inozentzia dan au
edo traizioa,
konprenditzen zalla da
zure azioa.

17 Tranpaz egiña dala
nik ori deritzat,
neri galerazita
gorde du beretzat;
ezagutzen dirade
senar-emaztetzat,
nik oriek daduzkat
aita ta amatzat.

18 Asunto oiekgatik,
aita eta ama,
nere biotzak zenbait
pena badarama,
galdutzeko zorian
gorputz ta anima;
kontsolatu nazazu,
Ama Santisima.

19 Nere biotza dago
dolorez partitzen,
nora bildurik ere
etzagu arkitzen;
iñor ezpaldin bada
gutzaz errukitzen,
abandonaturikan
orra nun gabiltzen.

20 Alkantzatu dezadan
nik pazientzia,
Jauna, eskatzen dizut
zedorren grazia:
beste gañerakoak
naukate utzia,
governatu nazazu
zedorrek guzia.

Bertso-papera, Chicago-ko *New Librery*-n, Bonaparteren bilduman, azaldua.

Bertsoen ondotik, moldiztegiaren izena eta urtea ematen zaizkigu: *Reimpreso en San Sebastian en la imprenta de Pío Baroja.*- 1851.

Papera *reimpreso* bada, beste argitaraldi bat izan zuten bertso auek aurretik; baiña ez degu iñun arkitu; eta esaten dan urtea baiño leenagoko gertaera izango da emen kontatzen dana: aitak semeari andregaiia kentzea, alegia.

Bertso Berriak

- 1 Dama gazte bat da (1)
neri bertsuak jarriya,
.....-en(2) jaio eta azirik (3)
Donostiara etorria;
gorputz ederra, izketan leguna,
kolore zuri gorriya,
nobio asko biar dituben
mundu-engañagarria.

- 2 Neronek ez det gogo aundirik
lan orietan sartzeko,
beste aldera prezisua da
dibertsiyua sortzeko;
kopeta itzein nobiyuari (4)
gezurraz kantak jartzeko,
desiatuba egongo zera
aien ordañak artzeko.

- 3 Dama orrekin iru urtian
zerbait tratatu genduban,
orrek zeinbat traiziyo gabe (5)
asko bizi da munduan;
itzak ederrak aurretik esan,
saldu egiten ninduban,
kontsideratzen baldin badezu
kulpa zerorrek zenduan.

- 4 Majo bat zuben-tarra, (6)
mutil bat gustagarria,
aren kostutik josten da plantxan
ikasten ziñan jarria;
endredo asko eman digozu,
baliamentu urriya,
kastatu eta probetxurik ez,
suerte penagarria.
- 5 Ezkondutzeko oso konforme
jarriya ziñan arrekiñ,
aitamentxo bat egiñ nizun da
aiñ korriente nerekiñ;
igualmente sentimenduban
beste bat edo birekin,
nik orrengatik utzi zinduban
arrazoi aundiarekin.
- 6 Aitamenikan egiñ orduko (7)
orrek denari agindu,
kaso aundiak senti ditugu
esplikatu nai bagindu;
desimuluan zabillen ustez
baño zaizkigu jakindu:
ondo itz eginda atzetikan saldu
amaika bider egin du.
- 7 Oraintxen ere nobio batek
despatxatu du serio,
beste kasorik ez diot senti
lan ori dala merio;
bati agindu zaiozu gustoz,
ari izan amoriyo,
toriatutzen ibiltziak
ardipat ez du baliyo.

8 Orretan zertan biguintzen zera
lendabiziko itzetik? (8)
Malizi edo tranpaz beteta
ateratzen da etxetik;
zeinbat neskatxek bere buruba
botako luke aitzetik,
kolkak txituak bezela gero
danak or ditu atzetik.

9 Gau ta gaberdi etxera gabe
orren mirabe gaztia,
errespetuko neskatxarentzat
modu ederrak ezta; (9)
obe litzake jeniyo txarrak
beste aldera uztia,
gordallubaen bat bildu artian
ibilliko da tristia.

10 Galdetutakuan esango dute
mirabetxo bat bazala,
konbeni bada gure Jesusek
arren gordetu dezala; (10)
inposible da neskatxa orrekin
engañatutzen naizala,
laster guztiak burlaka dute
ontza txoriak bezela.

11 Pauso alper asko egingo zuten
zure nobiyo gaztiak,
eztu baliyo lana oriyetan
edozein moduz astiak;
maliziyazko prinzipiyuak
ditu ondoren tristiak,
bat gustoena eskojetu ta
ez engañatu bestiak.

- 12 Ai,, orain zuretzat (11)
 notizi txarrak dabilta,
 au aritzian esango dezu:
 "Gusto badute bebiltza".
 Zure artian zer pasako dan
 arriturikan gabiltza,
 lotan daudenak esnatutzen
 orla zertan zabilta?
- 13 Egokiago ez dezu ematen
 grandeza oiek artuta,
 uste det eze zu zabiltzala
 kaso txarretan sartuta;
 azkenerako gelditzen zera
 eskandaloak sortuta,
 zere gogua deskantsa zazu (12)
 bat gustokua artuta.
- 14txo, orra zuretzat (13)
 amalau bertso berriak,
 askorentzako izango dira
 gauza kontsolagarriyak;
 zuk lendabizi artu zinduben (14)
 nobiyuaren neubriyak, (*sic*)
 oriyek ere apenas diran
 kulparik gabe jarriak.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Donostiako Jose Manterola (1849-1884) zanaren bilduman azaldu dana.

Eun urte baiño zaarragoko bertso-sailla degu, beraz, onako au, jaun orrek bildu eta gorde izan zuan ezkerero.

Bigarrengo eta azken bertsoak diotenez, neska-txa izan zan aurrena bertsoak atera zituana; eta beste auekin mutillak ordaiña ematen dio.

Zenbait lerrotan neurria motx gelditzen da. Baiña irakurleak oso errez osatuko du falta dana, nai izan ezkerro beintzat.

(1) Neskaren izena. (2) Neskaren jaioterria. (3) Bertso-paperak: ta atzirik. (4) Aurreko lerroan *sorcera*; eta ontan, bearbada, *kopeta izan nobiyuari* bearke luke. (5) Bearbada, orrek ainbat bearke luke emen. (6) Mutillaren erria. (7) Bertso-paperak: Aita menicareseguiñ orduco. (8) Bertso-paperak: lendabicio itzehé. (9) Bertso-paperak: ez dira. (10) Bertso-paperak: arren gordaludezala. (11) Neskaren izena. (12) Bertso-paperak: descanzazu. (13) Neskaren izena. (14) Bertso-paperak: Zulendabici artucinduben.

(1870)

.....-k(1)

bere emaztegaiari ateratakoak

1 Milla zortzireun irurogei ta
amargarrengo urtian,
bertso berriak jartzera nua
txit amodiomentian;
aditzera au emon nai neuke
ezkongei danen artian,
kontu oriek aditu eta
eskarmentatu deitian.

2 det izena eta
apellidua, (2)
ni bizi naizen etxia berriz
.....-ko; (3)
..... izena duen batekin (4)
trataturako ezkontza,
kaso polit bat suzedituta
izandu degu mudantza.

3 Itzak emonik egondu giñan
urtebete ta erdian,
matrimonioz ezkonduzko
geure estadu garbian;
ibilli zaizkit kontrabandua
nere engañatu nayian,
lengo lekuan liberti zaitez,
ez nago zure premian.

- 4 Nere nobia izandu ori
-kua da berez, (5)
 oien kontuak aditzen asko
 egongo zerade parrez;
 uste bagako kontrabandua
 sartu nai ziraten errez,
 zer eskapada egiña naizen
 oiekin ezkondu bagez!
- 5 Nere nobia nola bizi dan
 jarri zaitezte aditzen,
-an daude (6)
 mutilzar bati serbitzen;
 nerekin itzez kunplitzen zuen,
 arekin noski obratzen,
 modu orretan ibillia da
 beren soldata kobratzen.
- 6 Aurretik gaizki ibiltzen dana
 ondoren txarrak oi ditu,
 nere nobia izandu orri
 alan zaio suzeditu;
 onak dirala pentsatu eta
 fruta gaiztuak jan ditu,
 gustora jan da gero gatx egin,
 sabelera da anditu.
- 7-k esaten zidan: (7)
 “....., au adi ezazu: (8)
 zedorren prenda balitz bezela
 neskatxa ori ar zazu;
 disimuluan kontu oriek
 arren okulta itzazu,
 zerbait ondotxu pagatutzera
 estendiduko naitzazu”.

- 8 “Eskarrik asko, estimatzen det zedorren borondatia, modu orretako prenda posible ez da nik eramatia; baziñekien etzala ongi lan oriek egitia, len ere ona izan dezu ta orain or konpon zaitia.
- 9 , etzait tokatzen (9) zuri doterik artzia, obako dezu diru ta neska etxian edukitzia. Zer dala uste dezu besteren nobia engañatzia? Orain zedorri tokatzen zaizu matrimonioz artzia”.
- 10 Geiago bere orrelakuak izaten dira munduan: umia franku ez dakiela aita beria nor duan; orain dirala lau illabete nik ori artzen banuan, familiako abundantzia etxeratuko genduan.
- 11 Esaten diot solteruari adina zazute oska, bein emandako firmeza gorde, naiz mutilla ta naiz neska; goguan euki -k (10) erabilli duen festa, kontu oiekin eskarmentatu, txarrago izango ezta.

12 Oiek guziok gertatu dira,
ez det gezurrik kontatu,
....., gaizki portatu zera, (11)
orra ni eskarmentatu;
zure fiñeza jakin dezaten
bertsoak ditut paratu,
aurki seaska erabilliaz
nai badituzu kantatu.

Bertso auek Gernikako Julio Bareño zanak bialdu zizkidan 1959 urtean, makinaz idatzita eta onela esanez: "Alejandro Onaindia-k (72 urte) abestute dauz, bere aita zanak Markiñako feriyen erositako paper zaartxu batetik ikasiak".

Gipuzkoeraz jarritako bertsoak dira, noski: baiña gero, Alejandro Onaindia orren buruan, bizkai-kutsua artuak.

Asteasuko Mikela Elizegi zanak, Pello Errotaren alabak alegia, buruz zekizkian bertso auetako batzuk. Baiña ez omen ziran berak eskribituak. Ezin esan, beraz, bere aitak jarriak ote ziran.

Mikelak aldaketa auek egin zituan, berak esan eta nik idatzitako bertsoetan:

7/1: Mutil zar onek esaten zidan; 7/5: onen kontuak eta moduak; 7/6: disimulatu itzazu; 7/7: zerbait ondotxo pagatuzia.

8/ Eskerrik asko estimatzen det
berorren borondatia,
ez da posible modu ontako
prendaik nik eramatia.
Zer zala uste zun besten nobiya
orrela engañatzia?
Lenago ona zenduban eta
orain or konpon zaitia.

10/ Geiago ere orrelakuak
izan oi dira munduan:
umia pranko eztakitenak
aita beria nor duan;
oraintxe dala lau illabete
nik artu izan banuan,

familiako abundantzia
etxeratuko genduan.

(1) Mutillaren izen-abizenak. (2) Mutillaren izen-abizenak.
(3) Mutillaren jaioterria eta jaiotetxea. (4) Neskaren izena. (5)
Neskaren jaioterria. (6) Etxe baten izena. (7) Neska serbitzen
egondako etxearen izena, ango nagusiari erantsia. (8) Mutillaren
izena. (9) Neska serbitzen egondako etxearen izena, ango nagu-
siari erantsia. (10) Mutillaren izen-abizenak. (11) Neskaren ize-
na.

Bertso Berriak

1 Bertso berri batzuek
biaitut atera,
erregalo bialtzeko
baserri batera;
nere ezkontzaren kausak
nua esatera,
kejanterik iñondik
izango ote da?

2 Ni naiz,
nobiya, (1)
aspaldiyan ibilli du
zenbait zilimoni;
orrekiñ itzegiña
damutan nago ni,
nunbait gusto geiegi
etzaigu komeni.

3 Ama Birjiña Agoztuko
edo inguruban,
aitamena egin niyon
al nuben moduban;
etziran baiezkorik
agindu orduban,
beste kuidadoreen bat
bazeukan buruban.

- 4 Geroxiago dira
San Juan txikiyak,
Erniora juañ giñan
dama ori ta biyak;
erromeriyá oiek
dira egokiyak,
orduban juañ ziran
lengo aitzakiyak.
- 5 Biraje artan ziran
konpleto agindu,
kausa aundiyak dira
esan nai bagindu;
makiña bat traiziyo
geroztik egiñ du,
orrela burlatuba
.....-ek miñ du. (2)
- 6 Majo bat ni ninduben,
bestia, (3)
ark ere ibilli du
nik ainbat arrisku;
uste zuen zeukala
dena bere esku,
suerte igualak
fortunatu zaizku.
- 7 Nunbait ere (4)
ni bezela juañ zan,
..... agintzia (5)
lotsatuko etzan;
gezurra eta saltsa
ibilli du dantzan,
biyok egongo giñan
orren esperantzan.

- 8 Ondo kunplitu dezu
emandako itza,
faltsua findutzen da
izugarri gaitza;
eskuban arturikan
tranpiyaren giltza,
mutillak engañatzen
ederra zabilta.
- 9 Errezelatzen nintzan
tranpan zebillena,
galdetu ta ukatu,
nik ori det pena;
berez izanagatik
danik abillena,
deskuidatu egiten da
gaizki dabillena.
- 10 Modu ortan juan dira
amar illabete,
oso ez dira baña
ez dira aparte;
oraiñ kulparik gabe
despatxatu naute,
goguan izango det
bizi naizen arte.
- 11-k gezur asko (6)
esan du neretzat,
edozeiñ gauza-modu
ondo da guretzat;
oraiñ disgusto asko
daukazki beretzat,
baita izango ere
alakuarentzat.

- 12 Erromerira juatia
dute disponitu,
gezurra edo egiya
ala det aditu;
nunbait kontrariyuak
ark ere baditu,
.....-k-ri (7)
ez diyo segitu.
- 13 Mutill ori dezente
ibillitu dediñ,
amak erropa onak
nai zizkiyon egiñ;
maitia izan arren
ark ere utsegiñ,
neskatxak Donostiyara
diyo iges egiñ.
- 14 Oiek orrela eta
dama orren anaia,
neretzat izandu du
gaizki esan naia;
orrek ere badauka
bertso biren gaia,
informe txarrak ematen
dago ibilliya.
- 15 Neskaxa oztu dute
informe txarrakiñ,
oiek kontentu ziran
ez baniye jakiñ;
neretzat ausentziyan
beti alkarrekiñ,
ez da fiatzen erraz
orrelakuakiñ.

16 Gure tratamentubak
denbora gutxiko,
ez dira ate guztiyak
batian itxiko;
oraindik orrenbestez
ez degu etsiko,
ez al naute guziyak
orrela utziko.

17 Neskatxetik aukera
dago nere ustez,
norbaitek serbituko
gaitu borondatez;
gezurra ibilli dezu
egiyaren partez,
....., al badezu (8)
ondo bizi zaitez.

Bertso-papera, *Donostiyan: Juan Osés-en moldiztegui*an argitara emana eta Donostiako Juan Arbelaz zanaren eskutik jaso.

Urterik ez du sail onek aitortzen. Baiña Bilintxen bertso-sail batzuk *Juan Osés-en moldiztegi* ortan inprentatu ziran. Bertso zaarrak ditugu, beraz, onako auek; eun urtetik gora ondotxo paseak.

(1) Mutillaren eta neskaren izenak. (2) Mutillaren izena. (3) Bigarren nobioaren izena. (4) Bigarren nobioaren izena. (5) Neskaren izena. (6) Bigarren nobioaren izena. (7) Neskaren eta bigarren nobioaren izenak. (8) Neskaren izena.

Andregai nuana

1 (1)
andregai nuana,
kortejo askorekin
tratatzen duana;
suerte egokiya
txit da neregana,
konfiantza geiegi
zedukan nigana.

2 Siñaladamente zan
Korpus-arratsian,
nere ixillik beste
majo bat etxian;
ni negoan zelatan
atian atzian,
garbi aitortu balit
ajolik etzian.

3 Urtebetez egon naiz
ni zuri begira,
amaika illabete
beñepeñ badira;
orain antzeman dizut
nun dezun erida:
pobria naizelako
nere despedida.

4 Antzeman nionian
zebilela arekin,
koleraz jarri nintzan,
zer egin ez nekin;
segiran jarri nintzan
itzez berarekin,
gogor eraso nion
arrazoiarekin.

5 Adios,, (2)
millaka graziak,
uste det dituzula
ondo mereziak;
pentsamentu orretan
ez giñan asiak,
zuk ipiñi dituzu
enredo guziak.

Tolosako Fakundo Adurriaga Besamotza zana-
ren eskuz idatzitako bilduman arkitutako bertsoak.

(1) Neskatxaren Izen-abizenak. (2) Neskatxaren izena.

(1889)

Bertso Berriak

.....-k jarriak (1)

- 1 Milla zortzireun larogei eta bedratzigarren urtian, bertso berriak jartzera nua euskera eder batian, gure ezkontza nola galdu den-ko partian; (2) esperantzatan egondu nintzan bi pregoi egin artian.

- 2 Nere izena da eta apellidua, (3) amaika bider akordatzen zat Ama Birjina arratsa. Neskatxa gazte batentzat neukan oso kariño zorrotza, asko kosta zat bañan alperrik, etzan logratzen erreza.

- 3 Neskatxa gazte pollita dago mutil bati gustatzeko, orregaitikan nik esan nion laster samar prestatzeko. Eskuarterik ez emen dauka diru asko gastatzeko, lotsa aundirik ez du izandu neri zerbait eskatzeko.

4-ko naturala da,
..... grazia, (4)
munduan asko korritua da
.....-an azia. (5)
Ontzako baten kaltia badet
zu pretenditzen asia,
diru-puska bat kendu dirazu (6)
dolorez irabazia.

5 Esposatzeko konformatuta
andikan illabeteko,
inbusterialian etorri ziñan
amar duro emateko.
Enkargatuta zirala eta
illien billa juateko,
orduan ezetz esan banizu
ez nuan asko kalteko.

6 Bedratzi duro eman nizkitzun
illean billa juateko,
franko dirala iruritzen zat
tranposa batek jateko:
koltxoi ederrak biar zirala
deskantsuan etzateko;
zer engañio gertatu zadan
ez naiz lotsa esateko.

7 Orretarako ibilli giñan
peria-egun batian,
biak Irunen meriendatuta
kafe guziak betian,
esanez: "....., ni nago beti (7)
zuretzat borondatian".
Inbusterialian franko bazuen
tripa berdindu artian.

- 8 Periatikan etxerakuan
zedorrek esan zenduan:
“Zu bezelako imajinarik
neretzat ezta munduan”.
Amoriuak kantatzen zizun
galeperraren moduan,
ni ere ezin geiago poztu (8)
sartu banintza zeruan.
- 9 Jolas ta jolas etorri giñan
periatikan etxera,
eztiarekin konparatzen det
orduko gure patxara.
Esan zendiran: “....., zu nitaz (9)
orla gustatzen bazera,
al dan lelena bazijuazke
pregoiak enkargatzera”.
- 10 Bikariua billatu nuen
nobiak esan bezela,
baita fin asko enkargatu ere
pregoiak bota zetzala;
dama batekin esposatzeko
pentsamentuan nintzala,
umildadian erantzun ziran
lenbailen artu nezala.
- 11 Gala aundia jarri zenduen
pregoirako aparria,
mai ederrian jateko piñak,
ollua ta aragia.
Gero ardua eta koñaka,
abondante eraria,
esaten ere ezta erraza
gau artako komeria.

- 12 Beste pregoi bat egin ziguten
andik urrengo jayian,
alkarregana juntatu eta
eseri giñan mayian.
“....., zurekin nago ixilik (10)
jolas bi egin nayian”.
Ontzerdiko bat eskatu ziran
lelengo errascihian. (*sic*)
- 13 Len bedratzi ta orduan zazpi
amasei duro justuak,
oiek guziak konta litezke
patrikaratik ostuak.
Besteren gauza arrapatzeko
listo daukizki eskuak,
munduan ezin pia litike
zergaitik gauren gaiztuak.
- 14 Nere nobia nola dabillen
egon zaitezte aditzen,
.....-ko portuan dago (11)
marineruen serbitzen.
Emakume bat formalagorik
munduan ezta arkitzen,
dirua franko irabazten du
aien erropak garbitzen.
- 15 Despedida bat eman dirazu
ezin geiago tristia: (12)
oraindik ere esposatzeko
zaurela franko gaztia.
Kariñuan partez selliccan (*sic*)
endredua ta nastia,
borondatia kunplitu deilla
merezi badet uztia.

16 Emakume bat tranposagorik
ez det sekulan ikusi,
bertsuak nola jarriko nizkan
ezpazituen merezi?
Korri aundirik eztu egingo
mutill gaztien igesi,
bost zentimuan amasei bertso
naio dituanak erosi.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Errenteriko Enrike Elizetxea zanaren bilduman agertua.

(1) Mutillaren izen-abizenak. (2) Neskaren erria. (3) Mutillaren izen-abizenak. (4) Neskaren erria eta izen-abizenak. (5) Toki-izen bat. (6) Bertso-paperak: *diru puzca quendu dirasu*. (7) Mutillaren izena. (8) Bertso-paperak: *gueigo*. (9) Mutillaren izena. (10) Mutillaren izena. (11) Erri-izen bat. (12) Bertso-paperak: *gueygo*.

Orra amabost bertso mutillak-ri ordañak (1)

1 Kanta ditzagun oraiñ
zenbait bertso berri,
afizionatubentzat
entretengarri;
gure pasadizoa
esango det sarri.
iñor abertentzian
al baledi jarri.

2 Auzotik etorri zat
gizon bat etxera,
jaiean juateko
postrea artzera;
.....-k daukala (2)
nobioz aukera,
aber nik naiko dedan
erabakitzera.

3 Dama onen abisoak
allegatzen zaizkit,
ezagutzen det baño
ez det egin itzik;
onek enpeño asko
aplikatu dizkit,
ez du bereganako
txalkorraren galtzik.

4 Onek pentsatu zuan
ezkontza au berez,
neri berriz gogorik
ez datorkit nerez;
aspaldi asi zitzadan
dam au nere galdez,
onetan ezagun da
nai duen edo ez.

5-k urte asko (3)
pasa du munduan.
orain akordatu da
oso beranduan;
neska zar au ez dakit
zeñek naiko duan,
pixa egin dezake
aurten deskantsuan.

6 Ez dakit gustatuko
zatzuten iñori,
antzara dirudien
lepo luze ori;
liñotan ez jartzekoz
txori-izugarri,
bat konbeni zaio txit
dama gazte orri.

7-k oraindik (4)
ez du pretenditu,
nigatik kantak ere
jarri omen ditu;
orregatikan ez naiz
asko ofenditu,
orra oiek arentzat
kantatzen baditu.

- 8 Neska onek daduzka
onak korajeak,
gizonari ematen
nigan bidajeak;
oraindik guardatu nai
baditu trajeak,
nigatik libre dauzka
bere parajeak.
- 9 Aditu duenean
neregandik eza,
ez da noski ibilli
etxean kortesa.
Zeñek artu naiko du?
Ain da alrebesea,
begiak okerrak ta
korputza traketsa.
- 10 Onen perfeziyoak
dira egokiyak:
apenas belzduko du
udan eguzkiyak,
ortzen erdiak falta,
illeak zuriak,
musika jotzen dio
iñoiz ipurdiak.
- 11 Mutillak laja beti
neska zarra bazter,
onelakoarekin
ez gabiltzan oker;
ez bazera juaten
oietatik laster,
adituko dituzu
makiña bat puzker.

- 12 Ea, mutil gaztetxo
gai zauten guziyak,
aditu atentzios
nere notiziyak;
engañatzen baditu
oien maleziyak,
laster artuko dizu
boltsa perlesiyak.
- 13 Orain, nere mutillak,
egon animoso,
gazteetan tratatu
albait kurioso;
zar oiek maleziyan
sartu dira oso,
obe da gazteakiñ
bizi kariñoso.
- 14 Enpleatzen ez bada
gazte dala neska,
pasa bearko ditu
makiña bat kezka;
burutik zoraturik
nobiorik ezta,
orra azkenerako
neska zarren pesta.
- 15 Ditut amabost bertso
jarri probentziyan,
gazterik neska artu
bere dezentziyan;
gero ibilli gabe
penaz ausentziyan,
zarrak esaten badu:
“Sartu burruntziyan!”.

Bertso-papera, *San Sebastian: Imp. de La Semana Católica* moldiztegian argitara emana, eta Errenteriko Enrike Elizetxea zanaren bilduman agertua.

Zazpigarren bertsoan esaten danez, neskak ere bertsoak jarri omen dizkio mutillari.

Amalagarren bertsoa Pedro Migel Urruzuno zanak ipui batean ere agertzen da: *Andre ezkondua eta neska zarra, Ibatzabal* astekarian argitaratua, 1902 urtean. Bertso-sail au ezaguna zan, beraz, apaiz jaun orrentzat.

(1) Neskaren izena. (2) Neskaren izena. (3) Neskaren izena.
(4) Mutillaren izena.

(1890)

Bertso Berriak

- 1 Milla zortzireun larogei eta amargarren go urtia, (1)
nere ezkontza galdu zalako daukat pena bat fuertia.
Erantzun ziran: “Nik,, (2)
badizut borondatia”.
Fin zebiltzela uste nuben ta guziya tranpaz betia.

- 2 Ama Berjiñaz bost urte ziran eman zididala itza:
“Nai dezunian ezkon gaitezen, orla penatzen gabiltza”.
Begiya alai jartzen zendidan usokumiaren gisa,
baietz esan da gero damutu, aitzeki billa zabilta.

- 3 Izketan firme pasa genduben biyok onradamendian,
nik esan nizun laster nintzala kintetarako suertian:
“Erortzen banaiz jua biarko det (3)
soldadu urrengo urtian”.
Esan zirazun: “Ni egongo naiz andik etorri artian”.

- 6 Soldadubaren kondiziyubak (4)
 ikasi ditut dolorez,
 andregaiari bigaldu niyon
 karta-punta bat faborez:
 Al zan lenena kontestatzeko
 illen errespuesta faborez,
 “len emandako arrazoietan
 konforme ziñan edo ez”.
- 7 Errespuesta eman zenduben
 baietz, konforme ziñala,
 lastima zala damututzia
 asi ezkeron bein ala.
 Al zan lenuena kunplitutzera (5)
 saiatzeko egiñala,
 eta orduban biyok aitzenian
 esposatuko giñala.
- 8 Iru urtian supritu nuben
 amaika pazientziya,
 aspertu gabe ez nuben utzi
 soldadubaren jantziya.
 Nozepait biar da eman ziguten
 etxerako lizentziya,
 esan zendidan: “Zugana daukat
 nere kariño guziya”.
- 11 Txoil kantsatubak sartu giñaden
 kutxilloko ostatura,
 erregiña bat diruriyela
 eserita prestatua.
 Zure jarketa ikusi eta
 jende asko gustatua,
 an salduko zan ezpazan izan
 nerekin ajustatua.

12 Biyak alkarren aldeminian
ezkiñan bazkaltzen jarri,
begira zeguen jende arrotzak
eztezaiguten igarri.
Jateko ona aukeran eta
ez giñan beintzat egarri,
amoriozko begiratubak (6)
egin gendizkan alkarri.

13 Bazkariyaren kontubarekin
ekarri dute kazeta:
emakumiak amarna errial,
guria iruna pezeta.
Galesti dala eztezkiyoa
ala tripatik aseta,
bien partian pagatu nuben
mutil noblia naiz eta.

Bederatzi bertso auek bertso-paper batetik ar-
tuak ditugu.

Baiña paper ori puskatuta dago, eta beeko erdia
falta zaio. Ala, zenbait bertso galdua dauzka; 4, 5,
9, 10, 14 eta 15-garrena. Baita moldiztegiaren izena
ere, baldin bazuan beintzat.

Paper ori Azpeitiko Odria baserrian eskuratu
nuan.

(1) Bertso-paperak: *amar garren urtian*. (2) Mutillaren izena.
(3) Bertso-paperak: *Errostzenbanis juanbiarcodet*. (4) Bertso-pa-
perak: *Soldadubaren condisibuya*. (5) Bertso-paperak: *Alzan le-
nuena cunplitutze*. (6) Bertso-paperak: *amorisejos beguiratubat*.

(1893)

Bertso Berriak

- 1 Milla zortzireun larogei eta
amairugarren urtian,
disgusto txar bat suertatu da
or Pasaiako partian;
dama-galaiak bizi ziraden
alkarrentzako ustian,
jende guziya enteratzen da
kasua deklaratzian.
- 2 Galai gazte bi etorri zaizkit
bertso berriyak jartzeko,
gañera berriz aien esanak
ondo goguan artzeko;
.....-kua (1)
al baldin badet neurtzeko,
iya zer kaso gertatu zaion
..... uzteko. (2)
- 3-k bertso berriyak (3)
.....-i (4)
jende guziyak aitortuko du:
“Ez al zituen merezi?”.
Ezkondutzeko pretentsiyua
berak egiña lenbizi,
pruebak alaxen agertu dira,
segi zaiozu Judasi.

- 4 Bost illabetian tratatua da
oien arteko ezkontza,
seigarrenian gertatu zaio
izugarrizko mudantza;
erreta ere ezta pagatzen
modu ortako kriantza,
..... engañatzeko (5)
leku txarrian zabilta.
- 5 jai guzietan (6)
juaten zan bazkaltzera,
.....-k esaten zion: (7)
“Maitia, emen al zera?
Onez aurrera egunero
etorri bisitatzera!”
Aiñbesteraño len nai ziyona
oraiñ gogotik atera.
- 6-ra juañ giñaden (8)
setienbren zortziyan,
ni erakusten ibili ziñan
zere parentel guziyan;
itzak ederrak zituen bañon
biyotza zeukan tranpiyan,
falsuagorik ezta agertu
eguzkiyaren azpiyan.
- 7 Leku danetan kontatuko det,
neskatxa fiña etzera;
....., iñun etzazu (9)
prueba onikan atera;
esan dan gisan-n (10)
biyak ibilliyak gera,
azkenian eraman niñuzun
pontia erakustera.

- 8 Andik urrena Ama Birjiñez
dantzatu giñan musikan,
usai txarrikan etzan aditzen,
gustora eta pozikan;
jan biar niñuela ere
bazirudiyen kasikan,
oraiñ ez dizut iñon billatzen
denbora artako trazikan.
- 9 Biyaramunian bilbaina bat
biraldu ziran etxera:
“....., ementxen nator (11)
zerbait partizipatzera:
.....-k, pentsamentuan (12)
baldiñ konforme bazera,
.....-ra jua nait luke (13)
zurekin pasiatzera”.
- 10 Arratseko amaiketan partitu
giñan-n, (14)
malkua franko ixuritzen zan
ni utzitako garaian;
eskutik eldu, utzi nait ezik,
erotutzeko zoriyan,
esposatuak giñala ere
kasikan baziduriyan.
- 11 Andik bost egunera karta
tokatzen zan bezela:
nere presentziz parientiak
oso kontentu zirala:
“....., sinistra zazu (15)
asko maite zaitudala”.
Denbora aietan oraiñgo partez
bazen kariño leiala.

- 12-ek au da (16)
 au da publiko esana:
 bi seme eta aita artuko
 zituela beregana;
 mutilla ere formala zela
 orduan bazuten fama,
 alabak berriz egiñ zuela
 izugarrizko fortuna.
- 13 Traje garibaldina bat
 ekarri zion etxera,
 letra efe zuela
 antzera: (17)
 “Ori jantzita iganderako
 zu preparatuko zera,
 Lezo aldera juan biar degu
 zezenak ikusitzera”.
- 14 Lezo aldera zijuazela
-k esana: (18)
 “....., utzi biar dezu (19)
 txaluparekiko lana;
 munduan gaizki ezta izango
 nik artzen dedan gizona”.
 Orain uztia arritutzen naiz
 aĩnbeste maite zuena.
- 15 Dama oni komeni zan
 kausa zer zan galdetzia,
-k au esan zion: (20)
 “Emen esplika zaitia”.
 Errespuesta: “.....-ri zertan (21)
 itxi diyozu atia?”.
 Modu ortantxen suertatu zan
 oriyen errematia.

- 16 Pesalonbriak izango ditu
 tristiak, (22)
 orra zer gauza ekarri duen
 motibo gabe uztiak;
 andregai-faltik eztu izango
 olako mutil gaztiak,
 oikiñ kontentu ez bazerade
 jarriko dizkizut bestiak.
- 17 Bertso berriyen errematia
 azkenekua auxe da:
, kulpak izanta (23)
 zerbait neurtua zera;
 zure burua esaminatu,
 kontuak ongi atera,
 itxuak ere jan biar du ta
 askok erosi papera.
- 18 Oso fiña zen (24)
 konduta, (25)
 orrelakua ezta pagatzen
 lepua bertan kenduta.
 Kontzientziya libre al dezu
 besterekin ezkonduta?
 Esan diate bizi zerala
 mutill zarran bat artuta.

Bertso-papera, *Imp. de B. Valverde - Irún* moldiztegian argitaratua, eta noren eskutik jaso nuan apuntatu gabea.

Zenbait lerro neurrian motz daude. Bertsolariak orrela jarri zituan edo moldiztegiaren utsegitea dan ez dakigu.

Amazazpi-garren bertsoak dionez, itxuren bat ibiliko zan bertso-paper auek saltzen.

(1) Neskaren izena eta erria. (2) Mutillaren izena. (3) Mutillaren izena. (4) Neskaren izen-abizenak. (5) Mutillaren izena. (6) Mutillaren izena. (7) Neskaren izena. (8) Erri-izen bat. (9) Neskaren izena. (10) Erri-izen bat. (11) Mutillaren izena. (12) Neskaren izena. (13) Toki-izen bat. (14) Erri-izen bat. Ortaz gaiñera, neurrian oso motz. (15) Mutillaren izena. (16) Neskaren aitaren izen-abizenak. (17) Mutillaren izena. (18) Neskaren izena. (19) Mutillaren izena. (20) Mutillaren izena. (21) Mutil baten izena. (22) Neskaren izena. (23) Neskaren izena. (24) Bertso-lerroaren erdia falta da emen. (25) Neskaren izena.

(1898)

Bertso Berriak

Ondo bizi ta ario

- 1 Zortzireun da larogei urte
emezortzirekiñ milla,
uste ez arren danak baguaz
beste mundubaren billa;
zeru ta lurren Jabe maitia,
guztion Artzai umilla,
komeni bada argi zaidazu
nere talentu debilla.

- 2 Kasik iñondik anparo gabe,
Zeruko Aita maitia,
laguntza baten eske zugana
nator errukiz betia;
zu gabetandik ez det balio
bakardadian astia,
zergatik detan talentu gutxi
eta gañera gaztia.

- 3 Suertatu da alaba bati
amak ezkontza galtzia,
guraso batek bere umia
au da desanparatzia;
egun artatik pentsatu zuben
munduko gauzak uztia,
bere burubaz ernegatuta
juan da emendik tristia.

4 Neskatxa ori entregatu zan
Santa Klararen eleizan,
mutil gaixua despedituzten
eroturik ibilli zan;
oraiñ oyian arkitutzen da
ildako korputzan gisan,
au monja sartu zan egunetik
ez du osasunik izan.

5 Zenbait gurasok umiarentzat
errukirikan izan ez,
mutil tristia oieratu zan
galduba zala esanez;
geroztik ama antxen daduka
oian aurrian negarrez,
garai txarrian damutu zaio,
nik aditutzen dedanez.

6 Ezkontza ori galeraztia
ez da ondo gurasuak,
ordena ori ez du ematen
zeruban dagon Maisuak;
negarrez urtzen utzi zituben
bere maite ta auzuak,
amaika pena eramango du
mundu ontatik gaizuak.

7 Despedidako neskatxa arrek
zion erregalatuba:
“Nai nuke nitzaz akordatzia,
artzazu erretratuba”.
Oian aurrian jarria zuben
iltze batian sartuba,
dударik gabe bere ama zan
ura andikan artuba.

- 8 Azaruaren emezortzian
biak seinaladamente
esku emanda partitu ziran
berrogei leguaz aparte;
mundu onetan Jesus serbitzen
zuzen segitzen badute,
Josefateko zelaian berriz
alkar ikusiko dute.
- 9 “Adios, maite, neregatikan
amak desanparatuba,
naizen lekuban ez naiz egongo
zure animaz aztuba;
mundu onetan ez da kunplitu
desio gendun gustuba,
baña bestian agertuko da
gure anima justuba”.
- 10 Familiatik apartatzeko
aren barrenge larria!
Kontsideratzen jartzen bagera
zer gauza negargarria!
Bi aizpa txiki amonarekin
zeuzkan negarrez jarria,
aren etxeko despeida ura
gustiz zan penagarria.
- 11 “Nere amona biotzekua
edukiko det goguan,
uraxen beste laguntzallerik
nere etxetik ez nuan;
dudarik gabe urte askuan
ez da biziko munduan,
gure Jainkuak salba dezala
eriotzako orduan”.

12 Amaika pena sufritutzeko
mundu ontara zan jaio,
aren biotza pasatuba da
zenbait pena ta erio;
orain maitiaz gogoratuta
suspiriua dario,
eta azkenik esaten digu:
“Ondo bizi ta ario”.

Bertso-papera, “*Imp. de B. Valverde - Irún*” moldiztegian argitara emana, eta Oxford-eko *Bodleyan Librery* liburutegian arkitua.

Eskuz erantsitako itz auek ditu bertso-paperonek: “*De Vilinch. Mayo 1899*”. Baiña bertso auek Bilintxenak izatea ezin ditekena da, leendabiziko bertsoan 1898 urtea ematen baita, eta Bilintx 1876-an itzali baitzan.

(1899)

Bertso Berriak

- 1 Milla zortzireun larogei eta
emeretzigarren urtian,
dama batekin adiskidetu
nitzan neretzat kaltian;
bertso berriyak jartzera nua
euskera eder batian,
denbora pasa kanta ditzagun
Naparruako partian.

- 2 Apellidua daukat
eta graziya,(1)
Naparruako naturala naiz,
.....-n jaio ta aziya;(2)
.....-ko-rekin(3)
nuen ezkontza asiya,
ori dan arte ezta paltako
gezurra ta maleziya,

- 3 Ogei ta iru urte zituban,
etzeukan sasoi makala,
gaxuak zerbait igarri ziran
bein batez beida neguala;
mandatariya biraldu ziran
ondorian beriala,
mundu onetan legerik balitz
nerekiñ nai lukiala.

- 4 Orren izenatxo da,
..... lonbria,(4)
ogei eta bi ontzako dauzka,
eztago oso pobria;
munduban askok duben bezela
artu nai nuben andria,
gero aldrebes ibiltzekotan
oraiñ uztia obia.
- 5 Bi galai gazte deitu zituban
Ama Birjiña arratseko,
bazeukatela libertadia
aien etxian sartzeko;
diru piska bat eman ziyoten
txokolatia artzeko,
au zan lenengo fundaziyua
gure ezkontza galtzeko.
- 6 Begiyak zorrotz zedukazkiten,
etzegon jendia lotan,
orduzko duda bai ote zuten
jartzen naiz errezelotan;
anaiak formal itzegin zuben,
ez daukat kejarik ortan,
urte t'erdian itxoiteko
arrekiñ ezkontzekotan.
- 7 Neskatxa gazte polita dago,
paregabia platikan,
nik esan biar baldin banuke
ez du ezeren paltikan;
urte t'erdiko plazua ori
luzia da gogotikan,
bereala ere konforme ziran
bi ontza galtzeagatikan.

- 8 Sekula orlako komeriyarik
jendiak ez du ikusi,
zedorrek ere ondo dakizu
egin dezula itxusi;
len mutillari despeida eman da
gero berarekin asi,
uste al dezu bertso berriyak
ez dituzula merezi?
- 9 San arratsaldian (5)
dantzatu ziñaden errez,
zuri begira leio batetik
lasai egon nintzan farrez;
beti nobiyoz inguratuba
naiz pobre ta naiz aberets,
garai arretan bi bazinduzen,
akaso laister baterez.
- 10 Amaika bider itzegin ziran
kariño gabe seriyo,
nik zenbat kalte izan ote det
dama ori dala meriyo?
Lenago baju bizi bagiñan
ez gaitu asko gora iyo,
kortsia ere artuko zuban
ekarri izan baniyo.
- 11 Aita ta ama ezkontza ortaz
zeuden borondate osuan,
ni artu eta ikustiatik
beren alaba auzuan;
gu ere oso konformatubak
falta genduben kasuan,
anaiak berriz al zan guziya
atzeratzia nai zuan.

- 12 Mundu guziyak jakin dezala
klaro esango det orra:
modu orretan mudatzen dana
ez da pertsona jatorra;
zuk neri egin dirazuna da
oso traiziyo gogorra,
txiki samarra bazera ere
altuban dezu tontorra.
- 13 Egun batian itzegin zuben
orrek ni nintzan tokiyan,
goizetan iñoiz koñatak nola
eduki duben plakiyan;
zedorrek esan ez bazenduben
ori iñork etzekiyan,
ezkontziatik ibilli ziñan
kafiaren aitzekiyan.
- 14 Nigatik libre gelditzen zera,
bazijuazke ferira,
festa txarrian ez degu jarri
jendia guri begira;
bertso oiekin ematen dizut
azkeneko despedira,
beste oinbeste pronto daukazkit
oriyek eskas badira.

Bertso-papera, *Imp. de E. López* moldiztegian argitara emana, Usurbilko baserri batean jaso.

(1) Mutillaren izen-abizenak. (2) Mutillaren jaioterria. (3) Neskaren jaiotetxea eta izena. (4) Neskaren izena eta abizena. (5) Erriko festak egiten ziran santuaren izena.

Bertso Berriak

- 1
da nere graziya,
.....-n bertan (1)
jaio ta aziya;
andregaiak egin dit
partida itsusiya,
esplikatu biar det
asunto guziya.
- 2
.....-ko alaba da, (2)
ni engañatu arte
larri ibilli da;
besteren kulpa eginda
bera ere bat bada,
kariñuaren faltan
ez nau gaizki laja.
- 3 Zeukala antza eman niyon
zerbait borondate,
pregunta egin niyon:
“Ni al nazu maite?”.
Baietz erantzun ziran
izugarri fuerte:
“Nik etzaitut utziko
bizi naizen arte”.

- 4 Zure borondatia
zenbateraño zan,
ez banuen probatu
ez nezaken esan;
mingaña legun baña
biyotza tranpetan,
modu ortan gauz onik
ez liteke izan.
- 5 Zedorri esan nizun
kararikan kara:
“Geroko endredorik
eztezagun para;
izbire gutxirekiñ
iñondik al bada,
zure naitasun ori
orla baldin bada”.
- 6 Errespuesta eman ziran
beriala neri:
“Gauza ontan okerrik
ez liteke etorri;
parte ematera nua
parientiari,
gustatuko zaiela
iruditzen neri”.
- 7 Itz oiek esan eta
jarri giñanian,
biyok gelditu giñan
deskantsu onian;
errespuesta ekartzeko
biyaramonian,
baietz erantzun ziran
etorri zanian.

- 8 Neri baietz esana
etzegon penetan:
“Asi biar degula
erromeriyetan;
allegatu biegu
Donostiyan bertan,
korrida ikustera
Ama Berjiñetan”.
- 9 Ez nazu engañatuko
modu ortan berriz,
erromeri politik
egin du bost aldiz;
biyotza mudantia
izandu du agitz,
ez nuen penarikan
berak esan balit.
- 10 Biyok tratatu degu
iya urte betian,
batzuek kejatutzen
asi bitartian;
Lazaroren aurreko
larunbat-gabian, (3)
izebak despedida
neri eman ziran.
- 11 Beriala artu niyon
pregunta fijua:
“Ni despatxatutzeko
zer det motibua?”.
Gaztiegiya zala
orra petrestua,
sesiyua jartzia
eztu lenengua.

12 , (4)
zaude isilikan,
berriz etzazula esan
eztan gauzarikan;
neri etzait etorri
zaunkaz txakurrikan,
ez eta ontzik ere
ojuka atzetikan.

13 Kofre eta releju
prenda Donostiyan,
.....-ek esan du (5)
au-n; (6)
.....-k kreditua (7)
badu aspaldiyan:
beti eskuak garbi
dabilen tokiyan.

14 Nere erreziyuaz
kejatzen zerade,
txiki arduak ondo
apuntian daude.
Eta zuri zer dizu
dobre eranta ere?
Nere obligaziyuak
pagatuak daude.

15 Iñoiz egiten bazera
senarraren jabe,
apenas izango dan
kontu artu gabe;
..... ezta egongo (8)
andregairik gabe,
zu baño ederraguak
ogei biarta're.

- 16 Kontsejatzalle ona
zenduen len ere,
kolejiyo onian
ikasiya zaude;
nobiyo aberatsa nai
al balitz ala ere,
zu zer prenda zeraden
dakigula gaude.
- 17 Jakiña dago zer dan
karrera neria:
ferrokarrilletako
trabajadoria;
zu berriz orgullosa
parerik gabia,
nere gisa interes
gutxiren jabia.
- 18 Pasarizua zer dan
orra esplikatu,
zertarako alferrik
mingaña dantzatu? (9)
Gezurak esan eta
egiyak ukatu,
nere erregalirik
ez dit entregatu.
- 19 Gaizki itz egitiak
desondra aundi bat du,
nik ere baneukake
orrenbeste modu;
berriz aurrerapenik
iñork artzen badu,
.....-k zer itzegiñ (10)
disponituko du.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Errenteriko Enrike Elizetxea zanaren bilduman azaldua.

Leenengo bertsoa antza aundia du Aiako Muatzko eriotzari buruzko saillaren leenengo bertsoarekin. Ikus: *Auspoa* 82, 134 orrialdean. Bertso orrek onela dio;

Jose Tejeria da
au nere grazia,
Gipuzkoako Aian
jaio ta azia;
tiroz aita ill nuan,
orra desgrazia,
publikatzera nua
asunto guzia.

Bi jarrialdi auek aita beraren umeak izango dira, beraz? Baditeke, baiña segurutzat ezin eman.

(1) Mutillaren izen-abizenak eta erria. (2) Neskaren izen-abizenak eta erria. (3) Lazaro-eguna Erramu-eguneko aurreko igandea izaten zan. (4) Neskaren izen-abizenak. (5) Neskaren izena. (6) Mutillaren erria. (7) Mutillaren baserria. (8) Mutillaren baserria. (9) Bertso-paperak: *mingaña dantzazu*. (10) Mutillaren baserria.

Bertso Berriak

- 1-n zaigu (1)
txiripa bat pasa,
zer gertatzen dan ere
zeñek eman traza?
Izena det
apelidua, (2)
neskatxa batek egiñ dit
aziyo eskasa.

- 2 Enredo asko izan det,
probetxu txikiya,
bestiak egiñgo du
nere aitzakiya;
neskatxa eder bat degu
....., (3)
biyok egiñ gentzakian
ezkontza egokiya.

- 3 Karta franko neregana
etorriyak badira,
ezkontza zerratzeko
jarri dit segira:
merendatzera juatea
sagardotegira;
arratsalde bat pasa det
utsari begira.

- 4 Ni sagardotegira
allegatu nintzan,
neskatxa ori nigana
presentatu etzan;
orrek jarriko luke
deabruba dantzan,
mutilla balijuake
orren esperantzan.
- 5 Kartako itzari nago
erreparatuba,
nerekiñ zeguela
enamoratuba;
esposatzeko al zaude
oso berotuba,
bakardadeko bizitzaz
inkomodatuba?
- 6 Pertsona fiñarekiñ
gu metitu giñan,
ez jakiñ izan banu
lenago zer ziñan;
nitzaz orretaraño
gustatzen baziñan,
petardo eman gabe
etorriko ziñan.
- 7 Lenbiziko jornada
alferrik zanian,
..... etzeguan (4)
deskantsu onian;
neretzat enredua
bada geienian,
beste karta etorri zat
urrengo egunian.

- 8 Kartak nora juntatu
zeukan aditzera:
taberna publikua
dagoen etxera,
jayian juateko
meriendatzera;
ni juan nitzan baña zu
azaldu etzera.
- 9 Kartaren barrenian
deklaratzen zian
sartua nenguela
aren biotzian;
ez lo ta ez jan ta edan
ni akordatzian,
itz oiek egiyazkuak
izango etzian.
- 10 Neskatzka orrek jarri du
kostunbre berriya,
oso fiña etzerala
nago igarriya;
ni juan nitzan baño ori
ez da etorriya,
itxuturik zabiltzan
engañagarriya.
- 11 Kartak etorri zaizkit
nere etxeraño,
ezkontza zerratzeko
txit asko enpeño;
pauso alferrak eta
franko desengaño,
afana obeto dezu
kariñua baño.

- 12 Irugarren karta ere
bialduba zuan,
len gaizki ateria
nintzan errenkuran;
irugarren orretan
ez naitzaio juan,
ez dakit merienda
zer egiña duan.
- 13 Aidoso juaten nitzan
etxetik ertenda,
orrelako denboretan
aidia izaten da;
maleziyaren faltarik
ez daukazun prenda,
alferrik galdu dituzu
iru merienda.
- 14 Gastu aundiak egiña
zaude nere ustez,
iñork obligatu gabe,
zere borondatez;
jan nai nukian baña
alrebes suertez,
norbait baliatu da
.....-en partez. (5)
- 15 Aukera aundiyan bazaude
zuretzako obe,
mutillak engañatzeko
anbat zaude trebe;
..... egiñgo da (6)
nobiyaaren jabe,
len ere ez da egondu
pretentsiyo gabe.

16 Nobiya ederrak badaude
nai degun orduban,
faltatuko ez dutenak
beren agiñduban.
Bakarrikan ziñala
uste al zenduban?
Zu baño fiñaguak
badira munduban.

17 Nola portatu zaidan
neskatx eder ori,
aditzera eman nai
jende guztiari;
laburtasun aundiak
egiñ dizkit neri,
gai dagoena nitzaz
eskarmenta bedi.

18-n bertsuak (7)
aspaldiko partez,
gaztiak ikasita
dibertitu bitez;
ondo merezitubak
ditu nere ustez,
agur,, (8)
ondo bizi zaitez.

Bertso-papera, *Donostiyan: V. Iraola-ren moldiz-
kidan* argitaratua eta Errenteriko Enrike Elizetxea
zanaren bilduman azaldua.

(1) Erri-izen bat. (2) Mutillaren izen-abizenak. (3) Neskaren
izen-abizenak. (4) Mutillaren izena. (5) Mutillaren izena. (6) Muti-
llaren izena. (7) Erri-izen bat. (8) Neskaren izen-abizenak.

Bertso Berriyak

.....-k (1)

bere andregaiari jarriak

- 1 Askok añeko talenturikan
ez izan arren aukeran,
bertso batzubak ipiñitzera
abiyatu naiz paperan;
eztakiyenak jakin dezala
gezurra edo egiya ote dan,
lanteri oni ekin diyot nik
zergatik arrazoi deran.

- 2 Ustez neskatxa fiña batekin
asiya nitzan tratuban,
ezta nigandik apartekua,
bizitzen dana gertuban;
desiatutzen negon jartzeko
orlako baten karguban,
deskalabruak badira beti
batek nai eztun orduban.

- 3 Gonadunetan bai uste arren
gutxi dirade fiñak e,
oiek mendian artu ezker
gaizki biziko giñake;
biziyatuba gertatzen bada
arek baditu bi neke,
obiagorik ez izatekoz
ezkongai egon niteke.

- 4 Orren izena (2)
bataioz dauka emana,
..... aldeko malkar batian (3)
basarrin bizitzen dana;
mutill gaztiak engañatzeko
mingaiñ leguna dubana,
pake santuban bizituzeko
martxa ederra darama.
- 5 Esposatuko giñala biyok
zertako ziran agindu?
Kontsideratu dezala ondo,
aziyo txarra egin du.
Nik ezertan ere ez tet utsegin,
kulpa dana berekin du,
enuban bate penik artuko
gaizki ikusi banindu.
- 6 Iñor orrela despreziatzen
asi da ori gazterik,
aurretik asko enun pentsatzen
modu orretan uzterik;
despeira eman ziran ezkerro
ezta nerekin gustorik,
agindu ziran baietzarekin
etzan fiyatu besterik.
- 7 Jakin banuban nik zebillela
orren naitasun otzian,
nere ankikan etzan sartuko
geiago bere etxian;
juan dan abendun ogei ta bostan
despeira eman zian,
odol guziyak sututzen zaizkit
akordatutzen jartzian.

- 8 Maleziyaren faltik etzaukan
neska diabruz josiyak,
orrelakorik eztu egiten
errespetuan aziyak;
esker txarrakin pagatu gaitu
eman biarda graziyak,
aizian gisa eraman dizkit
neketan irabaziyak.
- 9 “Pasiatzera guazen gu biyok
–esaten niyon askotan–.
Beti onela eduki biar
al nazu neri kezketan?”.
Ezezku ori berekin zeukan
jartzen bagiñan izketan,
emakumiak seta txarra du
baldin badago kasketan.
- 10 Kariño fiña aparte zigun
beste askok dun bezela,
tonto xamarrak ezagutzeko
ai zer nolako azala!
Nik zer esaten deraden ondo
goguan artu dezala,
gustoko batek aindu baliyo
badakit juango zala.
- 11 Ai, nere biyotz gizaraxua
dago zerbaiten eskian,
zeregatikan aziyo txarrak
akordatutzen zaizkian;
egin dubenak antzemango'io
ondo dan edo gaizki'an,
galtza berriyak egiteko zer
propinak eman dizkian!

12 Goizero eraman izandu diyot
bire erdira zestera,
naitasunakin adios esanda
bueltatzen nitzan osterara;
orduan asko nai zian baña
orain mudantzak bestera,
ondo egiten alper gaiztuan
orri ibilli ezkerara.

13 Geroko kezkiak eduki gabe
jartzen det abertentziya:
errespetatu izan det beti
neskaren inozentziya;
desio txarrik eduki banu
banuban komenentziya,
bañan garbiro nai det eduki
nik nere kontzientziya.

14 Milla alditan esan izan dit:
“Nik zuri zaitut maitena”,
ta arrezkero pauso bakoitzan
gogoratutzen zaitena;
usteko zuban libre zegola
egin ezkerero nai dana,
erozin moduz ematekua
ezta izaten baimena.

15 Ixilik euki biar ziranak
orra ederki aiazi,
suerte ona izandu degu
baldin bagera beñ asi,
orrek neretzat zedukalako
Judasek ainbat fiñezi;
da konforme naiz okerragorik
eztiranian eiñazi.

- 16 Itzak ematen asi giñala
pasa da urte betia,
orain orrentzat oso txarra naiz,
lenago niñun maitia; (4)
ezagutuba dadukat ondo
beraren borondatia,
osaba, illoba eta izeba,
danak igualtsubak dia.
- 17 Bere osaba mutill zar batek
ezer ezin zun sufritu,
neri etxetik bialdutzeko
asmuakin zan abitu;
desafiyoka asi zitzairan,
iñola ezin zan gelditu,
bestela zer dan eztakit bañan
ero aldiyak baditu.
- 18 Etxe guziyan pasatzen zana
taberna junda kontatzen,
okasiyua jartzia beste
gauzikan etzun pentsatzen;
neska-mutillakatikan gero
gezur aundiyak asmatzen,
buruban jartzen zaizkan maniyak
eztute gutxi kausatzen.
- 19 Gezur ta saltsaz betiak dauzka
gutxinez berregun toki,
segretorikan eziñ dulako
ixilik ondo eduki;
ori dalako etxian gerrak
izandu dira galanki,
obia luke bere buruba
gobernatutzen baleki.

20 Neska zarrak e kulpak baditu
anaiak bañan geiago,
orretzek ere pakia baño
okasiyua naiago;
bere anima diabrubantzat
utzi biar dula nago,
bestekin ezpa portatzen beintzat
nerekin bañan fiñago.

21 Neska zar orrek egun batian
ekin dit eruan gisan,
“urte bateko mantenuk libre”
neri esaten asi zan,
–emandako itza kunplituko det,
ortan bildurrik ez izan–,
bere etxeko illobarekin
ezkontzen baldin banitzan.

22 Beste gaitzarik eztiyet egin
lagundutzia baizikan,
modu orretan portatzen danak
batere eztu lotsikan;
itzez galanki agindu bañan
geldituba naiz utsikan,
orretarako obia zuban
atera ezpalit itzikan.

23 Nola suertez erori nitzan
juateko soldaduzkara,
pentsatu zuten galazitzia,
ori're oien kulpa da;
komententzi obiagua
gerora ziraten para:
Frantzi aldera desertatzeko,
neska juango zala ara.

- 24 Konformaturik geratu giñan
itz oiek azetatuta,
abitu nitzan lanian biar
nituban gauzak artuta;
kasikan ere zer egiten nun
ezin nun azertatu ta,
illabetia or pasatu det
emendik desertatuta.
- 25 Neskaren faltik etzala izango
egoteko seguruba,
oso paraje bikaña zala
irabazteko diruba;
oriyek berak egin ziraten
aruntz juateko moduba,
arrasku txarra eztet ibilli
galtzeko nere buruba.
- 26 Desiatubak zaudenak nunbait
ni bialtzeko aparte,
berriz onera ez etortzeko
moduban gelditu arte;
ai, orratikan kontzientzizko
garga aundiya daukate,
Judas gaiztuak Jesus bezela
salduta ibilli naute.
- 27 Eguna jun da eguna etorri
dama ori etzan ageri,
ango denborak oso luziak
pasa zitzazkian neri;
bitarte ortan ibilli nuban
pentsamentuba ugari,
nere burubai arrika ematen
enitzan alperrik ari.

- 28 Despeira kartan bialdu ziran
eta ez asarretzeko,
orain gogorik etzaukala
neri gizontzat artzeko;
eta gañera bere etxian
ankik geiago ez sartzeko,
motiborikan asko izan det
orri bertsuak jartzeko.
- 29 Ostera bueltan eman zizkiran
eindako erregaliyak,
berriz biartzen baldin banaiz e
gordeta dauzkat jarriyak;
orra azkenian zer ekarri dun
orren naitasun urriyak,
ederraguak erosiko'izka
urrengo galai berriyak.
- 30 Ogei ta amargarren bertsuarekin
orra nere despeira,
zer esan geio badauzkat baño
oraingorako aski da;
aber gezurrik ote daguan
paper ontara begira,
egokiyago jarriko ditut
bueltak etortzen badira.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Errenteriko Enrike Elizetxea zanaren bilduman agertua.

(1) Mutillaren izen-abizenak. (2) Neskaren izen-abizenak. (3) Neskaren erria. (4) Bertso-paperak: *lengo*.

Bertso Berriak

- 1 Desio dedan bertso berriak
al banitzake kantatu,
gure artian zer izandu dan
biar dizuet kontatu;
ona zalako ustian nuen
dama gazte bat tentatu,
onen gañian ezin egon da (1)
ori zeñek asentatu?

- 2 Aurrenetikan azkeneraño
neskatxa orren berriyak
naiago nuke baldin baneuzka
paper onetan jarriyak;
orra zer lanak ekartzen ditun
zure naitasun urriyak,
gauza onikan sekulan eztu
kristau engañarriyak.

- 3-en jaio ta azi nitzan
..... det izena, (2)
Donostiyako erri noblian
orain bizitzen naizena;
nobiarena lendabizitik
iñola al nuben maizena,
baña geroztik antzeman niyon
etzala ollanda zuzena.

- 4 Nungua dan neskatxa esango det,
egon zaitezte aditzen:
..... -kua bere izatez, (3)
Donostiyan da arkitzen;
mutil gaztiak diran lekura
aguro daki mugitzen,
denbora asko ez du pasako
etxe aldia garbitzen.
- 5 Urte bete da dama orrekin
tratatzen nitzala asi,
arrezkeroko pasadizua
biar det adierazi;
aundiyak jarriyatikan zu
danak dituzu merezi,
aditu arren ikaratuta
etzera juango igesi.
- 6 Pozak zoratzen jarriya nago
kontu oek zabaltzeko,
notizi onak izango dira
neskatx orri bialtzeko;
izketan asi ta esan ziran
nola zeguen saltzeko,
zerazienda artuko nuen
nere buruba galtzeko!
- 7 Ezaguerak alkarri eman
da jarri giñan orduban,
andik aurrera igande ta aste
pasiatutzen genduban;
egun aietan enbusteriya
franko egiten zenduban,
esanaz ni besterikan maite
etzenduela munduban.

8 Lendabiziko-ra biyok (4)
festak zelebratutzero,
egun pare bat dibertitubaz
erri ortan pasatzero;
nere nobiya, algara egiñaz
gustora ibili zera,
an ogei duro gastatu eta
etorri giñan etxera.

9 Fintasunian zegon bezela
asten zitzaidan esanez:
“Nere biyotza jarriya dago
zuretzako naitasunez”.
Errespuesta eman niyoen
orri arrazoi zuzenez:
“Obe zenduke egiaz esan
len dadukazun edo ez”.

10 “Esposatzeko asmuan nola
geran gu biyok asiyak,
ai,, esango'izkitzut (5)
garbi nere notiziyak:
etzaizkit iñoiz etorri izan
oso mutill itxusiyak,
baña zugatik utziko ditut
len izandako guziyak”.

11 Berak baimena eman ziraden
izateko alkarrekin,
leku onian asi nintzaden
fiyaturikan zurekin;
gezurra eta naspilla beti
bada orlakuarekin,
arrai ederra egun batian
juntatu ziñan nerekin.

12 Zenbait soseguz bizitzen dira
etxe onera sartzian,
emakumiak itzak ederrak
tamaña ontan jartzian;
neskatxa orren amak esan dit
belarriyaren ertzian:
“Lasai biziko zerala uste det
nere alaba artzian”.

13 Donosti ontan gogua egin
zaio denda ikusteko,
nere nobiyak gustatzen zaion
soñeko bat erosteko;
aukera egin nuben orduban
ori etzegon uzteko,
oi ta amar duro pagatu niyon
nai dubenian jazteko.

14 Esposatzeko aste orretan
mudantzak zituben asi,
zer tranpiya egin diran neri
biar det adierazi;
kale batian zeñekin zegon
lenguan nuben ikusi:
pintore bat zan biboteduna
bere gabana ta guzi.

15 Despatxu ori artu ta laister
geldituba da nigandik,
esker gaiztua besterik ez det
izan neskatx orregandik;
orain protxurik ez daukala
daki-gandik, (6)
iñork erosi nai baldin badu
saltzeko dago oraindik.

16 Zu bezelako neskatxak dira
okasiyua sortzeko,
fintasunikan ez daukazu
gure etxian sartzeko;
zori gaiztuan abitu nintzan
ori andretzat artzeko,
aukerakua zaudela uste det
sorgiñen maistra jartzeko.

17 Soñoko eder bat aurrena ta
gero medalla berriya,
doktore asko bere katetik
zintzilik dauka jarriya;
dama gaztia, lenbailen utzi
bizi-modu galgarriya,
edo bestela ikusi biar
dezu istillu gorriya.

18 Galerazitzen or dabil baña
nik nai nituzke zabaldu,
kulpa duenak oek jartzia
orain merezi ez al du?
Nere nobiya, lan au eginda
etzazu konduetik galdu,
gusto badezu errespuestak
nai dezunian bialdu.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Altzo-
azpi-ko Inazio Zabalaren eskutik jaso.

Bertso-papera, beste argitalpen bat, moldiztegi-
izenik gabea au ere, noren eskutik jaso nuan
apuntatu ez nuana.

Bertso-papera, *Tip. Elustondo - Zarauz* moldizte-
gian argitara emana, eta noren eskutik jaso nuan
apuntatu gabea.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Orioko
Gregoria Ibargoien zanaren eskutik jaso.

Aita Jose Antonio Donostia zanaren artxiboan
ere arkitu degu bertso-sail au, bertso-paper batean.

Aginagako Pello Saikola bertsolaria zanak ere
bialdu zizkidan bertso auek, baiña eskuz idatzita.

Gernikako Julio Bareño jauna zanak ere bialdu
zizkidan, Gernika aldeko norbaiten aotik jasota.

Ikusten danez, oso ezaguna izan zan garai bate-
an bertso-sail au.

(1) Bearbada, *oñen gañian ezin egon da* bearko luke emen.
(2) Mutillaren erria eta izena. (3) Neskaren erria. (4) Mutillaren
erria. (5) Mutillaren izena. (6) Mutillaren izena.

Bertso Berriak

.....-k jarriak (1)

- 1 Bertso berriyak jartzera nua
asunto egoki bati,
pobre tartera deskalabrua
nundinai badator beti;
nobiyaekin nola nabillen
jendia frankok badaki,
urte betian tratatu eta
engañatu nau ederki.

- 2 Urte betian ibilli gera
aingeru biren moduan,
mudantza ori izango zanik
asko pentsatzen ez nuan;
pobria utzita aberatsakin
oraiñ asi da tratuan,
zer esanikan ez da faltako
ori dabillen lekuan.

- 3 Martxa gaiztua asiya dauka,
iñork eztiyo kenduko,
bost sentiduak sano dauzkanak
ori ez al du artuko;
lau kuarto t'erdi baldin badira
sei biar ditu lujuko,
saiatu arren pobrerik ezta
orrekiñ aberastuko.

4 Neri despeida emanagatik
etzitzaizula ardura,
uste zenduan indianua
seguratua zendula;
kontari zeunden fortuna aundi bat
etorri zala eskura,
desanparuan oraiñ or zabiltz
ardi galduen modura. (2)

5 Fortuna orren esperantzetan
eman zidazun ezetza,
etzan alferrik Lezora juanda
egiñ zenduen promesa;
esan zenidan: "Zuretzat daukat
izugarrizko nobleza,
zeiñ anketatik kojeatze'zun
etzaude igartzen erreza.

6 Sei illabetez luzitu dezu
gala aundiyak jantzita,
jende guziya arritzeraño
zure planta ikusita;
zerbait azaldu biar zuala
aspaldi geunden etsita,
indianuak aldegin dizu
maleta bertan utzita.

7 Indianuak eman zizkitzun
eraztuna ta pultsera,
lepoko orratza ta abanikua,
baño ez utsaren trukera;
apaiñduriyan jarriya zeunden
aundimendiyen legera,
bide ortatik ekarri dezu
kredituaren galera.

- 8 Erregaliyak kalte eginda
oraiñ or zaude etxian,
garai bateko arrotasunak
ondo aplakatu zian;
izugarrizko mogimentuak
daduzkatzu gorputzian,
ez apuratu: aztuko dira
frantzes bañuak artzian.
- 9 Alde batera ola ikusita
penatutzen naiz gogotik,
bide oietan erortzen danak
pagatutzen du larrutik;
kontsideratu pobriarentzat
zer gauza dauen lujotik,
propina ederra artuba zaude
indiyanuen eskutik.
- 10 Kulparik gabe zu ziñan neri
despreziyua egiña,
orain zedorri etorri zaizu
eskarmentatzeko diña;
Frantzi aldera bazuazela
sendatziagatik miña,
pake ederra legoke emen
an geldituko baziña.
- 11 Ama Berjiña Pillarekua,
zu zaitut bitartekotzat,
zer eskapada egiña nagon
burutik ezin irten zat;
orañtxen dala urte bete bat
au artu banu andretzat,
uste gabeko loteri ona
seguro zeguen neretzat.

12 Neskatxa orren pasadizua
orra nik adierazi;
eskarmentutzat ona deritzat,
gusto dubenak ikasi;
izan zaitezte leialaguak,
martxa gaiztuari utzi,
lujuagatik animak eztu
kastigatzerik merezi.

Bertso-papera, *Rentería: Tip. Vda. Valverde* mol-
diztegian argitara emana eta Errenteriko Enrike Eli-
zetxea zanaren bilduman agertua.

Bertso-papera, *Imp. y Lib. de F. Ferreirós, Aveni-
da*, Errenteriko Enrike Elizetxea zanaren bilduman
azaldua.

* * *

Bertso auk badute antza Oiartzungo Krisostomo Iturain
bertsolaria zanak jarritako beste bertso batzuekin: *Auspoa*, 116,
66 orrialdean. Sail ontako leenengo bertsoa eta Krisostomoren
bigarrena ia berdiñak dira. Sail ontako 6/7-8 lerroak: indianuak
aldegin dizu / maleta bertan utzita. Eta Krisostomoren beste bi
lerro: Igesi igual egingo dizu / maleta zuri utzita.

Krisostomorenak ote dira, beraz, bertso auk? Ez degu uste,
Oiartzungo bertsolari ori baiño zarragoak dira eta.

Krisostomoren suia zan Uztapide bertsolaria zanari galdetu
eta onelatsu erantzun zigun:

- Ez. Bertso auk ez dira Krisostomorenak. Baiña bertso za-
ar asko jakiteak ori ekartzen du: gero bertso jartzen asi eta uste
gabe punturen bat edo beste leengo bertso zaarretatik artu.
Orregatik, bertso auk edozeiñenak izan ditezke.

(1) Mutillaren izen-abizenak. (2) Bertso-paperak: *zabitc* eta
modua.

(1903)

Bertso Berriak

1 Milla bederatzi eun
eta iru urte
aurten nola ditugun
askok jakin dute.
Ondo portatutzia
eztu inork kalte,
bertsuak paratzeko
obligatu naute,
egiñalak egingo ditut
kapaz naizen arte.

2
da nere graziya,
.....-ko partian (1)
jaio ta aziya,
pobria izan arren
mutiko lasaya.
Andregaiak egin dit
aziyo etxusiya,
despreziyua franko
nago ikusiya.

3 bera asi zan
..... ren billa, (2)
eta bitartekuak
bazatozen milla.
Izkintzan ikasita
prestatu dedilla,
garai artan etzeguen
amoriyo illa,
orain tallistarekin
or konpon dedilla.

4 Pazkuetan Loiolan
biyak giñan izan,
engañatu niñozun
ume baten gisan.
Dantzariari begira
jarri giñan plazan,
enbusteriya edo
bondadia bazan,
gero zer pasatu zan
eliteke esan.

5 Bukatu zianian
ango erromeriyak,
ankak jaso giñuen,
ez gauden eriyak.
Sasoi ederrekuak,
gorputzez guriyak,
Donostia juanda
aiek komeriyak!
Café Oriental-en
sartu giñan biyak.

- 6 Lengusuba laguntzat
zenduen ekarri,
kafian exerita
lasai giñan jarri.
Begira zauden guziyak
ziguten igarri
nola amoriyua
geniyon elkarri;
orra samintasunak
gustuak ekarri.
- 7 Traje fiña soñian
aberats moduban,
zillarrezko peineta
eder bat buruan,
beste gauza guztiyak
aundiyen moduban.
Lengusua ezpazan
gertatu onduan,
akaso zerbait e
gingo genduban.
- 8 Beste majo bat etorri zaio
urrengo egun batian,
arri're baietz agindu diyo
auko zuloa betian.
Ezta neskatxa tranposagorik
Gipuzkuako partian,
engañatuta eduki nazu
amairu illabetian,
bost pazientzi sufritu diyot
ontara naizen artian.

9 Agur,, ez nuben uste (3)
zuk modu ontan uzterik,
garai batian gure tartian
etzan izketa tristerik.
Ikusi gabe ezin pasatu
ez jayik eta asterik,
sorgin guztiyen maestrak ainbeste
tranpa badezu gazterik,
nigatik libre gelditzen zera
baldin badezu besterik.

10 Esan bezela, engañatu nau
amairu illabetian;
berak bentajik eztubelikan
dabil neretzat kaltian.
Itzak ederrak mingañan eta
kariñua apartian,
jeniyo orrek eutsiko dizu
biziya dezun artian,
orrelakorik ezta sartuko
zeruetako atian.

11 Postur'artako miraberikan
ez nuen uste bazala,
gezur galantak esan dituzu
mudatu gabe azala.
Kontari dago gau ta gabean
pikardiyan gabiltzala,
San Bizenteko atzian ere
allegatutzen naizala,
testimoniyo z kargatu nazu
Kristo juduak bezela.

12 Zure autikan aditu degu
esplikazio zuzenik,
ez siñistia gauzik onena
gezurtiyaren esanik.
Zuri bertsuak jartzeko ainbat
diru ez naukela nik,
gastu franko egin det baño
eztaukat damutasunik,
jeniyu ori daukan pertsonak
ez luke biar gizonik.

Bertso auek *Vergara: Imp. de J. F. López* moldiz-
tegian argitara emandako kanta-paper batetik ko-
piatuak ditugu. Ale bat Arantzazuko bilduman gor-
detzen da.

Irakurlea oartuko zanez, sail ontako leenengo
zazpi bertsoak amarreko txikiak dira; eta beste bos-
tak, amarreko aundiak.

Amabigarrenean “zuri bertsuak jartzeko ainbat
diru ez naukela nik” esaten du gizongaiak, andre-
gaiaren itzak errepikatuz. Bertsolariari pagatzeko
alegia, ezkontza galdutako bertso auek, itzaurrean
esan degunez, enkarguz jarriak izaten ziran eta.

(1) Mutillaren izen-abizenak eta jaioterria. (2) Neskaren eta
mutillaren izenak. (3) Neskaren izena.

Bertso Berriak

1 Gertatu zaidan asunto bati
jarri biaizkat bertsuak,
arrigarriyak izan ditugu
gure arteko kasuak;
zenbaitekiko trata-bidiak
ez dirade gustosuak,
gauza onikan ez du orlako
kristau maliziosuak.

2 Pasadizua jarri biar det
iñork nai badu aditu,
motibo gabe lan onetara
nola liteke abitu?
Ai, emakume mingaiñ luziak
askotan lan txarrak ditu,
azal eder au famatu gabe
ezin niteke gelditu.

3-go semia naiz nerez, (1)
..... deitzen zaidana, (2)
txikitan andik etorri eta
Donostiyan naguana;
urte ta erdiyan neska batekin
zerbait tratatu dedana,
aseko dala uste det ori
andretzat artzen duana.

4 Nere emaztegai izanduba,
.....-en jaio ta aziya, (3)
lendabiziko-an (4)
dantzan nuen ikusiya;
kolore zuri gorri ederrak,
izketan badu graziya,
baña biyotzez txit mudakorra
neska diabruz josiya.

5 Bere etxetik serbitzera zan
Donostiyara etorri,
andikan laister Bulebarrian
izketan giñaden jarri;
geroztik ustez naitasunian
segitu'ioгу alkarri,
azkenerako zure tranpiyak
gauz onik ez du ekarri.

6 Jaia etorri ezkeroztikan
geienian alkarrekin,
ezertxo ere gauza txarrikan
etzan orduan gurekin;
meinda ederrak lasai egiñaz
erromeriyen nerekin,
duro ederrak aisa jua dira
egun oietan zurekin.

7 Modu orretan ibiltzen giñan
batera eta bestera,
erromeriyak aprobetxatu
gabe egondu ez gera;
egiyak emen jarri artian
orri ez nua uztera,
errespuestak nai baldin badu
bialdu bitza ostera.

- 8 Itz ederrakin esaten ziran:
“Ai, maitia, (5)
nere biyotzak zureganako
badauka borondatia;
oso benetan nai dizudala
seguru egon zaitia,
au da neregan senti dedana
zuri garbi esatia”.
- 9 Neskatxa orri eman niyoen
biar nuen aditzera,
esanaz: “Mundu ontan nerekin
beti biziko al zera?”.
Erantzun ziran: “Iñola ere
ez nua zu utzitzera;
esposatuta jarri gaitezen
baldin konforme bazera”.
- 10 Konformatuta jarri gerade
alkarri itzak emanda,
zer nai zukian denboraz esan
diyo amari juanda;
biyen artian atera dute
ezkontzarekin demanda,
gero baimena eman ziyoen
senarrarekin egonda.
- 11 Gurasuairi gogua egin
zaiote neri deitzeko,
desio aundiya daukatela
zeiñ naizen ezagutzeko;
eman ziraten enkargu ori
ez neguan utzitzeko,
eta moduba egin det laiste
oietara azaltzeko.

12 Andik urrengo egun batian
pentsatu det juatia,
nere andregai izandu orrek
iriki ziran atia;
guraso oiek nunbait nai zuten
nerekin itzegitia,
atsuak azkar galdetu ziran
zenbat neukan dotia.

13 Ogei ta sei milla errialekin
nuela dote neria,
alabai orrela emateko
artuba zuten idia;
aurretik ondo garbitasunak
egitia da obia,
bizimoduba izandu deiñ
sesiyorikan gabia.

4 Esan bezela gure arteko
kontubak arreglatuta,
bi illabete barru jarriko
giñala esposatuta;
amabost egun baño lenago
besterena aldatuta,
ta despedida bertatik eman
niyon nun zan billatuta.

5 Auzuan dauka ibiltzen dana
indianuen antzian,
neskatxa orrengana juaten da
ori noizik bakoitzian;
mirabe eder au engañatzen da
sonbrerua jantzitzian,
diru sobrerik apenas duen
Bankuan edo etxian.

- 16 Etzaitezela geiegi poztu,
-go dama gaztia, (6)
 zure pareko emakumiak
 munduban falta ezia;
 lendabiziko nerekin asi,
 indianua bestia,
 orrek utzita esperatzen det
 neskazartuta ikustia.
- 17 Pasiatzera dijuanian
 askotan det ikusitzen,
 apaiñduriya gustatzen zaio,
 iñoiz badaki luzitzen;
 orain orrela oitu ta gero
 erraz ezta zu ezitzen,
 au artzen duen gizarajuak
 ikasiko du bizitzen.
- 18 Ondo portatu etzeralako
 kantik dizkizut atera,
 zertan etorri ziñan orduban
 neri baimena ematera?
 Damu aundirik ez daukat zu (7)
 utziya alde batera,
 obe zenduke lenbailen artu
 ikasitzeko papera.

Bertso-papera, *Imp. Quintanilla - Zarauz* moldiz-
 tegian argitaratua. Ez nuan kontuan artu noren es-
 kutik jaso nuan.

(1) Mutillaren erria. (2) Mutillaren izena. (3) Neskaren erria.
 (4) Gipuzkoako erri baten izena. (5) Mutillaren izena. (6) Neska-
 ren izena. (7) Bertso-paperak *ezdauka zu*.

Bertso Berriyak

- 1 Dozenatxo bat bertso jartzeko
badet naiko arrazoia.
len triste samar nabillen baño
kontsolatu naiz iya-iya;
zeinbait pertsonak disimulan
egiten daki tranpiya,
alabatzia disponitu det
.....-ko nere nobiya. (1)

- 2 Aitak eta amak egiñ niñuten
seme bat-n,(2)
lujo aundirik ez det nerekiñ
jantziyan eta izketan;
neskatx orrekiñ asiya nintzan
ezkondutzeko ustetan,
faltsuagorik izango danik
ez derizkiyot bestetan.

- 3 Tratamentuan oraiñ iru urte
beragandik zan asiya,
santa-paperan egon biar du
dana maleziz josiya;
ni naiz mutil bat motibo gabe
neskatxa orrek utziya,
baño tristiak badauka lana
garbitzen kontzientziya.

4 Pamplonan nintzan serbiziyuan
suertia ala emanda,
kartak egiten bera asi zait
tratatzeko zegon da:
nik sinistatu egiñ nizkiyon
orrek gezurak esanda,
kontzientziya garbitu zazu
zor dituzunak emanda.

5 Neskatxa orren agintzia da
txit gauza peligrosua,
iru urtian tratatu eta
au gauza lastimosua.
Ez nuben uste pareja ori
zanikan orren faltsua,
konformidadez alaba baño
okerrago da atsua.

6 Oi ta bi urte du edadia,
ezta neskatx itxusiya,
.....-tikan (3) gorago-n (4)
.....-n jaio ta aziya; (5)
faltsikeriko kartilla ori
amak du erakutsiya,
azpikuaz gaiñ jirako luke
..... alde guziya. (6)

7 Jun dan Pazkua bigarrena zan
eguna señalamente,
aitzaki edo atzerapena
orduan jarri dirate;
koleratu ta zer pasatzen zan
esan niyen derrepente;
ortik egiye ezta aritzen,
gezurra berriz sobrante.

- 8 Orren izenik ez det esango,
ni , (7)
iru urtian nik eduki det
oi maitatzeko arreta;
azkenerako berak juan zaizkit
txit kristau lege txarreta,
oiek apenas pagatzen diran
kasikan surtan erreta.
- 9 Ballara ortan bizi da ori
ogei eta bi urtian,
ni konfiantzan ibillia naiz
kasikan oraiñ artian;
orrek mutilla engañatuta
sartuko luke lurpian,
ez nuben uste orrelakorik
zanik-ko partian. (8)
- 10 Juezetara ere deitu nau
..... aldera tristiak, (9)
neri ipini nai zizkiaten
izugarritzko nastiak;
izan biaute txanpon batzuek
patrikaratik kostiak,
eztu baliyo leku oietan
gezurrarekin astiak.
- 11 Dama maitia, letu itzatzu
jarri ditudan loriak,
alare ez dira ikaratuko
asko orren koloriak;
beste polipat billatutzeko
orain daduzkat idiak,
naiz kosta bedi bi milla pezta
aiek baditut neriak.

12 Nolanai ere gauza asko ezta
nik dadukan interesa,
baño daukate ama-alaba oiek
txit orgullu aldrebesea;
oiek nai dute diru asko dun
dukia edo markesa,
baño alakoak ezagutzen du
basarritar urgullosa.

13 Amaika bidar jardun omen da
ori auzoetan kontari:
inguru ortan mutil bat gauza
danik eztala agiri;
ari-albañu fiñik gabeko
tela-klasia da ori,
kariñua nor izango diyo
orrela dabillenari?

14 Ni ibilli naiz errespetuan
eta leialtasunian,
fiyatu nintzan lendabizitik
pikar'oien esanian;
akordatu naiz eztabiltzala
oso martxa zuzenian,
kontentu nago orrenbestian
apartatu naizenian.

15 Zertan zabilta, dama maitia,
bartzarrak orrela nasten?
Saia zaitia jeniyo oiek
al dezun lenena uzten;
oraiñ artian baño fiñago
ezpaldin bazera asten,
kostako da oi senarrarekiñ
pasiatutzen ikusten.

- 16 Mingañarekin inbusteriyan
 orrek badauka graziya,
 bere izenik ez det esan nai,
-n jaio ta aziya; (10)
 ori dan arte ezta faltako
 saltsa eta maleziya,
 baño kostako zaio logratzen
 berak nai duben guziya.
- 17 Zelebriak dira neskatxa
 gazti orren aitamenak,
 parra ederki egingo dute
 gañetik beira daudenak;
 gaztetandikan prueba ederrak
 badaduzkatzu emanak,
 ontaz aurrera zer tela zeran
 jakingo dute geienak.
- 18 Adios, nere maite izana,
-ko aingerutxua, (11)
 zuri bertsuak ipinitzeko (12)
 zegon nere kapritxua;
 ez, izan balitz errespetoko
 leiala eta txintxua;
 orremestian bukatzen ditut,
 alaba eta atsua.

Bertso-papera, *Rentería: Tip. Vda. Valverde* moldiztegiari argitarara emana.

Ez nuan idatzi edo kontuan artu noren eskutik jaso nuan.

Itzaurrean esan degunez, bertso-mota auek enkarguz jartzen ziran. Bertsolari batengana joan eta jarri erazi, alegia. Ala, bertso auek nork paratuko

zitian ezin jakin. Baiña *Auspoa*-ren 73 zenbakian, *Iru anai bertsolari* izenekoan, Juan Jose Lujanbio Saibururen (1874-1954) bertsoak eskeintzerakoan, 29 orrialdean, ezkontza galdutako sail bat eskeintzen da, onako sail onekin bi berdintasun dituana.

Sail ontako 14-garren bertsoa eta ango 15-garrena, berdiñak dira. Eta sail ontako 16-garren bertsoaren azken lerroak eta ango bigarren bertsoaren azken lerroak ere berdintsuak.

Zer esan naiko du orrek? Bertso auek ere Saiburuk moldatuak dirala? Baditeke, baiña seguru ezin jakin.

(1) Neskaren erria. (2) Erri baten izena. (3) Erri baten izena. (4) Neskaren erria. (5) Neskaren jaiotetxea. (6) Lurralde baten izena. (7) Mutillaren izen-abizenak. (8) Neskaren erria. (9) Erri baten izena. (10) Neskaren erria. (11) Neskaren erria. (12) Bertso-paperak: ipintzeco.

(1906)

Bertso Berriak

Senpelarrek jarriak

- 1 Milla pasatu bederatzireun da
au da seigarren urtia,
dama bateri pentsatuzten det
bertso berriak jartzia;
mingañaz dabil oso leiala,
biotza tranpaz betia,
nere nobiya izan dalako
badaukat naiko kaltia.

- 2 Ni naiz ta (1)
ori, (2)
gure ezkontza nola galdu dan
jenteak jakin bear du;
tratamentu au zerratu zala
bi urte ta erdi inguru,
motibo gabe despeida eman dit,
egia esan nai badu.

- 3-go errian jaio-aziak (3)
biok gerade lengusu,
egun batean esposatzeko
berak egin ziran mandatu;
orduan ala konforme jarri,
orain atzera damutu,
parienteak anparatzeko
alaja ederra zaude zu.

- 4 Neskatxa orren edadea da
 ogei ta lau edo bost urte,
 malezia ta tranpa badauka (4)
 sorgin guztiak ainbeste;
 izketan ere poliki daki
 iñor engañatu arte,
 ezagututzen ez da erraza,
 neri kosta zait bastante.
- 5 Beste batekin tratatzen zuan
 orrek lenago, (5)
 arrek despeida eman zion da
 bueltan neregana gero.
 Esaten ziran: “....., zutaz (6)
 oso gustaturik nago”.
 Enbusteria bazan orduan,
 orain mudatua dago.
- 6 Orren orduko etorreria
 nik ez nuen artu gaizki,
 erantzun nion: “....., ez du (7)
 itz orrek gaizki merezi;
 olako lanak txarapuerian (*sic*)
 ez ditugu biar asi,
 gurasoaren borondatea
 jakin dezagun lenbizi”.
- 7 Gurasoakin egondu zala
 nigana etorri baño len,
 oso gustora zeudela arenak,
 neriak ala bazeuden;
 erromeritik erromerira
 asi bear zala lenbait-len,
 bizi modua ateratzeko
 idea onean zebillen.

8 Andikan laister asi giñaden
erromerian eta festan,
.....-tikan-ra
..... menditik bueltan; (8)
iji ta aja farra egiñaz
nere kontura jan da eran,
Jaun Zerukoak juzga gaitzala
pertsona fiñak zein diran.

9-tikan bueltan,
.....-en eta-n, (9)
bi urte ontan erromeri bat
apenas uts egin degun;
orren gustoak ezin kunplituz
or ibilli naiz gau ta egun,
orain graziak eman bear ta
kopeta jartzen dit illun.

10 Erromeritik etxerakuan
amaika bider esana:
“Zureganako amorioa
ondo sartu da nigana;
esposatuta pasa biagu
bizi modu bat bikaña”.
Oiek esaten ari zanian
moztu banio mingaña!...

11 Gure despeida polita izan da,
publikatu bear det dena:
tratamentua borratu zala
aitak lenbizi ordena,
orren ondoren ez ibiltzeko
alabak berriz urrena; (10)
isilik ezin egon liteke
sentimenturik duena.

12 Orain beste bat topatu omen du
ni bañan obegua,
trinidatea osatu du ta
seguru dauka zerua;
zure buruan sekulan ezta
faltako aize berua,
kontuz jokatu aiteke, motell,
ez baldin baiaz erua. (11)

13 Neskatxa orren ofizioa
printzipalena labrantza;
ori astean, jaiean berriz
txorakeri eta dantza.
Artaldeakin or ibiltzen da
ijua eta txarantza,
juizioan sartu nai badu
naiko urtiak badauzka.

14 Ogei ta iru urtean neri
pasa zaizkidan kasuak,
atarramentu onik sekulan
eztu pertsona gaiztuak; (12)
orregatikan atera ditut
inprentan letra batzuak,
amar zentimo balio dute
..... bertsuak. (13)

Bertso-papera, *Rentería: Tip. Vda Valverde* moldiztegia argitara emana, eta Errenteriko Jertrudis Arrietaren eskutik jasoa. Baita Ormaiztegiako Bizente Mujika zanaren eskutik ere.

Bertso-papera, *Imp. de G. de Diego. - Eibar* moldiztegia argitara emana, Zarauzko baserri batean jasoa eta aitzatzerik merezi duan aldaketarik gabe.

Baita ere Loiolako Aita Iñaki Goikoetxeak bialdua ere, berak Aia aldean bilduta.

Bertso-papera, *Guernica*. - *Imp. Artística Goitia y Hormaechea* argitaratua eta Usurbilko Egiluze-txiki baserrian arkitua.

Izenburuan *Sempelarrek jarriac* esaten da bertso auengatik. Baiña ori paperak errezago saltzearren erantsia izango da, benetako Xenpelar bertsolaria aspaldian illa zan eta.

(1) Mutillaren izen-abizenak. (2) Neskaren izen-abizenak. (3) Neska-mutillen erria. (4) Bertso-paperak: *malecia trampa badauca*. (5) Neskaren izena. (6) Mutillaren izena. (7) Neskaren izena. (8) Gipuzkoako toki-izen batzuk. (9) Gipuzkoako erri-izen batzuk. (10) Bertso-paperak: *alabac berria urrena*. (11) Bertso-paperak: *es baldin bayas eroa*. (12) Bertso-paperak: *estu persona gaistoac*. (13) Neskaren izena eta gaitz-izena.

(1909)

Bertso Berriyak

- 1 Milla pasa ta bederatzireun
beatzigarren urtian,
bertso batzubek jartzera nua
Gipuzkoako partian;
iñundik ere deskantsurikan
ez dago gure tartian,
arro dabillen mutil gazte bat
eskarmentatu artian.
- 2-ko-n jaiotakua(1)
naiz, (2)
gauza oietan iritxitzerik
ez nuen uste sekula;
pertsona batek ipiñi dizkit
makiña bat matrikula,
iruritzen zait erantzupenak
merezitubak ditula.
- 3-k jarri zituen (3)
nere kontrako bertsuak,
aien ordaintzat izan ditezen
orra nik gaur moldatuak;
mundu guzian publikatuaz
testimoniyo faltsuak,
zuk dezun ainbat onra badute
alabak eta atsuak.

4 Tratamentua oraiñ iru urte
nigandik zala asiya,
iruritzen zait darabiltzula
oso izketa nasiya;
orretarako Jaunak emanda
badadukazu graziya,
gezurrezko itz bat besterik ezta
zabaldu dezun guziya.

5 Lendabiziko kartak egiten
Panplonatan asi zan,
erantzupena bialdutzeko
emen zer moduz gebiltzan;
sekula ezer izandu ez ta
arriturik geldi nintzan,
arrazoi-bidez jardungo ziñan
aginduba izan banitzan.

6 San Pedro eguna seinalamente
au gure etxian sartua,
adierazten asi zitzaigun
zekarren pentsamentua:
testigu aurrez al zan lenena
zerratutzeko tratua,
bost sentidubak sano dituen
ortik atera kontua.

7 Erantzuera nik eman nizun
itz batetikan bestera:
“Modu ortako gauzik oraindik
ni ez nijua aстера;
askoz obe da gauza oriyek
alde batera uztea”.
Nere baimenik aditu gabe
juan ziñaden zu oстера.

- 8 Zertan zabilta, , (4)
gaizki esanka gugatik?
Zerbait pentsatzen jarri nitzaden
ez izan arren gogotik;
informe txarrak etorri ziran
gure etxera zugatik,
orregatikan erantzun nizun
libre zeundela nigatik.
- 9 Motiborikan geiago gabe
neri bertsuak jartzeko,
erantzuerik izango zanik
orrek etzuen usteko;
denbora askuan desapiyoka
ibili ziñan illtzeko,
nere ustian artzeko baño
obia ziñan uzteko.
- 10 Gezurra pranko publikatuaz
aditua da izketan,
beste olako saltserorikan
ez dago-n; (5)
testimoniyoz ibillia da
nere kontrako kasketan,
berak nai duen dana esanda
libre zalako ustetan.
- 11 Motiborikan nola etzenduen
neri bertsuak jartzeko,
zuk etzenduen pentsatzen baña
ara oraiñ ordaintzeko;
kontzientziya garbi dezadan
gero zeruan sartzeko,
erantzuera bial'idazu
zenbat daukazun artzeko.

12 Jun dan Pazkua bigarrenian
eskandalo bat genduan,
iltzeko eta desapiyoka
orduan artu ninduan;
gauza oiekiñ ikaratzia
ala usteko zenduan,
modu ortako txororik zanik
ez nuen uste munduan.

13 Gezurrarekin saltsan astiak
sekula ez dakar gauz onik,
ez det pentsatzen arrazoi gabe
onetaratu naizenik;
inguru ontan egiña dago
esplikaziyo zuzenik,
nere nobiyo izandu dala
ta nik ez eman baimenik.

14 Juezetara deitu nuala
ipiñiya du kantetan,
uste dedanez amalau azal
baditu orrek kopetan;
alegiñ asko egiña dago
konbertitzeko ustetan,
kariño gabe eziñ maitatu
ibilli arren kasketan.

15 Alaja ori nere ondoren
nola zebillen luzaro,
egun batian galdetu ziran
zein jarriko zan poltsero;
arrazoi orrek jarri ninduen
len negon baño atzero,
iru lekutan iritxitzen da
amaika olako saltsero.

16 Nere neskatxa lagun guziyak,
nere esanak aditu:
zenbait pertsonak erreparuak
ongi mereziyak ditu;
errespetorik ez duenari
al dan gutxina segitu,
aizkenerako burla eginda
etzaitezian gelditu.

17 Galai maitia, letu ditzazu
jarri ditudan kontuak,
lenago txarrak giñaden baña
orain ez gaude onduak;
modu ontako gauzik oraindik
ez du ikusi manduak,
erantzuerak jartzen dizkiyot
letu ditzala munduak.

18 Irakurtzia desio nuke
jarri ditudan loriak,
ia mudatzen ote diraden,
....., zure koloriak; (6)
zuri ordañak ateratzeko
ziraden nere idiak,
aditzalliak juzga ditzaten
zeñenak diran obiak.

19 Orra emeretzi bertso berrikin
paper onetan azkena,
mundu guziyan adierazteko
itz bat ez dago ez dana;
beste polit bat billatutzera
saia zaitia al dana,
komeni bada beste bat arte,
ariyo, nere laztana.

Bertso-papera, *E. Lopez'en echean* argitara emandakoa. Dakigunez, etxe ori Tolosakoa zan, gero Isaak Lopez-Mendizabal jauna zanaren ardura-pean izan zana.

Irakurlea oartuko zanez, sail au aurreko sailari ematen zaion erantzuna da. Ura mutillak jarria, eta onako au neskak ordaiñetan.

Amazazpigarren bertsoan, *manduak* eta *munduak* puntuak ez dakit ondo dauden edo tokiz aldatu diran.

(1) Neskaren erria eta etxea. (2) Neskaren izen-abizenak. (3) Mutillaren izen-abizenak. (4) Mutillaren izen-abizenak. (5) Erri baten izena. (6) Mutillaren izena.

Bertso Berriak

1 Bertso berriak ateratzeko
emen badago premiya,
tristurak utzi ta alaiturik
oraintxe jarri naiz iya;
zenbait pertsonak agindu arren
egiten daki tranpiya,
alabatutzen asi biar det
.....-ko nere nobiya. (1)

2 Asko bezela ezkonduzko
asiya nitzan gaztetan,
emakume au orain nerekin
jarriya dago kasketan;
gezurra eta saltsa badauka
orrek seitatik bostetan,
arruagorik egongo danik
ez derizkiyot bestetan.

3 Tratamentua oraiñ bi urte
beragandik zan asiya,
deabru zarra bezela dago
ori maliziz josiya;
baña damurik ez dadukat nik
neskatxa orrek utziya,
berriz agur ez diyot egingo,
egon liteke etsiya.

4 daukat izena,
apellidua, (2)
esan biar det al dan lenena
zer dan asunto guria;
neskatxa orri kantak jartzeko
oraiñ artu det idia,
gutxigo merezi duenentzat
iñoiz atera oi dia.

5 Bitorian neguan soldadu
serbiziora juanda,
kartak egiten asi zitzaidan
orretarako zeon da;
zori gaiztuan sinistu nizkan
orrek gezurak esanda,
gure okerra sortua dago
ori faltsua izanda.

6 Neskata orren izenik jartzen
ez dit utzi Justiziyak,
naiago nuen logratu banu,
jakin zezaten guziyak;
ni soldaduskatik etorrira
ezkondutzeko asiyak,
jendiak ondo ikasi bitza
oraiñ gure notiziyak.

7 Enbusteriya ugari kartan
baltzen ziran emendik,
nik orrelako mingain luzerik
ez det ikusi oraindik;
mutil gaztiak engañatutzen
dabil nondik edo andik,
berri onikan ez du ekartzen
orrelakuak iñondik.

- 8 Donostiyako kalian dago
neskatxa ori serbitzen,
esan ziraden ezkontutzeko
berak ziradela agintzen;
arrezkerotik fintasunian
beti niyoen segitzen,
nere kaltian egondu nitzan
zure baimena aditzen.
- 9 Egun batian fiyatu nitzan
neskatxa orren esanian,
ta esposatzeko jarri gera
prestatutzen geranian;
pentsatu nuen egongo zala
nik ori fintasunian,
amak nai eztuen aitzekiya
ipiñi dit azkenian.
- 10 Ni Donostiyan jaiotakua,
ori-ko erriyan, (3)
nereganako egondu zera
beti naitasun urriyan;
baña alare ez naiz arkitzen
oso estadu larriyan,
beñ asiko ta ibilli gera
leku estimagarriyan.
- 11 Mingaiñarekin leunkeriyen
dauka abillidadia,
errespetuan ibillitzia
askozaz luke obia;
baña mundura etziñan jai
orgullorikan gabia,
zu zeran bezin izar ederrak
geiagu ere badia.

- 12 Emakumerik ez det ikusi
orren naitasun otzian,
esker gaiztua besterik neri
beñere eman etzian;
mingaiñez leun itzegin baña
maleziya biyotzian,
orlakuakin gusto aundirik
ezta izango etxian.
- 13 Nere nobiya, letu itzazu
jarrita dauden loriak,
ez dira mudatuko alare
asko zure koloriak;
beste polipat billatutzeko
orain daduzkat idiak,
nunai aukeran badaduzkat nik
zu zeran baño obiak.
- 14 Amaika bider jarduna izan
biar du orrek kontari,
orrentzako moduko mutillik
emen ez dala agiri.
Naitasuna nork artuko diyo
orrela dabillenari?
Egun batian ai zer maleta
onera etorri zan ori!
- 15 Juan dan illaren ogei ta biya
degu señaladamente,
aitzeki edo atzerapena
orduan jarri dirate;
zer pasatzen zan ama-alabai
esan niyen derrepente,
ortik egiya ezta aditzen,
gezurra berriz sobrante.

- 16 Ezta aundiya nik neonekin
daukadan interesa,
baña atsuak eta alabak
txit orgullo alrebesa;
oiek nai dute diru askoko
dukia edo markesa,
baña pobria ezagututzen
leku guzian erraza.
- 17 Beti ibilli izandu naiz ni
orren leialtasunian,
leku onian fiyatu nitzan
ni oriyen esanian;
akordatu naiz ez dabiltzala
oraiñ bide zuzenian,
kontentu nago orrenbestian
apartatu naizenian.
- 18 Adios, nere nobiya izana,
.....-ko aingerutxua, (4)
bertso berriyak zuri jartzeko
zefon nere kapritxua;
ez zenbait bezela izan baziñan
leiala eta txintxua,
nik onenbestez bukatzen ditut,
alaba eta atsua.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, noren-gandik jaso nuan apuntatu gabea. Sail onek antza badu aurreko beste batekin: 100-garren orrialdean asten dan bertso-saillarekin: "Dozenatxo bat bertso jartzeko...". Bertso asko berdintsuak, alegia. Aita baten umeak dirala esan naiko du.

(1) Neskaxaren erria. (2) Mutillaren izen-abizenak. (3) Neskaxaren erria. (4) Neskaxaren erria.

.....-ren bertsuak oroigarriz

- 1 Orra bertso berriyak
.....-renak, (1)
beñere gauz onik ez
gaizki dabillenak;
nork berak pasa bear
daukazkiyen penak,
oñazerikan ez du
miñik ez dubenak.

- 2, (2)
....., (3)
zuben gañian degu
oraingo izketa;
pertsone onetatik
izandu da keja,
bi bertso paratzeko
ote dedan beta.

- 3 Zedorri ibildu ziñan
neronen galdian,
mandatu egin zeniran
..... kalia; (4)
gustora egoten giñan
elkarren aldian,
tulazko pañuelua
eman nizunian.

- 4 Itza eman ninduzun
laster ezkontzeko,
iru pregoi bota ta
esposatutzeko;
bizi geran artian
elkar amatzeko,
zer motibo izandu det
orain utzitzeko?
- 5 Ondo konpondu giñan
gure kontratuan,
ezkonduko giñala
aurtengo neguan;
baita baliyatu're
gure enpleguan:
bat bisigu-karraio,
bestia aur-kontuan.
- 6 Pertsona mudakorra
izan ez baziñan,
etziñaden sartuko
besteren koziñan;
pikara, lotsagabe,
gaizki itzegiña,
zer dan esan zadazu
nere utsegiña?
- 7 Zertako artu zenduen
nere erregaliya,
munduan jarritzeko
orlako armoniya?
Jaungoikua ofenditzen
zure ibilliya,
zenduen onoria
galdu dezu iya.

- 8 Andregaiia utzi ta
au nere trixteza!
Majo berriyarekin
zuk berriz grandeza;
penaz akabatzeko
ez nitzan erreza,
nork bere petxuetan
eskua jar beza.
- 9 Dama orrek tenta nau
aspaldiyan sobra,
despedida eman da
azkenian burla;
goguan izango det
egiñ nizun obra,
zerura joateko
obe dezu orla.
- 10 Zuzen-bidean joan naiz
beti al dedala,
ez jakiñ izan banu
faltsua ziñala;
despedida orrekiñ
sartu dit puñala,
zeruko Jaungoikuak
lagun dakidala.
- 11 Lenaz gañera dira
beste erregaliyak:
erraztun ederra ta
zapata berriyak,
dirubaz saldu eta
kostata ekarriyak;
oraiñ utzi biatut
dianak guztiyak.

12 Zernai gauza esateko
jarri nazu eran,
jendiak jakin dezan
nolakua zeran;
zu ez bezelakuak
baditut aukeran,
kontu artuko dizut
nola bizi zeran.

Bertso-papera, *Estab, tip. de Pozo; Fuenterrabía*, 11 moldiztegian argitara emana; eta Oxford-ko *Bodleyan Librery*-n arkitua.

Paperaren gaiñeko aldean itz auek daude eskuz idatzita: *Oxford, Angletérre, envoi de Mr. E. S. Dodgson, San Sebastián*. Dodgson euskalariak bialdua dala, alegia.

(1) Neskaren izena. (2) Mutillaren izen-abizenak. (3) Neskaren izen-abizenak. (4) Kale-izen bat.

Bertso Berriak

- 1 Bertso berriak jartzera nua
damatxo gazte batentzat,
nere barrena lasatu dediñ
on dala iduritzen zat;
akaso askok igual ez du
gauza au artuko ontzat,
baiña neu ala kontentuz banaiz
batere inporta etzat.

- 2 Damatxo orrek zer egiñ diran
garbiro nai nuke esan,
arrazoirikan ote daukadan
jenteak juzgatu dezan;
guk ere beste askok bezela
ezkontza-tratuak izan,
gero kukuak oker jo du ta
orra gaur zertara naizan.

- 3 Zorioneko ezkontza orrek
amaika gerra jartzen du,
gureak ere azkenerako
patu orixe eman du;
nere aldetik ibilli naiz ni
aiñ formal eta ondradu,
alare neuri despeida eman,
utsa motiboa banu.

4 Pentsatzen ez dan gauza asko da mundu onetan gertatzen, emen edo or disgustorikan beiñere ez da faltatzen; guztiz benetan asi nintzan ni neskatxa orrekiñ tratatzen, gaur onela suzeditzerik ez nuen asko pentsatzen.

5 Nere izena da ta apellidua, (1) ofizioz naiz berriz arotza eta euskaldun garbia; izan det (2) urte betean nobia, itzak ederrak baditu ere fiñeza aundi gabia.

6 Neskatxa ori dala merio bertsuak jartzen naiz asi, denpora pasa kantatutzeko iñork nai badu ikasi; ez dakitenak jakiñ dezaten nai nuke adierazi, ustez kaiolan neukan txoria nola juan zaidan igesi. (3)

7 Abesna ala egiñ zuten da (*sic*) neskatxa orren etxian, iru eguneko lanera joanda izan nintzan arratsian; ezkondutzeko pretensioa orduantxe egin zian, nik ere baietz erantzun nion berak asko nai bazian.

- 8 Kontestatu dit: "Arrazoi orrek ez dit penarik ematen, zu ikusita amori'ori gaitz da nigandik joaten". "Tratu ori txit egokia da" asi ziraden esaten, nunbait aurretik ama-alabak pentsaturikan zeukaten.
- 9 Itzak pasarik tratatu degu amabi illabetian, atzerapenik inñundik ere etzan bien bitartian; traje polit bat eragin ziran inbusteria-trukian, sikira utsa zan larga ez balit (4) bera urratu artian.
- 10 Ezkontza ori galduagatik len ainbestean banago,k kariño gutxi (5) neretzat zeukala nago; bere obrari begiratuta itxuria ala dago, neskatxa bera mudatu zaigu trajea baño lenago.
- 11 Illuntze baten portunatu zait orren etxera joatia, nik uste nuan aldean triste billatu nuan jentia; amak esan dit: "Ez genduke nai alferrikan ibiltzia, nere alabak pentsaturikan daduka monja joatia".

12 Alabak monja joan nai zuala
amak ziranean esan:
“Guztiz ondo da –erantzun nion
izugarrizko noblezan–.
Arrazoi dauka saiaturtea
bere animaren defentsan”.
Baiña neregan pentsatu nuan
ori egia ote zan.

13 Monja joan bear duala eta
orra partitu nerekiñ,
obra ederrak mingañean ta
tranpa galantak berekiñ;
oaiñ aditu det nola asi dan
beste galaien batekiñ,
ori mudatzen erreza da ta
kontu, mutillak, orrekiñ!

14 Aitu dedanez, oraiñgo orrekiñ
egiñ du konpontzioa,
aiñ ezagun da ezkontutzeko
daukala intentzioa;
konbenturako mingañez itzak,
bestera atentzioa,
....., monja joateko (6)
ori da bokazioa!

15 Ama-alabak biak ziraden
nerekiñ itzak pasiak,
beron tartetik atera ziran
ezkontza-tratu guziak;
kanpotik fiñak ibilli dira,
barrendik tranpaz josiak,
oietatikan libre naiz beiñtzat
Jaungoikoari graziak.

16 Ama-alabaen borondatea
galdua da neretzako,
askontzat ere obeagoa
izan det nik oientzako;
egun batzuek lanean pasa,
oaiñdik danak kobratzeko,
zorrak pagatu nai badituzte
pronto nago ni artzeko.

17 Nik sentiduak agertzen ditut
paper au eskribituta,
....., gogoan izan (7)
gauzak ondo adituta;
medito asko irabazten da
fiñezari segituta,
urte askoan bizi izan zaitez
senar formal bat artuta.

18 Orra emezortzi bertso atera
gusto duanak aditu,
ixillik egon neikean baño
barrenak eziñ kabituz;
oiñdaño baño obetuago
aurrerakoan segitu,
adios, ama-alabak, eta
orra kantak despeditu.

Bertso-papera, *Imp. de San Antonio. Olalquiaga y Borne - Vergara* moldiztegi argitara emana eta Gregorio Mujika zanaren bilduman azaldua.

Bertso-papera, *Imp. de Pedro Orúe.- Eibar* moldiztegi argitara emana eta Arantzazun arkitua.

(1) Mutillaren izen-abizenak. (2) Neskaren izen-abizenak. (3) Bertso-paperak: *Eola juañ zaidanoc igesi*. (4) Bertso-paperak: *sikira etzazan larga ez balit*. (5) Neskaren izena. (6) Neskaren izena. (7) Neskaren izena.

(1907)

Bertso Berriyak

1 Milla pasa ta bederatzireun
zazpigarrengo urtian,
Zeruko Aita, lagun zaidazu
iru itz egiñ artian;
mesedez ustez nuben tratu bat
portunatu zait kaltian,
zer pasa zaitan esan biar det
.....-ko partian. (1)

2 Tamaña ortako buruzbiderik
ez nuben askorik uste,
baña eman dit neskaxa orrek
makiña bat buru-auste;
nere ezkontzaren pasadizuak
jakin nai badira laste,
ia, gaztiak, papertxo bana
eramatera atozte.

3-ko alaba ori (2)
bertan jaio ta aziya,
nik esan gabe askok dakite
nola dan bere graziya;
santa-papera egiñagatik
badu naikua maliziya,
engañatuko luke kasikan
bakarrik mundu guziya.

- 4 Pasadizuak diran bezela
garbi ditut itzegingo,
aurrenetikan atzeneraño
ez det ezer utsegingo;
iru urtian or ibilli naiz
gustua nundik egingo,
ondo portatu balitz gauz ori
iñork etzuen jakingo.
- 5 Piska bateko diyracampo (*sic*)
juan ziñan Irun aldera,
beti mendiyen bizi izan gabe
kanpuak bisitatzera.
Geroztikan zer moduz zabiltzan
akordatutzen al zera?
Orrengatikan atrebitu naiz
bertso berriyak jartzera.
- 6 Nere andregai izandu ori (3)
oso dama egokiya,
mingaña ere iztun ederra
baño biotzez tranpiya;
esposatzeko egun oriyek
iritxirikan iya-iya,
azken-azkenik ipini ziran
pobriaren aitzakiya.
- 7 Ni ustez beti portatuba naiz
tokatutzen dan moduan,
pobre ta aberats guzitatikan
izaten gera munduban.
Ai, pentsamentu ariñ oiek nork
jarri dizkitzu buruan?
Lenago ere baziñikizun
zenbat interesa nuban.

- 8 Sasoi batian dudarik gabe
bazirazun amoriyo,
nigatik utzi baldin baituzu
beste amar bat nobiyo.
Esaten ziran: "Ezta neretzat
zu bezelakorik jayo";
ta despedida eman dit gero
gauza utsa dala meriyo.
- 9 Gaizki etortzen dala diozu
pobriarekin pobria,
dudarik gabe orrek naiko du
markesa edo grabia;
tamaña orretan iñor uztia
ezta kristauen legia,
aberatsak e billatuko du
zu zeran baño obia.
- 10 Illabetian dia acampo (*sic*)
Irunen zera izandu,
berebiziko suertea or
egun oietan izan du;
nik ez nekiyen oraiñ artian,
jendiak ala esan du:
eguzki aldeko bibotedun bat
berriya egiñ omen du.
- 11 Irunen pasa illabete ta
etxera juañ ziñanian,
beti bezela jarri nitzaion
beraren aldamenian;
kopeta illun, begiya triste,
etzegon umore onian,
saltsa et'abar despedida eman dit
gero beintzat azkenian.

- 12-ko alabarikan (4)
orrelakorik zanikan,
mundu onetan bizitu naiz ni
sinistu gabetandikan.
Beste lekutan ez ote dago
ori dan bezin onikan?
Aziyo ori egin du baño
batere ez daukat penikan.
- 13 Zori oneko gure ezkontzak
ekarri du bost enredo,
sentimenturik iñork zeukanik
zuk etzenduan espero;
beste norbaiti esateko're
lotsagarriya ez nago,
zu ere zabiltz prantzes orrekin
nerekiñ baño fiñago.
- 14 Emakumerik asko badago,
gañera ondo jazte'a;
falta duen bat gustatutzeko
franko neskaxa gaztea.
Zertan zabilta iñor nastutzen
batea eta bestea?
Saia zaitia iñola al bada
jeniyo oiek uztea.
- 15 Merezi ere baziñuen da
ematen dizkitzut graziyak,
zergatik eze oiek baiditu
neregandik mereziyak;
Irun aldian dabizki oraiñ
sekulako pantasiyak,
orri gustatzen zaizkala uste det
ikusitako guztiyak.

16 Amaseigarren bertsuarekiñ
biar nituke bukatu,
uste gabeko konpromisuak
nola diran suzeditu;
gaizki portatu dala meriyo
naiz ortara atrebitu,
naiago nuke errespuestak
jarriko baldin balitu. (5)

Bertso-papera, *Imprenta y Litografía de V. Iraola*
moldiztegian argitara emana, eta Oiartzungo Anto-
nio Arsuagaren eskutik jaso.

(1) Neskaren erria. (2) Neskaren erria. (3) Bertso-paperak:
Nere andregai izanduari. (4) Neskaren erria. (5) Bertso-paperak:
baditu.

(1910)

Bertso Berriak

- 1 Milla bederatzireun urte
aurten amargarrenian,
itz egitia tokatutzen da
motibua daubanian; (1)
.....-k ateratako (2)
bertso oien gañian,
berak kulparik eztualako
dabil onik-onenian.

- 2 Pertsona orrek franko egin du
ortan arriskatutzia:
lendabiziko ezkondu eta
gero bertsuak jartzia;
gutziz askori txokatu zaio
komeri ori aitzia,
lan orretara etziñaden zu
izan bazendu lotsia.

- 3 ori gezurrez ai da (3)
nere mandatu-kontuan,
bere burua edertu naian
bertsuetan edo kantuan;
lenago ere bajua zan,
orain ez dago altuan,
nik ezkontzeko esan niola
ametsen bat egin zuan.

- 4 Esaten dezu mutilzartu ta
nagola jarrigarrixa,
beraz denpora gutxiz onuztik
egin det alde aundixa;
zerori ere ezkondutzeko
ez zeuden gaztegixa,
ogei ta amairu urte kunplituta
ogei ta amalau ixa. (4)
- 5 Gogo aundia daukazu,, (5)
bestei faltak botatzeko, (6)
neuk ez daukat asmorik bada
ixilikan lagatzeko;
baldarra esan arren ez naiz etorri
ni zugana moldatzeko,
zu nigana bai diruan eske
bertso berriak paratzeko. (7)
- 6 Ni ari naizen ofiziua
eztu orrek asko famatzen,
sasoi batian oso ona zan,
orain asi zaio txartzen;
jornal txikia daukatela ta
asi da konduta galtzen,
..... aldian kostako zaio (8)
nik ainbeste diru artzen
- 7 Al dan gaizkiyan asmatu eziñik
or ibilli da neretzat,
burutik sano dagoanikan
ere iruritzen etzat;
morriona ta morrala ditu
elejitzen besterentzat,
gauza alrebesak ete litezezke (sic)
oin artu duan orrentzat?

- 8 Dontzella, diru-kontu orretan
egiten nazu tentatu,
zeuk saltsa danak ipinita
besteren kulpa kontatu;
esaten dizunez dirua franko
etxera dezu juntatu,
nik ez det ortan parterik eta
osasan onez gastatu.
- 9 Komeri ori despatxatu zan
domingu santu onduan,
beste orrenbeste pasa zatenak
izango dira munduan;
nik alargun bat sentitzen nuan
neska orren inguruan,
a la puñeta danak utzita
argatik alde egin nuan.
- 10 Kanpora nola nik urten nuan
artu zuten aditzera,
anaie-arrebak etorri ziran
aguro gure etxera;
ia ez nitzan konformatuko
lengo moduan atzera,
ni orren txarra izanda ainbeste
zertako saiatu zera?
- 11 Iru urtian engañatuta
egon zerala nerekin,
gezurretako abildadia
ona daukazu zerekin;
erromerira juanda jolas
egiñ arren alkarrekin,
egundo pentsatu ezpanuan nik
ezkondutzia zurekin.

12 Kontatzen ai zera,, lagunak (9)
izen berrixa esaten diela neri,
eurak izan kebrauak eta (10)
esaten ai badira eztanari;
gezurra ta saltsa badaki
ebaillien ugari, (*sic*)
etena dalako soldautzatik librautakua
izango da onik-onenian ori.

13 Abundantzia andiak ditu
orain sartu dan etxian,
neronek ez det penarik artzen
ondo dagola aitzian:
gusto guztiak kunplitutzen dira
leku onian sartzian,
eta endemas orrek bezela
besten umiak artzian.

14 Besteri neurriyak artzen astia
a ze gauza alrebasa!
Limosna eske juango nazela
kontatutzen orren poza.
Aurriaz gauzak erabagitzen
ori ete da jueza?
Zeiñ orretara biartu leikian
juzgatzen ez da erreza.

15 Aua betian esaten ai da
dirurik ez detela nik,
ta orregatik nabillela
jaietan ere bakarrik;
oiek egiak balida ere
zutzat ez dator okerrik,
sekulan ez du iñok ikusi
nere boltsian bazterrik.

16 “Ni ta nere ama emen gabiltza
erri guztia nastutzen”,
zuk ori ola jarriagatik
ez gera asko estutzen;
iñoz bakizu gure etxian
txokolatia artutzen,
ondo egindako pertsonagatik
ez da orrela jardutzen.

17 Bastante estu ibilli ziñan
arriuren lanetan,
ezkondu eta andik amabost
ero geiago egunetan;
prenda batzuek noizbait sortu
konpletuak ez danetan,
parientiak osatu zuten
bakoitzak puska banetan.

18 Egun orretan zure anaia
etorri zan arrotuta,
bakarrik ezin atrebitu zan,
primua lagun artuta;
nere ermanua atera omen zan
tiruen otsa aituta,
anka bizkor egin zuten
atzeko aldera beituta.

19 Orrenbesteko banidadiak
diruetan eta gauzetan,
ezen faltikan zure mingañoak
apenas dauka ezertan;
arriorikan ezin osatu
usatzen dan klasetan,
ez dakit zertan ibilli zeran
ogei ta amairu urtetan.

20 Ezkondu gabe gelditziak
miñ ematen zizun,, (11)
esker emaijozu agure
zar bizkar-okerrari;
zeuk billau ez da zure lekuan
ipiñi dezu ori,
imintziua ta jarduna
izango zuan ugari.

21 Majo egin dezu arriskatzia
neri bertsuak ateratzen:
lendabiziko zeu ezkondu ta
gero mutillak tentatzen;
zuk bezelaxe nik e badakit
bertsolariak topatzen,
errespuestarik izango zanik
ez al zenduan pentsatzen?

22 Sasoi onenian pentsatu dezu
lan orretan ibiltzia,
uste al zendun zeuk aterata
nik isillik lagatzia?
aurreko aldiak erakusten du
nola dantzatu atzia,
zuri ainbeste kostako zat nei
errespuesta jartzia.

Bertso-paper au, *Imprenta de Orúe - Eibar* moldiztegian eman zan argitara, eta gure eskuetan jarri zuana Gernikako Sebero Altube euskaltzain jauna izan zan.

Guernica - Imp. Angel de Goitia moldiztegian ere argitaratu zan bertso-sail au paperetan, eta ale bat

Gregorio Mujika jauna zanaren bilduman arkitu genduan.

Leenengo, bertsoetan esaten danez, neskak mutillari jarri dizkio bertsoak, gutxik egiten duten bezela, ordea: “lendabiziko ezkondu eta gero bertsuak jartzia”.

Baiña mutillaren aldetik ordaiñak datoz, onako bertso auek alegia. Izan ere, “zuk bezelaxe nik e badakit bertsolariak topatzen”.

(1) Bertso-paperak: *Nolibua daubanian*. (2) Neskaren izen-abizenak. (3) Neskaren izena. (4) Bertso ontako puntuak *zeta* izkiarekin idatzita daude bertso-paperean: *jarrigarriza*, *aundiza*, *gaztegiza* eta *iza*. Guk *equis* izkiaren idatzi ditugu. Leenengo puntua *parregarrixa* bearko luke, gure iritzirako beintzat. (5) Neskaren izena. (6) Bertso-paperak: *Beste faltac botatzeco*. (7) Bertso-paperak: *Ors berriac paratzeco*. (8) Gipuzkoako erri-izen bat. (9) Neskaren izena. (10) Bertso-paperak: *quebrauc*. (11) Neskaren izena.

Bertso Berriyak

- 1 Kanta abetan azaldu nai det
nere andregai alaja,
zerengatikan argira gabe
txokuan liteke aja;
eztakit oraiñ egiten duben
farrez iji eta aja,
berak billatu ninduben eta
berak nauelako laja.

- 2 Bera zebillen nere ondoren,
ni berriz erdi igasi,
nere denboran onlako trantze
estuban ez naiz ikusi.
Esaten ziran: "Nik ez al det zu
ainbesteko bat merezi?".
Bazuben neska mingañ-legunak
beretzat diña malizi.

- 3 Eztet oraindik iñoiz ikusi
kalian joaten seriyo,
farra egiñaz mutill denari
esaten diyo ariyo;
ikusten danez, mirabi orri
gogor eldutzen badiyo,
gutxiyeneko biarko ditu
sei edo zazpi nobiyo.

- 4 Engañatzeko oso poliki
gero zanian moldatu,
sinisturikan neronek egiñ
niyon berari mandatu.
Esaten ziran: "Itz xamur ori
dizutandikan aditu,
zuk eztakizu biotz gaxua
nola dirazun mugitu".
- 5 Nola txit apañ jarri nai zuben
gure mirabe gaztiak,
engañatzeko alako legun
esaten ziran trastiak;
soñekogai bi erosi nizkan
eta ondoren jostiak,
guziyak nere patrikeratik
duro ederrak kostiak.
- 6 Etzuben zapata beltzarik nai,
biar zituben oriyak,
takoi koxkordun extubak eta
justu neurriyan jarriyak;
tela fiñakiñ gona-barrenak
bordatutako txuriyak,
modu orretan neri seriyo
sartzen zizkiran ziriyak.
- 7 Beti kariñoz itz egiñ eta
ondoren zerebait eska,
lengoko puska zarrak bota ta
berriyak kofrian dauzka;
ni tontu onek eman da eman
ona zalakuan neska,
naiago nuke nere duruak
lengo lekuan baneuzka.

- 8 Erromeriya izaten bazan
joan biar zuben goizetik,
ostaturikan ederrenera
tripa berdintziagatik;
arratsaldian erroskill preskoz
pañuelotxua beterik,
nik pagatu ta arrek etzuben
janaz etorri besterik.
- 9 Eztakit nongo indiyana
azaldu zaigun errira,
bada aguro nere nobiya
ipiñi zaio begira;
indiyanauek etxe-ataian
emanaz iru-lau jira,
lendabiziko izketan biyak
ondo konpondubak dira.
- 10 Ainbeste maite ninduben amak
jarriyaz milla aitzaki,
gezur eta abar bestiengatik
laja ninduben poliki;
segitzen diyon bizardun arren
jeniyo berri baneki,
merezi du ta nik dantzatuko
nuke guztizko ederki.
- 11 Jakindu det nik erri danian,
bañan ez dakit dan ala,
ixil-ixillik bat eta beste
kontatzen ari dirala;
esaten dute txantxarik gabe
aditu ta beriala
emen dabillen indiyana
gizon ez konduba dala.

- 12 Illabetiak pasa ta gero,
beti gertatzen dan gisan,
lendabiziko pregoia bota
zuten erriko elizan;
bazkaldutzera nobi-etxian
guztizko pilla bildu zan,
eta atian norbait galdezka
allegatuba omen zan.
- 13 Eskalletako ate itxiya
iriki zuten orduan,
ama ta aurrak sartu ziraden
salan bazkaltzerakuan.
Andriak ziyon: "Tunanti ori
erori zera lazuan!".
Indiyanua, bere senarra,
odolik gabe zeguan.
- 14 Ikustekuak ziraden noski,
aien etxeko sarrera,
Ama bere iru aurtxuakiñ
nola juan ziran aurrera;
baldiñ gizonak iruki balu
andik saltatzeko era,
tiratuko zan naiz buruz bera
leiotikanen kalera.
- 15 Uste gabeko bere andrien
bistan zanian ikusi,
berialaxen aien aurretik
ezkutatutzen zan asi;
lapurren gisa itzulbidia
zubenerako ikasi,
kaiola bertan laja ta andik
txoriya joan zan igasi.

16 Eztakit damak joan naiko duben
indiyanuaren billa,
orla uzteko engañatuba
orren mirabe abilla;
iru aurraren aita gertatu,
ustez zalako mutilla,
mereziya du eta bera're
oraiñ amola dedilla.

Bertso-papera, *Imprenta y Litografía de V. Iraola*
moldiztegian argitara emana eta Errenteriko Joakin
Ganborena Zabalaren eskutik jaso.

Bertso Berriak

1 Nere kristabak, jakiñ zazute
zer diran gure kasuak,
arrigarriyak dirade gaurko
askoren pasadizuak;
jarriko ditut biar bezela
guk emandako pausuak,
baldin laguntza ematen badit
gure Jaun amorosuak.

2 Dama gazte bat guztiz bikaña,
kanpo asko ikusiya,
Euskal-Erriko mendi-etxian
jaiua eta aziya;
mutill gaztiak engañatutzen
gazterikan ikasiya,
orren mingañak salduko luke
bakarrik mundu guziya.

3 Esaten ziran: "Sasoian nago
senar zintzo bat artzeko,
aspalditxuan desioz nabill
zu nigana ekartzeko".
Enbusteriya franko egiñ dit
ni beregana jartzeko,
tela ederra ezta izango
ori etxian sartzeko.

- 4 Erantzun niyon neskatxa orri
nere goguak esanez:
“Zeinbait pertsonak iñoz betetzen
dituzte samintasunez;
denbora joanda eztu baliyo
jartziak damutasunez,
orregatikan esaten dizut
len dadukazun edo ez”.
- 5 “Zeralarikan mutill prestuba
pentsatzen dezu uztia,
gure artian egin nai nuke
ezkontzeko ajustia;
bakartadian aspaldi ontan
nik bizi-modu tristia,
zu bezelako berogarriyak
munduban asko ezta”.
- 6 Alkarri itzak eman da gero
giñan konforme jarriyak,
esposatzeko preziso biar
ginduzen paper berriyak;
orretarako nere etxetik
bisitatubaz erriyak,
bide oietan esanaz kontu
jo gauza gustagarriyak. (1)
- 7 San Antoniyoz Urkiolara
genduben erromeriya,
trenian sartu giñadenian
damaren fanfarreriya!
Kolore zuri gorri ederrak,
gañera guri-guriya,
oiek guziyak izanda ere
zera engañagarriya.

- 8 Allegatu ta lendabiziko
giñan elizan sartubak,
relijiua meza entzun da
ondorenian artubak;
errezo onak egin da gero
andik erretiratubak,
amabiyetan bazkaitarako
mayian preparatubak.
- 9 Bazkaldu eta irten giñaden
berriz plaza ikusteko,
berandu arte an egon gabe
goitikan bera jasteko;
belarritako eder batzubek
erosi nizkan jazteko,
eta Durangon makiñatxo bat
traje batzuek josteko.
- 10 Bigarren txandan Loiola aldera
egin genduben bisita,
kupira gabe joaten giñan
bide oietan asita;
oso kontentu ibilli gera
Azpeitira iritxita,
andik etxera San Inaziyon
gauz ederrak ikusita.
- 11 Neska ori gaztetxua da,
dauzka emezortzi urte,
kunplitzen zaizka otsaillaren
amazazpiya bitarte;
batekin egon izandu balitz
etzuben izango kalte,
orregatikan geldituba da
neregandikan aparte.

- 12 Azkenerako nun izan giñan
kontatuko det itz biyan:
lendabiziko Bilbaon eta
gero berriz Donostiyan;
nere ozpena aditu zuben (*sic*)
agorrillaren zortziyan,
zergatik eztan tranposagorik
eguzkiyaren azpiyan.
- 13 Zeinbait pertsona estututzen da
orlako lanak artzian,
beti kontubak ibillitzen da (2)
tamaña ortan jartzian;
milla erriel gastatu ditut
trenetan eta kotxian,
alare bera portatu balitz
ajolarikan etzian. (3)
- 14 Gure kontubak gogor xamarrak
ez dira izan antziña,
ezaguera ona izan du,
baiña orain dauka eziña;
zere denboran guztiyengana
izandu zera etziña,
obe zenduben gaur beste moduz
ibilli izan baziña,
- 15 Orra gurekin izandu diran
izketak adierazi, (4)
len ere iñoiz orlako gauzak
egiten ditut ikusi;
oraindik askoz gogorraguak
orrek zituben merezi,
ara euskaraz bertso berriyak,
amar zentimon erosi.

Bertso-papera: *Guernica - Imp. Angel de Goitia* moldiztegian argitara emana eta *Zezilio Agirre* apaiz jaunaren eskutik jaso, berak Bizkaian, Ea errian, bilduta.

(1) Bertso-paperak: *jo gauza guztarriak*. (2) Bertso-paperak: *beti contubac ibilltzen da*. (3) Bertso-paperak: *ajolaric etzian*. (4) Bertso-paperak: *izquetan adi erazi*.

Bertso Berriyak

- 1 Bertso berriyak ipiñitzeko artu det pentsamentuba, anparo gabe ez da iristen oraiñ nere talentuba; Zeruko Aita, argi zadazu arren entendimentuba, bear bezela esplikatzeko daukadan sentimentuba.
- 2 Bertso oriyek izango dira dama bat autan artuta, arrazoi denak bear bezela itxura onez neurtuta; jakiña dago, ontaratu naiz ni berak obligatuta, jende guziyak jakiñ dezala nola dan publikatuta.
- 3 Pasadizuak bear bezela nai nituzke erabaki, geroko orrekin izan ez dediñ, al baldiñ badet egoki; zer nola giñan jendia frankok gure aldian badaki, bear bezela ikasitzeko atentziyua iduki.

- 4 Ezkondutzeko aspaldi nitzan
dama batekiñ asiya,
plantxadora bere ofiziyoz
ta bestek erakutsiya;
agindu eta gero faltatu
aiñ da gauza itxusiya,
orañ argatik zabaldu biat
egin diran maleziya.
- 5 Aurrenetikan neskaxa orri
artu niyon esperantza,
nere artian pentsaturikan
izango ote zan fiñ-antza;
guk ez dakigu nolakua dan
zenbait kristaben kriyantza,
ustez ezertan utsegiñ ez da
azkar izan du mudantza.
- 6 Aguztuba zan ezkontza orren
lendabiziko abira,
au dakitenak gure inguruban
bakar batzuek badira;
izketa orrek ez digu izan
or luzaroko segira,
abendubaren ogei ta amarrez
eman ziran despedira.
- 7 Despeira eman da or azaldu zat
bigarrenego egunian,
neri izketa txarra egiña
arkitutzen zan penian;
galdetu ziran baldiñ benetan
ote neguen lenian,
piñ zebillela pentsatu nuben
ala etorri zanian.

- 8 Modu orretan izandu nuben
neskatx orren etorrera,
sentimentuba zeukan bezela
prestatu zitzaidan bera;
aserrerikan baldiñ baneukan
aplakatzeko kolera,
len bezelaxe nai zukiela
segitutzia aurrera.
- 9 Konformatuta jarri nitzaden
kontu oiek sinistuta,
berak ill zuben arrazoi bera
ostera berak piztuta;
garai onetan arkitutzen da
orduko itzak aztuta,
aizian gisa mudatutzen da
piñezarikan ezta ta.
- 10 Ama Birjiñaz esanak giñan
alkarrekin ibiltzeko,
nola ziraden pesta-egunak
gaztiak dibertitzeko;
alegiñian saiatura da
nigandik apartatzeko,
gero gabeen itzegiñ ziran
ordukua barkatzeko.
- 11 Izketako oiek orla pasa ta
berriz biyaramonian
galai batekiñ pasiatzera
joan zan kontentu onian;
itzak ederrak mingañez eta
maleziya barrenian,
ni baño ura naiago zuben
askozaz aldamenian.

- 12 Penarik ez det sekula izango
zuri bertsuak jarriya,
zergatik zeran mingañez legun
eta kariñoz urriya;
zarra utzi ta jeneralian
gustatzen zaizu berriya,
orlakuari esaten zaio
mundu-engañagarriya.
- 13 Tratu egiñak geunden gu biyok
Begoñara juateko,
erromeri bat ona egitia
ez gendubela kalteko,
Ama Birjiña bisitatuta
suerte on bat izateko;
gero kopeta izan du orrek
ez dijuala esateko.
- 14 Neskatz ederrak asko dirade
Gipuzkoako lurrian,
batzuek daude aparte samar,
beste batzuek urrian;
faltsuagorik ez det ikusi
nere begiyen aurrian,
zu bakarrikan izan baziñan
ez negon leku txarrian.
- 15 Bertso berriyak orra atera
merezi duben damari,
abertentziya jartzen dizuet
gayian zauten danari;
dama gaztea, erreparatu
atal-buruko kanari,
orlaxen gauzak esaten zaizka
gaizki portatzen danari.

16 Dama orrengana ni juaten nitzan
iñola al nuben maizena,
ofiziyoz naiz argin-lanian
nonai jarduten naizena;
gazte batekin ezkonduzko
tratamentua izana,
nik esan gabe jendiak ondo
badaki orren izena.

10 Bertso oriyek atera gabe
nai zitukian gelditu,
bitartekuak ipiñi eta
alegiñak egin ditu;
orrek desio izanagatik
ez diyo asko serbitu,
orra sermoia paperan jarri,
gusto dubena aditu.

10 Nere barrena deskantsatzeko
orra bertsuak atera,
dama gaztia, galdetzen dizut:
“Gezurrik jarri ote da?”.
Gusto dubenak erositzeko
emen badago aukera,
baliyoz ez da oso aundiya:
amar zentimo papera.

Bertso-papera, *Imp. de Quintanilla*. - Zarauz
moldiztegian argitara emana eta Usurbilko Egiluze-
txiki baserrian azaldua.

Bertso Berriak

- 1 Motiborikan asko badaukat bertso berriak jartzeko, arroturikan dabiltzan oiek juiziyuan sartzeko; ai, orrelako pertsonak dira ondo daudenak galtzeko, Judasek Jesus bezela zenbait egoten dira saltzeko.

- 2 Bi urte bada dama batekin tratatzen nitzala asi, ai, orrelako matrakarikan ez det oraindik ikusi; pasadizuak zer nola diran nai nuke adierazi, biar bezela jarriko ditut nai ditubenak ikasi.

- 3 Nere izatez naiz, (1) daukat izena, (2) neskatxa orrek engañatuta luzaro egon naizena; mutillengana arrimatzen da ori al duben maizena, egun batian etziñan sortu biziro prenda zuzena.

- 4 Oi ta bi urte iya baditu,
ezta dama itxusiya,
nere erritik urruti gabe
jaiua eta aziya;
orain izenez publikatzia
daukagu galeraziya,
bestela pozik esango nuke
nola dan bere graziya.
- 5 Ezkondutzeko ustian nitzan
dama orrekin abitu,
galdetu niyon bestek oraindik
ote zuben pretenditu.
Erantzun ziran: "Tratamentuban
zurekin nai det segitu,
nere biyotzak gañerakuak
zugatik utziko ditu".
- 6 Modu orretan itzegin zuben
kristau fin baten antzera,
naitasunian zegon bezela
emanikan aditzera.
Neroni berriz esan ziraden:
"Zu zertan gelditzen zera?".
Bein orretara ezkeru nola
egingo nuben atzera?
- 7 Itzak alkarri orla emanda
geunden kariño fuertian,
sosegurikan etzeukan orrek
biyok ezkondu artian;
ta gurasuen baimena berak
nai zuben derrepentian,
ta lizentziya eskatu ziyon
andik urrengo batian.

- 8 Aita ta ama konforme ziran
beren alaba emateko,
egun batian esan ziraten
aien etxera juateko;
nere dotia zenbat zan oiek
desiua jakiteko,
atsua ernai jarriya zegon
galdera egiteko.
- 9 Nik borondatez esan niyoben
zenbat zan nere dotia:
lau milla pezta banitubela
etxeko senipartia;
neskatxa orren amak pentsatu
zuben neri esatia:
“Nere alaba artzen badezu
zuk daukazun suertia!”.
- 10 “Lau milla pezta eztira txarrak
–esan ziran aguriak–;
beste oiñbeste izango ditu
noski alaba guriak”.
Garbitasunak orla eginda
esposatzeko idiak;
orra zer saltsak jarri dizkigun
neska ajolagabiak.
- 11 Kontu oriyek orla pasata
andik urrengo egunian,
neskatxa orrekin jua nitzaden
.....-a trenian; (3)
ango ermitan bisita eginda
geunden umore onian,
gero zelaiian dantzatu giñan
lekurik ederrenian.

- 12 Erromeriya ori eginda
andikan illabetera,
bigarren aldiz Donostiyara
biyok giñaden atera;
allegatu ta lendabiziko
juan gera denda batera,
berak nai zuben erregaliya
neskatxa oni egitera.
- 13 Denda orretan zeuden gauzari
ondo ziyon begiratu,
medalla eder bat katiarekin
berak zuben aukeratu;
nik, tontu onek, isill-isillik
oien kontuba pagatu,
gero auzora jua da kontatzen
nola ziraden pegatu.
- 14 Lengo batian ikusi nuben
beste galai bat artuta,
Donostiyatik nola jua zan
tranbe batian sartuta;
asko nai ditubena berekin
jarri oi da aspertuta,
nik emandako arrazoiakin
orain dago muturtuta.
- 15 Nerekin orrek tratatzen zuben
beti naitasun otzian,
esker gabeko andregai onek
egi bat esan etzian;
fin zebillela itxura egin,
maleziya biyotzian,
au artu banu ai zer maleta
izango nuben etxian!

- 16 Neskatxa orrek egin nai luke
gizon aberatsen jabe,
pobriak ere mutil formalak
asko izaten dirade;
dozen erdi bat izan ditu ta
dago esposatu gabe,
orrelakua neska zartuta
gelditzia askoz obe.
- 17 Zu bezelako ollandarekin
eztago erraz tratatzen,
fiñezarikan ez daukazu ta
nolanai zera mudatzen;
aizien gisa edozeñena
juanda gezurrak kontatzen,
ezkondu beste gauzikan danik
asko eztezu pentsatzen.
- 18 Zurekin libre egotea nik
izango ote det kalte?
Edozeñekin zabiltzalako
zaude nigandik aparte;
zenbait nobiyo mingañarekin
izan dituzu zuk maite,
agur, andregai izandakua,
ondo-ondo bizi zaite.

Bertso-papera, *Zarauz-en*, *Quintanilla moldete-
gian* argitara emana, eta Ondarrabiko Fernando
Artola *Bordari* zanaren eskutik jaso.

(1) Mutilla nungotarra dan, alegia. (2) Mutillaren izena. (3)
Gipuzkoako toki-izen bat.

Bertso Berriak

.....-k dama bati jarriak (1)

- 1 Damatxo bati pentsatua naiz
bertso berriak jartzea,
inozentzian dauden guziak
esperentzian sartzea;
trataturikan egondu gera
elkarrez esposatzea,
orrek neretzat itzak legunak,
amorioa atzera.

- 2 Euskal Errian jaiotakoa,
izena dauka, (2)
.....-ko fonda batean (3)
dagoen serbitzaria;
beratzi-amar illabetean
izana nere nobia,
orain ni baztar utzita nunbait
sentitutzen du obia.

- 3 Bere amari esan ziola
majo bat billatutzeko,
desio faltik apenas daukan
gizon koskor bat artzeko;
etxean gero trata zutela
neri zerbait aitatzeko:
“..... dago nobio ona
gurerentzako”. (4)

- 4 Aستاizken baten bere anaiak
.....-ko ferian, (5)
konpromisorik iñokin neukan
neroni galdetu ziran;
ezetz bada nik erantzun nion
aditu eta segiran,
etxean nola pentsatu zuten
bertan akusatu ziran.
- 5 Igande artan anaiarekin
.....-ra joateko, (6)
bera nindula orri (7)
aurrera presentatzeko;
fondan ixillik egon bearra,
ez iñor enteratzeko,
estaziora atera giñan
tratoa zerratutzeko.
- 6 Iruok giñan oso konforme
ateratako itzera,
esaten ziran: “Zu nere faltan
beintzat izango etzera.
Jaietan gero al dan guzian
etorri bisitatzera”.
Izugarrizko amistadean
partitu ere etxera.
- 7 Iñoiz onela joaten nintzan
itz egitera jaietan, (8)
alaja ori zebillelako
fiñezan edo egitan;
gauza jakiña etzuala nai
jartzea orren begitan,
oso ziara antz eman nion
abenduko feritan.

- 8 Baserriara ezkundutzeko
zeuzkala enpeñoak,
brusadunari bañon obeto
badaki artzen tiñuak;
nere begiak ez bazituan
engañatu errañuak,
lebitadunak egiten zion
oso poliki kiñuak.
- 9 Andik etxera allegatzean
au da nik esan niena:
..... ori nola zegoan (9)
total oztuta nigana.
Esan ziraten: "Izango degu
danetan gauzik onena:
egun batean bera ta guraso
junta gaitzan alkargana".
- 10 Señalamente gure etxean
ziran Urte zar egunean,
aita ta ama oñez ta ori
.....-ra trenean;
andikan biok gure etxera
satisfazio onean,
itzez konforme partitu ziran,
biotzez okerrenean.
- 11 Esan zirena: "Arreroakin
zerbait pentsatuta gare,
diru utsakin bialdutzea
zu konforme bazerade".
Erantzun nien: "Ez da itxurik
baserrin arrero gabe,
naiago nuke ori ekarri,
diru gutxigo bada're".

12 Dama orrek zer egingo ziran
beti neukan iruria.
konbidatu nun Santa Kutzetan
joateko erromeria;
erantzun ziran baneukala
nik ori baño ohea,
nai nuenakin ibiltzeko
gañera libertadea.

13 Aizkeneko arrazoia
ori izan da orrena,
graziak gure Jaungoikoari
ez nago mutu, errena.
Nik esan bear nion gauzea
berak esan dit aurrena,
goierritarra izanagaitik
eiten du pasaitarrena.

14 Nola ziraden gure etxean
erri guztiak badaki,
beste batezaz nik nola etsi
zuk baztar utziagati?
Zeruko Aitak izaten badu
nizaz batere erruki,
zu bezin fiña etxerauko det,
ez kuidarorik eduki.

15 Mundu guziak au jakitea
zuk nola izan atsegiñ?
Lan onetara ni ez ni Joan
berak ez balu utsegiñ;
orain damutan baldin bazera
ipurdiari atsegiñ,
eta gezurrik ipiñi badet
nai zun lekura otsegiñ.

16 Mundu guziak jakin ditzala
zurekin nere kasoak,
bide txarrean ibiltzen danak
maiz ditu estrapozoak.
Agur,, orra nik zuri (11)
ipiñitako bertsoak,
bide badezu neri ordañez,
atera beste batzuak.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Ormaiztegi-
Bizente Mujika zanaren eskutik jaso.

(1) Mutillaren izen-abizenak. (2) Neskaren izena. (3) Erri-izen bat. (4) Mutillaren eta neskaren izenak. (5) Erri-izen bat. (6) Erri-izen bat. (7) Neskaren izena. (8) Bertso-paperak: *itz eguitea jayetan*. (9) Neskaren izena. (10) Erri-izen bat. (11) Neskaren izena.

Bertso Berriak

dama gazte bati jarriak

1 Damatxo gazte bati
neugandik graziak,
dozen erdi bat bertso
dituz mereziak;
ustez orretarako
ez gera asiak,
orain agertu dira
zure maleziak.

2 Publikatzera nua
euskal errietan:
baietz esan ziñazun
Eguerrietan;
neure faltrikaratik
erromerietan,
orduan ona nintzan
zure begietan.

3 Agindu ziñarela
orain iru urte,
Eguerri-eguna
señaladamente;
itzak ederrak eta
kariñua aparte,
zure enbusteriak
engañatu naute.

- 4 Donostian bizi da,
.....-kua, (1)
Ernanin serbitzari
egondutakua;
maleziaren faltaz
etzaude flakua,
ezagutzen gaitza da
zu bezelakua.
- 5 Dama orri esan nion,
Ernanira juanik:
josten ikasi biar
zubela oraindik.
Erantzun ziran ezik:
“Ez daukat dirurik”.
“Atoz etxera eta
emango dizut nik”.
- 6 Ez dizut desiatzen
gaizki ikustia,
amoriozkua da
nere izatia.
Adiós, mi querida,
ikusi artian,
baliau izan zaitez
zeure suertian.

Bertso-papera, *Imp. de Elosu.* - Durango moldiz-
tegian argitara emana, eta Oxford-ko *Bodleyan Li-*
brery-tik eskuratua.

(1) Neskaren erria.

Bertso Berriak

.....-k dama bati jarriak⁽¹⁾

- 1 Bertso berriak jartzera nua motibo dean kasoan,
txit konbeni da enteratzea etxean ezik auzoan.
Mundu guzia gelditu dein satisfazio osuan,
dama bat nola portatu zairan-an. (2)

- 2 Merezi arren ez det jarriko neskaxa orren izena,
.....-n askok dakite zein dan (3) nerekin tratatzen zuna.
Testimonio faltsorik gabe jartzen det pasa zaidana,
asieran gu kontsuelotan,
disgustuetan atzena.

- 3 Ni Gipuzkoan jaiotakoa,
leku asko korritua,
alde ortan ere karril batian lanian okurritua;
jornala zintzo irabaziaz itxuran sokurritua,
kondutaz ere orduan asko, geroz nago urritua.

- 4 Damak eta nik tratamentua
ordutik artu genduan,
esaten ziran: “Ez det zu baño
gustogokorik munduan;
zorionian jarri ziñaden
nere begien onduan”.
Orrentzat ai zer nobio ona
..... orduan! (4)
- 5 Esaten ziran gañera berriz
bere etxera joateko,
ama ta irurok pasadizuak
elkarri esplikatzeke.
San Pedro gabaz ni joan nitzan,
etzait sekulan aztuko,
oso konforme gelditu giñan
alkarrez esposatzeko.
- 6 Damatxo ori saiako zala
josten ere ikastea,
berak nai zuen dena eiteko
nere errespuestea.
Biotzeraño sartu zitzairan
fin zebilela ustea,
mingañez itzak neregana ta
amoriua bestera.
- 7 Itz formal oiek egindakuan
nere etxeratu nitzan,
neskatxa ori aguro kartak
neri bialtzen asi zan:
aren esana egin nezala
iñola al baneritzan,
“datorren jaia paseatutzen
pasa biar degu Tolosan”.

8 Orren esana poz aundiakin
joan nitzan kunplitutzera,
Tolosan egun ona pasa ta
bakoitza geren etxera.
Partiran zion sartu nitzala
arrunt aren biotzera,
“etorri zaitez lanera berriz
nizaz inguratutzera”.

9 Aindu nion da alde artara
aguro nintzan azaldu,
aren deseoa fin ustekoa
nizaz etzedien galdu.
Mundu guziak orla dirala
kontsideratuko al du,
besterik gabe eskuz karta bat
despeidakoa bialdu.

10 Orregatikan euskal erritan
nai nuke airaztea,
jakin dezaten dontzella ori
zein dan guztizko trastea.
Bati seguro agindu arren
errez mudatzen bestea,
ezin du baño gustatzen zaio
aberatsa ta gaztea.

11 Oraindik dala denbora gutxi
zala monja joatekua,
orrek artzen dun propositua
sekula ez da pijua.
Gaur pentsamentu bat artzen badu
biar bestera dijua,
arbol gutxitan etzuan joko
izandu balitz kukua.

- 12 Badakit ori zerengatikan
jarri zan nizaz oztuta,
bañan oekin lenaz gañera
ez det jarriko poztuta.
Indiano bat etorri zairen
erabat aberastuta,
arentzat ez det zer esanikan
merezi ere ez du ta.
- 13 Obeago da prenda txarrakin
ez jartzea alkartuta,
munduan asko nola dabilta
gurutzea okertuta.
Orrek despeida emanagati
ez nago ernegatuta,
asto moztera ez al naiz joango
ijitanan bat artuta.
- 14 Mudantza asko izandu ditu
ni akordatzen naizenez,
buruatzan zat baña lastima
guztiak ezin esanez.
Lenbizikuaz esposatuta
ez da aseko gizonez,
brusadunari muzinka eta
lebitadunik izan ez.
- 15 Papel onetan pasadizuak
gertatu diran bezela,
ia piska bat atzeatzen dan
orren kopeta-azala.
Bateonbati esango dio
gauza onela etzala,
baño nigandik libre dago ta
markes on batek ar zala.

16 Neronek uste ez nuen baño
berak nau onetarazi,
ia ta gauza oberik nola
ez duan ere merezi.
Gazte askori komeni zaie
ondo letu ta ikasi,
amasei bertso berri-berriak,
gusto duanak erosi.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Ormaiz-
tegiko Bizente Mujika zanaren eskutik jaso.

(1) Mutillaren izen-abizenak. (2) Neskaren erria. (3) Neska-
ren erria. (4) Mutillaren izena.

(1921)

Bertso Berriyak

- 1 Bertso berriyak ateratzeko
oso asi naiz gogotik,
Jaun Zerukua, eskatzen dizut
laguntasuna bertatik.
Gure tratuba nola izan dan
esplikatu nai nuke nik,
azio txarrak geroko zima
ez du paltatzen iñundik.

- 2 Bi urte pasa, iru gertuan
asi giñala tratatzen,
gezurrik gabe egi-egiak
astera nua kantatzen.
Amabost urte zitun bañan len
asi zitzetan esaten
nobiyorikan etzeukala ta
artzaz ez nitzan gustatzen.

- 3 Amazazpi urte nituen arte
asi zitzetan galdezka:
adiskiderik bai al neukan,
bera artzeko segika.
Egiaz kontestatu oi nion
nik iñor ez naukala,
sarritan esan oi ziran bera
nerekin gustatzen zala.

- 4 Ni ere gazterik akordatuba,
ori ez det ukatuko,
neskatxa ori bi nobiyokin
ibilli zan ordurako.
Danai lagatzen ziyela esanaz
fin zeguala neretzako,
orain besten bat gustau al zazu
nerekin ola ozteko?
- 5 Etorri oi ziñan sasoe baten
gure etxera gogotik,
aurriaz neri abixatuaz
ez ertetzeko etxetik.
Nabarmen asko ibilli ziñan
ni ondoren ipintziatik,
orduan danai laga oi ziñen
zuk ni ikustiatik.
- 6 Neskatzaxa ori nungotarra dan
esango dizutet lasten:
.....-ko barriotxuan (1)
bataiatu emen zuten.
Orain bizi da balleran (2)
barrio ortatik lasten,
izenez pozik esango nuke
baño ez emen debe uzten.
- 7 Firme neguan tranposa ori
zein zan adierazteko,
egunen baten etorri ziñan
gezurra pranko nasteko.
Ez emen dago ordenarikan
orren izenik jartzeko,
orretzek falta egiten ziran
bertsuak konpletatzeko.

- 8 Nere izena daukat, (3)
.....-ko partekua,
.....-ko barriotxuan,
baserriz-kua. (4)
Korputzez ez naiz oso bikaña:
bost arrue ingurukua;
aundi ta ederra nai debanantzat
badet paltia naikua.
- 9 Orain-n ein ditu orrek (5)
zazpi zortzi illabete,
an ere bi nobiyo ibilli emen ditu,
ni irugarren pakete.
Amen bat baño geigo artzerik
nola eztagon libre,
ametitu ezkeron nere iritziyen
sei bat artuko lituzke.
- 10 Neskatxa orrek zer grazi duan
jarri zaitezte aditzen;
azal leuna eta mantxua,
asi ezkeron tentatzen.
Estutu bat edo bi eman arren
eztaki asko kejatzen,
orrek eta nik rato gozuak
bagendukegun pasatzen.
- 11 Lengo jai baten aditu nion
izketan ari giñala:
okela lasai zuen mutillakin
asko gustatutzen zala.
Kintal pare bat pisatzen dunik
iñundik junta al bada,
kostiak kosta obe luke ekarri
bizi izan dedin gustora.

- 12 Milla pasata beratzireun ta
urte ogei ta batian,
Maiatzaren ogei ta bian,
Trinidad-egunian,
korrioz karta despedidakiñ
etxera etorri zanian;
ez nuen sinistu, ainbestegatik
geratu nitzan onian.
- 13-n biyok kontu kontari (6)
aurreko astelenian,
jaian juateko neri esaten
aitu zutenak baziran.
Beti bezela juan nitzan da
asi nitzan eizian,
zerbait galdezka asi nitzaion,
partierak laster ziran.
- 14 Eztu billatu motiborikan
diyonez neri lagatzeko,
desion bat erakusten dit
neskatxa on bat artzeko.
Zu añekorik ez leike billau
saldu-erosiyan asteko,
zu bezelako bi asko dira
probintzi dana nasteko.
- 15 Jeneralian oi dirade
udetan arrai leunak,
bargu ederra arrapako du
iñoiz au artzen zaitunak.
Legorrekua zu izen arren
like ederra dezuna,
apeziorik nik ez det peskan,
gerauko zaitu duenak.

- 16 Orain bi urte San Isidrotan
oraindik daukat goguan,
orain gustatzen etzatzun ori
orduan maite zenduan.
Arrazkero ere eduki zaitut
bakiña bat aldiz onduan,
baietz ta firme zeundela beti
tratuba aitaturakuan.
- 17 Nik ogei urte, orrek emezortzi,
biok oraindik gaztiak,
gorputz ta anima biyontzat kalte
umeik tratu ori artziak.
Faltso ibilli zera estraña
gero aitzeko pestiak,
ala ere etzaitzu asko estutuko
biotza eta estiak.
- 18 Neskaxa orren jeniyuarekin
zein ez liteke arritu?
Ni maite ninduan sasoiari
.....-ra oi zan bitu. (7)
Orain-en dabil eleizaz, (8)
or zerbait idukiko du,
zelañen meza orko apaizak
orrek agindu bear balu.
- 19 Baldin piatzen ezpazerate,
nere esanez gañera
inpormak artzen asi zaitezte
nola duan ibillera.
Urgulluaren medioz badu
jiba puska bat atzera,
zuk orrenbeste burle egiteko
markes-alaba etzera.

20 Ogeigarren bertsuarekiñ
jartzea nua despedida,
orrek merezi dituanentzat
oiek ezer ez dira.
Jesukristoren dotriñiari
eztiyo asko begira,
nai dezun eran deitu idazu
baldin gezurrak badira.

Bertso-papera, *Imp. Arregui*. - *Azcoitia* moldizte-
gian argitara emana eta bertako Ugarteko Jose Al-
dalurren eskutik jaso.

(1) Baillara baten izena. (2) Beste baillara baten izena.
(3) Mutillaren izena. (4) Mutillaren erria, baillara eta baserria.
(5) Erri-izen bat. (6) Toki-izen bat. (7) Baillara baten izena. (8)
Beste baillara baten izena.

Bertso Berriak

- 1 Bertso berriak ipiñitzeko
artu det pentsamentua,
Jaun Zerukuak argitzen badit
nere entendimentua;
mutill gazte bat emen nago ni
zigaro ernegatua,
esan biar det nolakua dan
..... ontako kontua. (1)

- 2 Juan dan urteko iñautegitan
juan nitzaden plazara,
gaztetasunez oi dan bezela
neskatillakiñ dantzara;
maitasun pixkat artu nion da
arratsian laguntzera,
gaur nagon baño kontentuago
buel tatu nitzan etxera.

- 3 Andik urrengo igande batez
bildu giñaden osterara,
barrenan gendun maitetasuna
alkarri erakustera.
“Bizi-laguntxo zoragarri bat
artu nai nuke zartzera”.
Erantzun ziran: “Kontentu naiz ni
zu konpormatzen bazera”.

4 Geroztik beiti emen gebiltzan
aiñgeru batzun moduan,
baña sasiak pixtu nai dituanak
izan ditugu auzuan;
len esan dedan aiñgeru ori
gezurrez bete nai zuan,
maitiak sinistu izan balizko
leku onian neguan.

5 Lendabiziko esan zioten
iru nobia nitula,
ta ni izan naiz olako gauzik
pentsa gabia sekula;
ikusten dezute gure auzuan
etsai gaiztuak ditugula,
oriengandik apartatutzen
Jainkuak lagun deigula.

6 Gure ezkontza galdu nayian
saiatu dira egiñala,
or ikusten da besteren ona
eraman ezin dutela;
pamiliako guraso batzuk
gazte txoruak bezela,
badirudite zazpi urteko
eskola-umeak dirala.

7 Eziñ litazke denak sinistu
orko atsuan esanak,
oiek ez dira guraso bati
tokatzen zaizkion lanak;
asko dirade mundu onetan
onla ibiltzen diranak,
beren etxia baño auzua
goberna naio dutenak.

- 8 Esaten dute orko atsuak
alkarrena juntatuta:
“Ez dakit nola ibilliko dan
orrekin esposatuta”.
Pazientzian nola egon ni
oriek danak aituta?
Kontuak daude, supritu eziñak
lanak ematen ditu ta.
- 9 Orra nik esan nolakua dan
..... ortako jendia, (2)
berekiñ baño auzuarekiñ
geiago sartutzen dia;
penako dute itxura danez
ni etxe ortan sartzia,
baña onuzkero zail izango da
ezkontza ori galtzia.
- 10 Ta oraiñ pena izango dute
nik kantu abek jartzia,
ez da posible atso zar oiei
ezer esan gabe uztia;
ez du balio denbora juanda
damutasuna artzia,
kostako zaio neri besteri
etxe orretan sartzia.
- 11 Orra nik esan zer jende dagon
emen aldian, (3)
amaika gezur zabaldu dute
juan dan urte betian;
oraiñ bertsotan zabaldu ditut
euskaldunaren artian,
danak goguan izan ditzaten
bizirik dauden artian.

12 Amabigarren bertsuarekiñ
oraiñ biar det bukatu,
egia garbi esplikatzia
ez da izango pekatu;
ta kantu abek nork jarri ditun
nai duenak enteratu,
Gipuzkoako bertsolariak
emen gaude ta galdetu.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Azpeiti-ko Jose Lizaso bertsolariaren eskutik jaso.

Bertso-paper berezia degu au gaiaren aldetik. Mutillak bertsoak jartzen ditu, edo bertsolariaren bati jarri arazten dizkio; baiña ez bere andregai izandakoari, baizik-eta beren ezkontza galdu asmotan ari diran auzoko atsoei.

(1) Erri-izen bat. (2) Erri-izen bat. (3) Erri-izen bat.

Goierriko koplak

- 1 Bertso batzuben ipiñetzeko
artu det pentsamentuba,
biar bezela oiek jartzeko
baldin banu talentuba;
Badakit ondo zuk daukazula
gauza guzien kontuba,
Zeruko Aita, argi zaidazu
nere entendimentuba.

- 2 Orain bi urte pentsatu nuban
nobiya billa astia,
beste ballaran oi suertatu
guziko neskatx maitia;
neri esposatzeko aindu ta
azkar billatu bestia,
gezur batekin engañatu nau,
ai ori dama gaztia!

- 3 Broma ederrian ibilli giñan
denboraletxo batian,
erromerira biyok juateko
San Juanak etortzian;
egun guziya an pasa genduben
jan da eran da baltsian,
geren tratu (b) oi zerratu genduben
andik etxera bidian.

- 4 Andik etxera etorri giñan
bata bestien parian,
galdetu niyon gure etxerako
aber agintzen al zian.
Erantzun ziran: “Baita pozikan
preparatzen naizenian;
itxoingo al dezu josten da plantxan
pixkat ikasi artian?”.
- 5 Erantzun niyon: “Itxoingo dizut
gustoz da umore onian,
josten da plantxan ikasi eta
zu preparatu artian”.
Gutxiyenezkoz esperatu’iot
ogei bat illebetian,
konfitero bat aiskire egin dit
andik onen bitartian.
- 6 Karta batian abisatu dit
aspalditxoko batian,
aren esperantzan ez egoteko
albait denbora luzian;
monja juateko pentsamentuban
dala urrengo urtian,
aber beste bat billatzen detan
Otemotxeta aldian.
- 7 Arrazoi ori entzundakuan
gelditu nitzan tristia,
pentsatu nuben biyamonetik
praile sartzeko astia.
Zer egin ere ez nekin kasik,
ura zan buruaustia!
Auzoko andre batek agindu dit
billatutzeko bestia.

- 8 Disimuluban gañera ziran
karta ortan abisatutzen
baserritarrai etzitzaiola
señoritikan tokatzen;
ark etzekilla sorora jun da
artua ondo jorratzen,
naiago zula konfiteriyan
karamelubak saldutzen.
- 9 Nik ordubantxe pentsatu nuben
formalidadeik etzela,
tamaño ortakoik abisorikan
etziran ingo bestela;
euzkirikan gabe ein naiko du
errañubaren itzala,
lenago ere ez al zekin ni
baserritarra nitzala?
- 10 Nere andregaiia oi apaindutzen da
kaletarraren antzian:
soñeko motxak, galtzerdi serak,
zapata piñak soñian;
illa atzetik moztuba kriza-
dura mototxa ertzian,
zer sinpatika emate'un orrek
erreparuan jartzian!
- 11 Oaingo neskatxak asko apaintze'ira
uso kostunbre antzian,
moda igoaltxuba daola uste det
Españiyan da Frantzian;
garai bateko baldartasunak
Afrikaz auntza joan ziran,
zatartxua're ederra da orain
pestara azaldutzian.

- 12 Pestara junda esan ziraden:
“Artu biet erregaliya”.
“Zer biazu?”. Ta: “Iru-lau duroko
eskuko erraztun oriya.
Beste bat ere oso biar det:
lepoko kate txuriya;
urrungo txandan muatutzeko
artuko'irazu gorriya”.
- 13 Urrungo txandan muatutzeko
erosi niyon gorriya,
beste txarolezko ubel bat ere bai
apaindutzeko gerriya;
belarritako pare bat ere bai,
prantzes gindille aundiya;
oiek danak einda're igasi juan zat
nere andregai rubiya.
- 14 Motiborikan asko badet
gelditutzeko tristia,
bost baliyo du orren esperantzan
esposatzeko astia;
lengoa baño gustoagokua
billatzen badu bestia,
apenas asko kostako zaion
len dadukana uztia.
- 15 Bolara ontan nere nobiya oi
askotxok dauka maitia, (1)
etxe oneko alaba da ta
aundiya omen du dotia;
baña apenas eroziñekin
nai luke tratatutzia,
amak e nai du trajiakin da
bigoteduna juatia.

- 16 Ni're jua nitzan bein afaltzera
kaballeruen moduan,
alare etzuen seño rita orrek
egon nai nere onduan;
trajia neukan ajatu antza,
txapela zarra buruan,
Rotxildarrakin esposatzeko
a ze markesa neguan!
- 17 Neri esaten dit beltza naizela,
bera media morena,
eta uste du dagola iñun dan
txuri-gorririk onena;
"Morena salerosa" esatian
artzen du kolera ona;
erantzuten dit: "Zu bai moreno,
andregayik ez dezuna!".
- 18 Ori seño rita ederra dala
jende askok ala diyo,
berez ederra ta orrela jantzi
eta ez da misterio;
eskin guzitik seda ta zinta
eta parpalla dariyo,
oiek guziyak kendu ezker
len aña ez luke baliyo.
- 19 Nik ere beti izandu zaitut
biyotzetikan maitia,
baña alare pentsatu dezu
besterengana juatia;
etzat gustatzen iñorengatikan
promes txarrak egitia;
nik opa dizut: osasunakin
ondo-ondo izan zaitia.

20 Makiña bati gustatzen zaio
ederra eta gaztia,
nik ere nunbait pentsatu nuben
alakuakin astia;
señorita ori aridanian
eztu nai nekin jartzia,
urrungo txandan abarkaduna
billatu biet bestia.

Bertso auek makinaz idatzitako orri batetik ditut. Baiña orri ori nork eman zidan ez nuan kontuan artu.

Eskuzko zirriborro batean zera idatzi nuan: Asteasuko Aranburu-berri bertsolariarenak ote diran. Gauza segurua ez da, ordea, iñondik ere.

Baiña, entzunda nagoanez, bertsolari orrek olako bertso-saillak iñungo mutillik etorri gabe jartzen omen zituan, txeetasun guziak berak asmatuta alegia. Eta gero an eta emen saldu.

(1) Bertso-paperak: *askotxo*.

Bertso Berriak

- 1 Bertso berri batzuek
nua jarritzera,
zer buruzbide diran
ezkontzak atera;
faltsian ibiltzea
danentzat kalte da,
esango ditugu ta
etorri ikastea. (1)

- 2 Oi dana bezela, nes-
ka-mutil gazteak
alkarrekin ezkontzeko
ginduzen usteak;
damak berak emanak
aurrena albisteak,
ez dira ondo atera
gure ajusteak.

- 3 Ezkontza ori aspaldi
genduen asia,
orain gertatu zaigu
guri desgrazia;
neska, atso ta agure
danak malizia,
argatik esango det
pasa dan guzia.

4 Esaten jardun dira,
aua zabaldua,
nik billatu nuela
koartuan sartuta;
Erramuren bezpera
due señalatuta,
iñoiz jua banaiz ere
.....-k aginduta. (2)

5 Pazkoatik urrengo
osteguna baitzan,
dama ori nigana
sorora etorri zan;
malkoa zeriola
negarrez asi zan.
.....
.....

6
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
..... (3)

7 Atsoak itz egin dit
entero dotore,
bere esplikaziua
egin ziran trebe:
gurasuak zeudela
alabaren jabe,
ea zertan gebiltzan
aien berri gabe.

- 8 Berak pentsatu zuan
famili osuan,
ezkondu eta biok
juateko itxasuan;
arrazoi guzietan
artu ditut lazuan,
.....-k (4)
baietz esan zuan.
- 9 Berriz sortu digute
aideak gerala,
.....-ra (5)
juan zan bereala;
aren aitaren aita
angoxea zala,
an probetxurik ez ta
.....-a. (6)
- 10 Buelta ortan iru egun
zituen pasatu.
gañera eun erreal
dirutan gastatu;
gertatu dan bezela
nai det konfesatu:
paperarik etzeigun
batere prestatu.
- 11 orren aita (7)
orrela ibilli da,
esplikatuko dizut
zuzen ensegida;
lengoan azgarria
oraingo ori da
.....
.....

12
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

13 (8)
au da enbitea:
bost aldiz esan zirazun:
“Etorri zaitea!”;
irikiko zirazula
gabean atea,
posible ez da mutillik
juan gabe egotea.

14 Luzaro adiskide
gerade ibilli,
pasatako geienak
bear ditut jarri;
Tolosara juan eta
puruak ekarri,
gaixuak egin ziran
zenbait erregali.

15 Jenero oietatik
izan det aukera,
amaika errea nago
puru ta papera;
aterramentu txarra
ez degu atera,
geiago baditut baño
ez nua esatera.

16 Ibillera au aguriak,
planta ori atsuak,
semea ta erraña
ez zeuden gozuak;
.....-k ere apenas (9)
kariño osuak,
obrak dirudienez
guziak faltsuak.

17 Amazazpi bertsorekin
au da despatxua,
nai duanak erosi
badu deretxua;
gauza ikasiarekin
beti da probetxua,
. . . zentimuan saldutzen
.....

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Usurbil-ko Egiluze baserritik jaso.

(1) Bertso-paperak: *etorri ikastera*. (2) Emakume-izen bat. (3) Bertso-paperak beeko aldea falta du. Orregatik puntu-lerro auek. (4) Mutillaren izen-abizenak. (5) Giza-izen bat eta erri baten. (6) Erri-izen bat. (7) Neskaren izena. (8) Neskaren izen-abizenak. (9) Neskaren izena.

Bertso Berriyak

1 Elurra mara-mara
ari zan lenguan,
zerbait irakurriyaz
etxian negoan;
atia jo zidaten
austeko moduan,
beriala joan nitzan
zer ote genduan.

2 Atia irikiyaz
begiratutzian,
mutill gazte bat neukan
begiyen aurrian.
“Gabon Jainkuak” ziyon
irrifar-antzian,
orduban sartu giñan
gu biyok etxian.

3 Berak esaten ziran
enteratu zala
bertsuak antolatzen
iaiu nitzala; (1)
neska batekin zerbait
izandu zuala,
noski bertso batzubek
jarriko nizekala.

- 2 “Milla bederatzireun
ogei ta emeretzi,
Martxuan amabiyen
itzegin lenbizi;
jaia siñalamente,
musika ta guzi,
orduko imajiñak
eziñ ditut autsi.
- 3 Ez nuben sinistuko,
probatu ezian,
enamoratutzerik
ain gauza utsian;
berarekin izketan
egon ondorian,
poz aundi bat sentitu
nuen barrenian.
- 4 Arrosak arantz asko
ditu inguruban,
nere poz onek ere
izandu zituban;
antz eman ziranian
ni nola neguan,
maite miñez iltzia
erabaki zuban.
- 5 Datorren abenduban
dirade bost urte,
lau neskatxek ederki
engañatu naute;
musika bukatzian
abisatu naute
an egongo dirala (2)
ni azaldu arte.

6 Ez negoen aztuta
enkargo onekin,
laister juntatu nitzan
lau neskatz oiekin;
izketan asi giñan,
zer esan ez nekin: (3)
“Pastelak jan ditzagun (4)
danok alkarrekin”.

7 Pastelak jan giñuzen (5)
eta nik pagatu,
nere maitiak ez dit
neri begiratu;
eskergabekeri (y) au
nik eziñ sufritu,
etxerakuan biyok
giñan asarretu.

8 Damuturik zaudela
neri itz egiña,
zuk piztu zendun suba
etzegon egiña;
diasolik ez dezu
egiten antziña,
au nere desgraziya:
zu aztu eziña!

9 Bazenekizuke zuk
guziyaren berri,
benturaz arrituko
ziñake zerorri;
zure maitez egin det
milla txorakeri,
ez diyo begiratzen
zenbaitek ezeri.

10 Zoriona nai nuke
nik zugan ikusi,
lenbailen ezkondua,
semetxuak azi;
zugandik gauza asko
ditut nik ikasi,
eskerrik asko, maite,
agur, ondo bizi!" .

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Irungo Bentetan, Antojuko Errotan, jaso.

Sail ontan, leenengo iru bertsoetan jartzailleak itzegiten du; beste danetan, berriz, senargaiak.

Laugarren bertsoak urte bat ematen du: 1939. Urte ortako martxoaren 12-an neska-mutillak leenbiziko aldiz itzezin zutela adierazten da; baiña ez da esaten bertso auek noiz jarri ziran.

Dana dala, urte ori esateak bertso-sail au ain zaarra ez dala esaten digu. Zergatik argitaratzen degu, beraz? Erri eta giza-izenik ematen ez dualako, eta inor minduko ez dalakoan.

(1) Bertso psaperak: *jaiua*. (2) Bertso-paperak *Au egongo dirala*. (3) Bertso-paperak: *Ker ezan ez nekin*. (4) Bertso-paperak: *Pastela jan ditzagun*. (5) Bertso-paperak: *Pastela jan giñazen*.

Bertso Berriak

1 Gazte polit batentzat
bertsuak jartzera,
nai dubena etorri
.....an artzera,
.....izketak nola
diran agertzera,
nere andregai ori
zerbait edertzera. (1)

2 Asi ezkerro jarri
biaitut egiyak,
arrigarriyak dira
gure komeriyak;
beti mutillengana
daduzka begiyak,
zenbait mirabe ortan
dira geiegiyak.

3 Neskatx ederra dago,
oraindik gaztia,
orrek miatuko du
bat edo bestia,
askorekin gustatzen
zaiona astia;
ai, zenbat sosegatzen
errazak ezta!

4 Zortzi nobiyo izan
ditu lau urtian,
bat aberats samarra
oriyen artian;
orri segika dabil
beretzat kaltian,
damutu biar zaio
egunen batian.

5 Onezkero osatu
biar duna,
be..... dijua
al duban maizena;
zuri-gorri ederra,
gañera gizena,
etzan mundura jaiio
alaja zuzena. (2)

6 Ikusi nubenian
orrenbesterekin,
laiste itzegin niyon
arrazoiarekin,
esanaz: "Zeiñ fiyatu
biar du zurekin?
Kontzientzi ederra
daukazu zerekin!".

7 Ori esanagatik
etzan ikaratzen,
nonbait ibilliko zan
onena aukeratzen;
orrelakuak ondo
ez dira ateratzen,
asko batere gabe
dirade geratzen.

- 8 Egun batez juntatu
giñan alkarrena,
obe nuben azaldu
ez banitz orrena;
mirabe orrek esan
ziraden aurrena:
“Ezkondu biar degu
al dan laisterrena”.
- 9 Ori berak orrela
esan ziranian,
etxera etorri zat
biyaramonian:
“Dibertitu gaitezen
txit modu onian,
kanpuetara guazen
zuk nai dezunian”.
- 10 Erromeriyari asi
giñaden gogotik,
nere kontura, orri
etzaio inportik;
iru egun pasatu,
buelta Bilbaotik,
nere boltsak pagatu
zuben orregatik.
- 11 Andik Donostiyara
giñaden etorri,
ango pasadizuak
esanez alkarri;
makinatxo eder bat
genduben ekarri,
josten biar zubela
dama orrek jarri.

12 Urrena Endaiara
zortzigarrenian,
goizeko zazpiyetan
dagoen trenian;
dama ori etzegon
deskantsu onian,
sedazko traje on bat
etzedukanean.

13 Denda aundi batian
tratuban asita,
bere gustoko traje
on bat ikusita;
etzuben orlakorik
orrek merezita,
pozak etorriya zan
soñian jantzita.

14 Dama ori utzi arren
ez nago estututa,
kaballero batekin
or dabil poztuta,
orrek zer egin biar
diyoben aztuta,
juiziyo aundirik
berekin ezta ta.

15 Bi milla errial ditut
gastatu orrekin,
kontentu nago libre
naizela zurekin;
aurrera segi zazu
nai dezunarekin,
naikua da ikasteko
onenbesterekin.

Bertso-papera. Usurbil-ko baserri batean azaldua eta kopiatua.

Papera guraizez ebakita dago jira guzian, eta orregatik ez dakigu moldiztegi-izenik zuan ala ez. Gaur dagoan bezela, etzaio orrelakorik ikusten.

(1) Papera puskatuta dago, eta ezin bertso guzia irakurri. (2) Bertso ontan ere papera puskatuta dago.

Bertso Berriak

.....-k andregaiari jarriak (1)

1 Dozenatxo bat bertso
bear ditut jarri,
ikasi detalako
dama baten berri;
ezkontzeko itzak eman
genizkan alkarri,
nola portatu zaidan
esango det sarri,
ni engañatu arte
ibilli da larri.

2 da (2)
nik detan graziya,
.....-n jaiua, (3)
asko ikusiya;
..... berriz (4)
.....-n aziya, (5)
sasikumian gisa
sartuta eziya,
eztu asko erruki
nere piñeziya.

3 Tratatzeko asmu
biyak giñan mintza,
Donostiyan denborak
pasa al banitza;
nik diruba nubela
eman niyon itza,
orduban etzeguen
engañatzen gaitza,
egunak mudatuta
geroztik gabiltza.

4 Itzegiñ niyonian
kariño-antzian,
.....-n zegon
.....; (6)
orduban usai txarrik
aditzen etzian,
mingaña legun eta
tranpa biyotzian,
ondo goguan daukat
zer erantzun zian.

5 Konforme gelditu zan
nik itzegitian,
baietz agindu ziran
onradamentian;
andik erten da beste
paraje batian
serbitzen egondu da
iru illabetian,
jendiak zer dabillen
antzeman artian.

6 Iru illabetian
eiñ dizkit bost karta,
nik berriz kontestatu
kariñua izanta;
denbora aitan etzuben
ni besterik palta,
lenbailen ezkontzeko
eman ziran planta,
amari esateko
.....-ra juanta. (7)

7 Serbitzetik erten da
neronen etxera,
eskalleretan eman
zian aditzera:
“....., gaur nerekiñ (8)
juango al zera?”.
Negarrez plantatu zait
konformatutzera,
orduban ez ninduben
utzi nai galtzera.

8 Ama Berjiñetako
señaladamente,
gurasuan etxera
eman degu frente;
arrats artan bazuten
milla aiudante,
ni txokuan utzi ta
bestiak amante,
ango leio-soñubak
enfadatu naute.

9 Gaba orla pasata
gero goizaldera
senar-emaztegaiak
asarratu gera;
ariyua pronto ta
au da ibillera,
urrengo egunerako
ein ziran galdera:
zertan antzeman niyon
gutxi gora-bera.

10 Kongreanta zegola
jaso dit biyotza,
aitzaki ortan joan nai
zuben-a; (9)
bestiak maitatu ta
neri eman lotsa,
itzak ederrak eta
amoriyo otza,
alkar estimatzeko
alibiyo motza.

1 Nobiyak konbidatu
.....-rako, (10)
an despeira emanta
utzi nau *en blanco*;
goizeko ordubiyak
ateratzerako,
gero menditik oñez
korritu det bapo,
Donostiya jo nuben
amarretarako.

12 Orrek utzita ez naiz
asko enparatu,
Donostiyen badago
zeñek anparatu;
.....-ren despeida (11)
ara deklaratu,
tranposagorik inun
eztagola kontu,
nigatik libre da ta
nai dubenak artu.

Bertso-papera, Usurbilko baserri batean azal-
dua eta kopiatua.

Papera guraizez ebakita dago jira guzian, eta
orregatik ez dakigu moldiztegi-izenik bazuan ala ez.
Gaur etzaio orrelakorik ikusten.

(1) Mutillaren izena. (2) Mutillaren izen-abizenak. (3) Muti-
llaren erria. (4) Neskaren izen-abizenak. (5) Neskaren erria. (6)
Zuzenbide bat. (7) Neskaren erria. (8) Mutillaren izena. (9) Erri-
izen bat. (10) Neskaren erria. (11) Neskaren izena.

Bertso Berriak

Doiñua: Anton Ixkiñarena

1 Egiak aitortzera
uste det nuala, (*bis*)
.....-ko neskatxa bat (1)
mediante dala;
bañan ez gorrotuan,
iñork ez dezala
txinistu dedanikan
ain biotz argala;
obratu nai det Kristok
agintzen ditzen bezela.

2 Indi-ollarran gisa
gazterik eldua, (*bis*)
ezkonduko giñala
neri agindua;
galai beste batekin
lenago ibildua,
larrartian masustak
biltzen amildua,
desaireka bildurrak
zeunden umildua.

- 3 Nerekin ikusita
supritu eziña, (*bis*)
zugatik gaizki zuan
dantzatu mingaiña,
beata neska zarrak
tertulian aiña
etzazu ixillikan
bazekizun baiña,
baliteke noizbaitean
zerbait utsegiña.
- 4 Nai nuken bezin lasai
ez nago barrendik, (*bis*)
motibo txarrik ustez
eman gabetandik;
zergatik joan ziñan
igasi nigandik
aitortu biar nazu,
ez dakit oraindik;
galdetzen dizut (2)
..... (3)
- 5 Jan dezan besten bizkar
ez nitzan ibilli, (*bis*)
ta ain gutxi larrua
arropaz estali;
biotza sutan daukat,
naita ezin itzali,
ta zu menosprezioz
joateko itzuli,
bañan ez dizut opa
zotza burruntzali.

6 Alaba kondiaren
gixa da jantzitzen, *(bis)*
erri berean dago
kapan serbitzen,
soldataz gain propiñak
diru asko biltzen,
laister esposatzeko
dotia aurreratzen;
egia bada etzait
gaizki iduritzen.

7 Illiak kizkurtuta
dotore jarririk, *(bis)*
agiri ez duala
belarritakorik,
ortz ordoitzen asiak
erakutsi nairik,
ezpañak okertuta
begiyakin kirik,
norbaitek erantzungo
ote diyon kikirik.

8 Atian soñua krik,
nor ote dan billa; *(bis)*
erreberentzia egin,
jartzen daki silla,
irriparrez esanez:
“Exeri dedilla”,
eskuetan arturik
kopa ta botilla,
eskañi koñak usai
gozoko udalla.

- 9 Propinakin batian
eskerrak emanda, *(bis)*
kantari asten dira
txurrut bana eranda;
keiñua egin da galdez:
“Jakitea on da:
erari au egin zuan
gizon ori nor da?”.
Damak erantzuten du:
“Baldomero Landa”. *(Sucesor)*
- 10 Gari-soruan ugari
bezela oluak, *(bis)*
inguratutzen zaizka
galai potoluak;
orretako batek txarrak
egin errezeluak,
txelatan egoten da
artu arte luak,
beste gauzarik ezin
egin txotxoluak.
- 11 Tarrin-girrangu onen
ipurdi-eraiñak, *(bis)*
esan leike baratzan
erriak osiñak;
kalian gertatzen da
arri-adokiñak
ustez ondo jarriak
egon desberdiñak,
balantzaka ez daki
nola jarri oñak.

12 Gaxua, ez dakizu
zuk daukazun gaitza (*bis*)
ez dala pegakorra
baiñan sendakaitza;
izateagatik batak
bestiaren antza,
egoaiziakin parte
arturik zabilta,
adixkire, zugatik
gaizki esana mintza.

13 Esposatzen zerala
esan dezu aurki, (*bis*)
eta bizi izango
zerala ederki;
zer esaten dizudan
goguan iduki:
dotriña ikasia naiz
zuk bañon obeki,
ez dizut gorrotorik
baizikan erruki.

14 Zuben gezurrak zian
ain izugarriak, (*bis*)
aiturik zaizkit ia
gortu belarriak,
eta erantzuteko
negon egarriak;
orra amalau bertso
euskeraz jarriak,
bizieran arteko
gogoangarriak.

Bertso-papera, *La Editorial Guipuzcoana*, - Tolo-
sa moldiztegian argitara emana, eta Azkoitin jaio
eta Zarautzen bizi zan Patxi Larrañaga bertsolaria
zanaren eskutik jaso.

(1) Neskatxaren erria. (2) Lerro ontan zerbait falta dala ematen du. (3) Gipuzkoako erri-izen bat.

Arkibidea

Itzaurrea.....	7
Bertso Berriak: “Bertso berri batzuek asi naiz paratzen...”	11
Bertso Berriak: “Dama gazte bat da neri bertsuak jarriya...”	17
(1870)-ak bere emaztegaiari ateratakak: “Milla zortzireun irurogei ta amargarren go urtian...”	22
Bertso Berriak: “Bertso berri batzuek biaitut atera...”	27
Andregai nuana: “..... andregai nuana”.....	32
(1889) Bertso Berriak -k jarriak: “Milla zortzireun larogei eta...”	34
Orra amabost bertso mutillak-ri ordanak: “Kanta ditzagun orain zenbait bertso berri...”	39
(1890) Bertso Berriak: “Milla zortzireun larogei eta amargarren go urtia...”	44
(1893) Bertso Berriak: “Milla zortzireun larogei eta amairugarren urtian...”	47
(1898) Bertso Berriak / Ondo bizi ta ario: “Zortzireun da larogei urte emezortzirekiñ milla...”	53

(1899) Bertso Berriak: "Milla zortzireun larogei eta emeretzigarren urtian..."	57
Bertso Berriak: "..... da nere graziya"...	61
Bertso Berriak: ".....-n zaigu txiripa bat pasa..."	67
Bertso Berriak-k bere andre-gaiari jarriak: "Askok aňeko talenturikan ez izan arren aukeran..."	72
Bertso Berriak: "Desio dedan bertso berriak al banitzake kantatu..."	80
Bertso Berriak-k jarriak: "Bertso berriyak jartzera nua asunto egoki bati..." .	86
(1903) Bertso Berriak: "Milla bederatzi eun eta iru urte..."	90
Bertso Berriak: "Gertatu zaidan asunto bati jarri biaizkat bertsuak..."	95
Bertso Berriyak: "Dozenatxo bat bertso jartze-ko..."	100
(1906) Bertso Berriak Senpelarrek jarriak: "Milla pasatu bederatzireun da au da seigarren urtia..."	106
(1909) Milla pasa ta bederatzireun beatzigarren urtian..."	111
Bertso Berriak: "Bertso berriak ateratzeko emen badago premiya..."	117
.....-ren bertsuak oroigarritz: "Orra bertso berriyak-renak..."	122
Bertso Berriak: "Bertso berriak jartzera nua damatxo gazte batentzat..."	126
(1909) Bertso Berriyak: "Milla pasa ta bederatzireun zazpigarrengo urtian..."	131
(1910) Bertso Berriak: "Milla bederatzireun urte aurten amargarrenian..."	136

Bertso Berriyak: “Kanta abetan azaldu nai det nere andregai alaja...”	143
Bertso Berriak: “Nere kristabak, jakiñ zazute zer diran gure kasuak...”	148
Bertso Berriyak: “Bertso berriyak ipiñitzeko artu det pentsamentuba...”	153
Bertso Berriak: “Motiborikan asko badaukat bertso berriyak jartzeko...”	158
Bertso Berriak -k dama bati jarriak: “Damatxo bati pentsatua naiz bertso berriak jartzea...”	163
Bertso Berriak dama gazte bati jarriak: “Damatxo gazte bati neugandik graziak...”	168
Bertso Berriakk dama bati jarriak: “Bertso berriak jartzera nua motibo dean kasoan...”	170
(1921) Bertso berriyak ateratzeko oso asi naiz gogotik...”	175
Bertso Berriak: “Bertso berriak ipiñitzeko artu det pentsamentua...”	181
Goierriko koplak: “Bertso batzubek ipiñetzeko artu det pentsamentuba...”	185
Bertso Berriak: “Bertso berri batzuek nua jarritzera...”	191
Bertso Berriyak: “Elurra mara-mara ari zan lenguan...”	196
Bertso Berriak: “Gazte polit batentzat bertsuak jartzera...”	200
Bertso Berriak-k andregaiari jarriak: “Dozenatxo bat bertso bear ditut jarri...”	205
Bertso Berriak: “Egiak aitortzera uste det nuala...”	210



1051096
G-129/6



Neska-mutillak alkarrekin asi eta tratabidea eten egiten bazan, mutillak neskari bertsoak jarzen zizkion. Gure aiton-amonen garaian orrela egin oi zan, ez noski beti, baiña bai bear baiño geiagotan. Baita ere, zenbait aldiz beintzat, neskak mutillari bertsoak ordainetan atera.

Bertso-sail auetako batzuk *Auspoa*-ren 15-garren alean argitaratu genituan, 1962 urtean. Gaurko ontan, berriz, beste mordo bat.

Baiña bai liburu artan eta bai gaurkoan ere, kendu egin ditugu pertsona eta toki-izen guziak, iñoren leengo miñak eta lotsak ez berritzearren.

Bertso auek asko lagunduko digute gure erriaren izakera obeto ezagutzen: gure aurrekoak ezkontzarako nola prestatzen ziran; alkarri emandako itza zer balio zuan; erromerietara nola joaten ziran; erregaliak alkarri nola egiten zizkioten, eta abar eta abar. Bertso auek garai bateko Euskal Erriaren argazkiak bezela dira, izan ere.

ISBN 84-89080-84-4



9 788489 080843